


# Augustin **ZUBIKARAI**

Ana Urkiza

**elkar**

BIOGRAFIAK



## Ana Urkiza

(Ondarroa, 1969)

Kazetaritza eta Hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen, Enpresa Komunikazioan aditua eta Bankoa Crédit Agricole-ko Giza Baliabideen Zuzendaria da. Idazle gisa, hauek dira argitara eman dituen liburuetako batzuk: *Gela ilunetik*, *Bazterreko ahotsa* eta *Nire hiriko poemak* poesia liburuak; *Desira izoztuak* eta *Bekatuak* ipuin bildumak; *Ondarroako piratak* eta *Ondarroako piraten abentura berriak* haurrentzako eleberriak; *Nire herriak ostadarraren koloreak ditu* eta *Tita tiritita* haurrentzako ipuinak; *Zortzi unibertso*, *zortzi idazle* saiakera.

Euskal Biblioteka Labayru



1051781

BIOGRAFÍAS / N. 1684

# Augustin ZUBIKARAI

HERRI EUSKARAREN ZAINDARIA  
(1914-2004)

Ana Urkiza

Diseinua: Unai Arana

© Ana Urkiza Ibaibarriaga

© Hitzaurrea: Andres Urrutia Badiola

© Argazkiak:

Azaleko argazkia: Angel Ruiz de Azua

125,133, 148, 170 orr.: Juan Fernandez Egiguren

151, 165, 166 orr.: Foto Furundarena, Ondarroa

11, 22, 61, 83, 88, 99, 103, 105, 115 orr.: Zubikarai familia

© ELKARLANEAN, S.L. Donostia. 2009

L.G. SS-1452/2009

ISBN 978-84-9783-816-0

Elkar argitaletxea

Portuetxe kalea, 88-bis | 20018 Donostia


Tel. 943 31 02 67 | Fax. 943 31 02 16

[elkarargitaletxea@elkar.com](mailto:elkarargitaletxea@elkar.com)

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetzea intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzar har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak ([www.cedro.org](http://www.cedro.org)) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)



elkar | BIOGRAFIAS



## **AUGUSTIN, BI BERBA, OROIGARRI OSO**

Irakurleak aurkituko ditu liburu honetan, xehe-xehe emanak eta atonduak, Augustin Zubikarai idazlearen nondik norakoak. Artezki eta molde zehatzez batu ditu horiek guztiak Ana Urkizak, bera ere idazle dela. Bi-biak ondarrutarrak; bitzuok euskararen mundura etorriak, itsas lurrun eta turrunen artean.

Ohiko izaten da, halako liburu baten aurkezpenean, egilearen goresmenak egitea. Halakoxeak egiten ditut nik ere, Ana Urkizak lehendik erakutsi dituelako esku ona eta idazletza fina, euskal letretako pertsonaietatik hainbat papereratzean.

Kontuak kontu, Augustin Zubikarai datorkigu orriotan bistara; haren aldi on eta txarrak, haren gogo, amets, egitate eta ezin guztiakin.

Aldikadaz aldikada ikusten dugu Augustin Zubikarai zena, gazte denborako lehen artikulua sutsu horietatik gerra mingotsa arte, espetxealdiak, erbesteratzea eta abarrekoak datozkigula, banan-banan, gomuta eta oroigarri.

Gero, herriratu ahala, badatoz familia eta idazle urteak, euskara bera debeku eta isunaren pean.

Hala ere, Ondarroako herriak jakin zuen euskarari eusten, eta, eutsi ez ezik, testuak, sentimenduak eta kultura sortzen ere. Hor dago Zubikarai antzerkigilea, olerkaria; hor kazetaria eta itzultzailea... Hitz gutxitan esateko, euskal kulturaren sustatzaile eta suspertzaile.



Hala ezagutu nuen nik bera 1981. urtean, Ondarroara joan nintzenean. Eusebio Erkiaga izan zen gure ararteko. Zubikaraik, alabaina, berehala jarri zidan lana, ONDARROA aldizkarian egitekoa. Gero etorri ziren, haren eskutik, hainbat eta hainbat ekitaldi nahiz liburu, bion arteko harremanak sendotu arte.

Augustin bete-betean zebilen urte haietan, euskal lanari ez ezik, herriarenganako erantzukizunei ere muzinik egin gabe, Bizkaiko Batzar Nagusietan parte hartu zuelako.

Zail samar izango da haren moduko emaitzak aurkitzea euskal literaturaren esparruan. Euskaltzaindian nahiz Euskara-zaintzan ibili zen Augustin, eta egundo ere ez zion ukorik egin bere herriko euskarari.

Horra liburuaren titulua; horra, zer esanik ez, bizitza baten labor-hitz egokia. Hura ezagutu genuenok badakigu halakoa izan zela. Liburu hau irakurtzen duenak ere laster atzemango du, Ondarroako herriak euskarari eta euskal kulturari eman dien bizitasunaren katean, kate-begi preziatua izan dela Augustin Zubikarai.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua.

## **BOKAZIO HANDI BATEN SORRERA (1914-1930)**

### **XX. MENDE HASIERAKO ARGILUNAK**

Zigorra aginduz eman zitzaion XX. mendeari hasiera. 1902. urtean, Hezkuntza Publikoaren lege zaharra osatzeko Errege Agiria plazaratu zen; eskolan gaztelania ez zen beste hizkuntzatan egiten zuten irakasleak zigortzeko mandatua, hain zuzen:

*“Los maestros y maestras de Instrucción Primaria que enseñen a sus discípulos la Doctrina cristiana u otra cualquiera materia en un idioma o dialecto que no sea la lengua castellana serán castigados por primera vez con amonestación por parte del inspector provincial de Primera Enseñanza, quien dará cuenta del hecho al Ministerio del ramo, y si reincidiese después de haber sufrido una amonestación, serán separados del Magisterio oficial, perdiendo cuantos derechos les reconoce la ley”.*

Urte berean, Sabino Arana Goiri kartzelan sartzeko agindua eman zuten, Roosevelt Estatu Batuetako presidenteari honako telegrama hau jartzeagatik:

*“Roosevelt, Presidente Estados Unidos. Washington. Nombre Partido Nacionalista Vasco felicito por idenpendencia Cuba Federación nobilísima que presidís, que supo liberar la esclavitud. Ejemplo magnanimidad y culto justicia y libertad dan vuestros poderosos estados, desconocido Historia, e inimitable para potencias Europa, particularmente latinas. Si Europa imitara, también nación vasca, su*

*pueblo más antiguo, que más siglos gozó libertad rigiéndose Constitución que mereció elogios Estados Unidos, sería libre. Arana Goiri”.*

Mezua, noski, ez zen sekula telegrafo-bulegoetatik atera eta handik urtebetera, 1903an hilko zen Sabino Arana Goiri, Sukarrietan.

1904. urtean, oster, Errege Agiri batek baimendu egin zuen telegrama eta telefonemak hizkuntza eta “dialekto erregionaletan” bidaltzea eta Teodoro Arana diputatu ondarrutarrak bidali zuen euskaraz idatzitako lehen telegrama, Madrilgo Kongresutik:

*“Santiago Irala. Ondarroa. Aitorren izkuntz ederrean nere lagun eta erritarrai biotz barrengo oroipenak. Teodoro Arana”.*

Ilun zetorren mendea baina bere argiak ere bazituen. Ez zegoen dena galduta.

1906an Luis Arana Goirik *Aberri* astekaria sortu zuen EAJren sektore moderatuarena zen *Euskalduna* aldizkariari aurre egiteko. Eta 1913an, Engrazio Aranzadi “Kizkitza”ren zuzendaritzapean *Euzkadi* egunkari elebiduna sortu zen, EAJren organo ofiziala izango zena.

Argi-ilun hauen artean, 1914an, I. Mundu Gerra hasi zen urtean jaio zen Ondarroan Augustin Zubikarai Bedialauneta.

## JAIOTZA

Ondarroan, arrantzale herrian, jaio zen Augustin 1914ko azaroaren 3an. Artibai ibaiaren gainean eta Zubi Berriaren oinean aurkitzen den 1864an eraikitako etxe zuriaren bigarren solairuan, hain zuzen. Garai hartan, Celedonio Arriolaren jabetzakoa zen etxea, Zubikarai familiak gerora bereganatuko zuena.

Gurasoak Salvador Zubikarai eta Ana Francisca Bedialauneta. Biak ala biak ondarrutarrak. Aita arotza zen ogibidez, Gasteizen “ebanista” ikasitakoa.



Augustinen gurasoak: Salvador Zubikarai eta Ana Francisca Bedialauneta.



Salbadorrek, Augustinen aitak, aroztegian erruki gabe lan egiten zekien: lan txiki zein handi, eskatzen zitzaionari moldatuz, beti. Ofizioa ondo ikasia zuen eta bera ere begi onekoa zen bezeroak eskatzen zionari behar bezala erantzuteko: sukaldeko aulki txikietatik hasi eta neurrira egindako hilkutxetaraino.

Baita hots handiagoko egitasmorik ere: Bastida arkitektoarekin harreman biziki estua izan zuen eta Bastidak Augustinen aitaren lana eta aholkua bere lan asko eta askotarako erabili zituen.

Gaztetandik ezagutuko zuen, bada, Augustinek, etxean, bai egitasmorik arranditsuen inguruko eztabaida eraikitzailea “*beti be aurrera egiteko balio dabenak*”, eta baita adiskidantzaren indarra ere. Lagunak etxera ekartzearen eta haiekin zeukatena partekatzaren plazera aitarengandik jaso zituen Augustinek.

Ez zen, beraz, Augustin, arrantzale familia batean jaioa baina “*jaioterriko arrantza-izaera barne-muinetaraino sartuta ekarri zuen Augustinek txiki-txikitandik*” aitortuko zuen J.M<sup>a</sup> Arizmendiarieta haren lagun handiak: “*Saturraranera oinezko bidea egiten zuenetik*”. Augustinek berak ere bere bi jatorriak aipatzen zekien: “*Kresalaren gatza kendu eziñik darabilt soiñean*” batetik, eta bestetik, “*baserriari be begira, soiñean darabilt gura-soakandik dator kidan odola*”.

#### **Familia: Augustinen izaeraren sustraia**

Bederatzi neba-arreba izan ziren etxean eta Augustin hirugarrena: Jose Mari zaharrena (arotza izango zena), Lucio (hil egin zitzaiena), Augustin (hirugarrena), Imanol (arotza), Paulin (arotza), Ane (jostuna), Karmel (kaxa-jostailea), Peli (harakina) eta Begoña (etxeoandrea).

Haren lehenengo eskola, bost urte zituela, “Gurutzetako Alabak” lekaimen ikastetxea izan zen. Txiki-txikitatik erakutsi zuen buru argia eta ikasteko gar handia; eta etxeko giroak ere ikastera bultzatu zuen: Augustinen aita kontalari fina zen, ohiturak gordetzekoa eta irakurle porrokatua. Augustinen etxean ez zen sekula egunkaririk falta, ez eta gertuko albisterik ere: aitak beti zeukan zer kontatua, zela egunkari edo aldizkarietan irakurritakoa, zela aroztegian gertatutako bitxikeria edota batzokian entzundako jakingarririk.

Txomin Agirre ondarrutar idazlea ere hurbil-hurbiletik jarraitzen zuten etxean. Txomin Agirrek, 1901ean, jada, *Kresala* nobela atalka plazaratua zuen *Euskal-erria* aldizkarian; eta 1912an *Garoa* liburu moduan argitaratzen da, aurretiaz Julio Urkijoren *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en argitaratu baitzen, atalka. Txomin Agirrereren azken liburua, *Garoa*, krudela zen; garai modernoaren edo industrializazioak ekarritako munduaren kritika errukigabea.

1912an, bestalde, Txomin Agirrereren, Gregorio Mujikaren eta Karmelo Etxegaraireren ekimenez, *Euskalerriaren Alde* izeneko aldizkaria plazaratu zuen Gipuzkoako Aldundiak.

Gertaera eta irakurketa hauek guztiek, aberastu baizik ez zuten egingo Salbador Zubikaraik etxean egingo zituen iruzkinak.

Augustinen amaren aldetiko osabak abadeak ziren eta aita ere oso eliztarra zenez, ume-umetatik ikasi zuen Augustinek elizakoak zirela eguneko lehen betekizunak.

Etxean ikasi zuen, beraz, Augustinek, ohiturak ezagutu, maitatu eta gordetzen; kontuei adi egon eta entzuten; handik eta hemendik jasotako gertaerei gorputza ematen; eta hurbileko errealitatea interpretatzen eta maitatzen.



### Aitaren kontu gozoak babes

Txiki-txikitatik ohitu zen Augustin inguruan ikusi eta bizi zituen gertaerei buruzko galderak egiten eta aurkitzen zuen erantzunarekin garaian bizi zutena azaltzen.

*“Zergaitik eukan gure amak ezin sartutako oiñetakoak erosteko oitura, gero nasaituko zirala-ta, nai ta luzaro gure beatzak eta oiñak tximurtu eta minduta erabiltearen truke izan? (...) Kaltzetintxo zuriak be kaletako basaz erdi erdia mokolotuta, gure denporetan umien jaunartze egunian beti eguraldi zikiña gertatzen zalako. Baiña gu antxe, zutik, arro, adi, zur, amesetz beterik abestu daiogun Maitasunari kanta-ala ekiñalean”.*

(Deia, 1981-VI-12)

Augustinen familia ez zen behartsua, baina bai garaiak eta bederatzi umeko sendi batek eskatu bezala, gauzei begiratzekoa.

*“Ume giñan; zazpi urteko ume guri; esnearen geunak amak igarri barik jatea izaten zan gure autortu bearreko pekatu; eta kalea, jaunartu ondoren, aita-besuetakoagandik asi eta kokote gozoa eroanez agurtzen genduzan senide ta auzoko guztiei, eskua luzatu eragin eta “parkatujauna” egin bear izaten geuntsan esku gaiñean, kurutze ezaugarria gure eskutxuekin iruditu eragin eta musu bat, laztan bat apaltasunez emonaz”.*

(Deia, 1981-VI-12)

Haurtzaro lasaia izan zuen Augustinek. Babestua.

Lan egitea zer zen umetatik ikusi eta ikasi zuen etxean; eta kanpoan jabetu zen itsasoaren eta bizitzaren garratzaz.

Aitaren kontu gozoak zituen Augustinek, zorionez, lasaigarri eta kontrapuntu, soberakinik ezagutu ez zuten garai hartan.

*“Maitasun eskale giñan orduan. Maitasuna besterik ez gendun gure nai, gurari, asmo eta ikasietan. Sekula pentsatu ez gure*

*zarrak, guraso, adiskide eta erritarrak, bestelako kezkarik edo estutasunik eduki eikeenik”.*

(Deia, 1981-VI-12)

### HAURTZAROKO GIROA

#### Euskaltzaindiaren sorrera

1918an, Gerra Handia amaitu eta geografia arras aldatu zen Europan. Lurralde handiak galdu zituen Alemaniak, eta, gerraren ondorioz, hiru inperio handi desagertu ziren: Austrohungariarra, Errusiakoa eta Otomandarrena. Europa hustu egin zen jendez.

Oñatin, ostera, Eusko Ikaskuntza izango zenaren lehen saioa antolatu zen. Bertan, idazleek, zientzialariek eta egunkari zein aldizkarietako zuzendariak hizkuntzaz hitz egin zuten, arrazaz, historiaz, arteaz, irakaskuntzaz... lehenbizikoz.

Askorentzat premiazko eginbeharra zen euskara aber-tzaletasunarekin identifikatzeko edozein susmo uxatzea. Hori dela eta, jardunaldien berotik, mugaren alde bietara zabalduko ziren bi erakunde sortu ziren: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia, euskara normaltasunaren bidean jarriko zuen hizkuntza akademia.

Hala ere, eta oraindik 1918an, eskoletan, ume euskaldunen mihiak mututzeko eratzun salatariak erabiltzen ziren.

#### Euskal prentsa mitoen bila

Euskal prentsak, alabaina, egundaino ez bezalako testuak ezagutu zituen. Iparraldean, soldaduak ziren kazetari, eta norberaren mamitan sufritutakotik idazten zuten. Iparraldeko irakurleak gerra kronika ikaragarriak irakurri ahal izan zituen Baionako *Euskaldunan*. Hegoaldean, Bilboko *Euzkadin* bere bulegotik idatziko zuen Kirikiñok, eta Batxik gerran zen esta-

turen bateko porturen batetik bidaliko zituen bere kronikak. Lekukotasunak indarra eta hurbiltasun krudela ematen zizkion kontaketai.

Ez zen, ordea, terminologia euskal irakurlearengan finkatu zen gauza bakarra. Gerratik heldutako istorio asko eta asko hain ziren sinesgaitzak, non, kazetarien kontakizunek garaileen inguruan mito berriak sortzeko balio izan zuten.

Euskal Herriak bere mitoa behar zuen. Eta Augustin Zubikaraik ere sortuko zuen berea.

### **Euskal kulturaren kimu berdeak**

1918an Kirikiñok *Abarrak* idazten du, herriak egunero egiten zuen euskaran; Augustinek, geroxeago, gustura irakurriko zuen liburuetariko bat. Eta 1920an, Augustinek sei urte besterik ez dituela, Txomin Agirre hiltzen da, Zubikaraik miretsi eta eredutzat hartuko zuen idazle nagusietakoa.

Toribio Alzagari, bestalde, Donostiako udaletik deitzen diote, antzerkia Donostiatik kanpo, probintziako herrietan ere sustatzeko. Teatro hiritarraren lehen urratsak izango dira.

Toribio Alzagak, hala ere, ez du nahi antzerkiak asmo abertzaleengatik bakarrik arrakasta izan dezan:

*“Es hora de que en las obras vascas no se fie al patriotismo del público el éxito de aquéllas, sino que se procure obtenerlo mediante el concurso de cuantos medios ofrece el arte para el mayor esplendor de las representaciones dramáticas”.*

Auzi hau, gerora, goren-gorenean biziko du Augustinek.

Urte goiztiar hauetan, euskal kultura bere kimuak emateko ahaleginetan ari delarik, bai liburugintzan, bai antzerkigintzan, ur hotzik ez da inguruetan faltako. 1920an, Pio Barojak “Divagaciones sobre la cultura” hitzaldia eman zuen Bilbon, uste baino eragin handiagoa izango zuena euskal gizartean eta letretan:

*“Yo creo que este comienzo de cultura vasca hay que intentarlo a base del castellano, no a base del vascuence. Esa tesis que ha sostenido don Julio Urquijo, afirmando la posibilidad de que el euskera sea lengua de civilización, me parece una fantasía de filólogo, pero no una realidad. Hay que aceptar el hecho consumado, y el hecho consumado es que nuestro idioma de cultura es el castellano, que poco a poco deja de ser castellano para ser español”.*

### **Augustinen bost habeak**

Txiki-txikitan jaso zituen, jada, Augustinek bere ibilbidearen, bizitzaren, egiteen eta sinismenaren oinarri izango ziren bost zutabeak: albistearekiko edo berrikuntzarekiko grina, ohi-turak ezagutu eta gordetzeko ahalegina, eliz betekizunetik gogoa, irakurzaletasun asegaitza eta itsasoarekiko lilura.

Augustinek zazpi urte zituen, adibidez, Ondarroan zinea sartu zenean. Berrikuntza paregabea, hain herri txiki batean, berak gertu-gertutik jarraituko zuena:

*“Antxoa gazituak egiteko lantegi bat gertu eben Ondarroa’n ortarako. Zinea asi bear zan egunean bertan, ezin amaituta ibili ziran arotzak, eta gu, ume koskorak, merkatu plazatik egurrezko jarrileko luzeak eroaten ibili giñan bertara. Komikiak ziran lenengo egunetan emon ziran pelikulak”.*

(Deia, 1983-III-04)

Ohi-turak ezagutu eta gordetzeko ahaleginean, ondotoxogoratzten zituen Augustinek ume begiekin gozatzten zituen jaiak eta, garaiko eliz girotik, bestalde, jaiok ezartzen zituzten betebeharrekoak:

*“Aratusteetan mamu janzteia izaten zan atseginena. (...) Garizumako igande arratsaldetan, bezperak amaitu ondoren, mutil txikiak dotrina eukiten gendun, aldara nausian, erriaren*



*aurrez-aurre, parrokoak pulpitorik itaun egiñaz. Barikuetako aragi usteak, zeatz beteten genduzan. Zabaldu be ez zan egiten, garizumako barikuetan arategirik”.*

(Karmel, 1986-1)

Ume-umetatik harritu zuen eta barne-muinetaraino sartu zitzaion aspektua, ordea, marinelaren bizitza, lana eta ohiturak izan ziren. Erakarri egiten zuen mundu horrek; arriskutsua iruditzeaz gain, errespetu handia zor zitzaion lanbidea eta bizibidea zela uste zuen Augustinek:

*“Txiki-txikitan ezagutu genduzan mariñelak, itxasotik etorrita Antigua’ra ortozik joaten, Antigua’ko Amari euren estutasunetan egindako eskintza edo promesak beteten”.*

(Karmel, 1989-1)

Bizitzaren garratza eta krudela batetik, eta abentura, bes-tetik, uztartzen zituen esparrua zen itsasgizonarena. Sufriarazi bai baina aldi berean plazer handiak eskaintzen zituen gunea. Izateko modu bat. Gertaerak eta kontakizunak biltzen zituena. Augustinek hurbiletik ezagutu arren, buruz eta bihotzez baizik dastatu ezin zezakeena. Amets egiteko eta literaturarako iturri agortezina.

### **Primo de Riveraren estatu-kolpea**

1922. urtea oparoa izan zen euskal letretarako: Euskaltzaindiak “Euskal Eguna” antolatu zuen; 1921ean sortua zen *Argia* astekariak orriz orriko lehen egutegia plazaratu zuen; Ixaka Lopez Mendizabalek *Xabiartxo* haurrentzako liburua argitaratu zuen; Toribio Altzagarekin antzerkirik ez zen faltako. Eta Primo de Riverak estatu-kolpea jo eta diktadura ezarri baino bi egun lehenago, euskaldunak, galiziarak eta katalanak bildurik, “Galeuzca” sortu zuten.

1923an, ordea, Primo de Rivera Espainiako diktadoreak, Alfonso erregearen aginduz, euskara ekintza ofizialetatik eta erregistroetatik baztertu zuen.

Atzerapauso neurrezina abiada hartzen hasiak ziren euskal letrentzat.

### **AUGUSTIN IDAZTEN HASTEN DA**

Augustin, hamar urte zituela, Saturrarango Seminarioan ikasten hasi zen. Apaiz izateko bidea hartu zuen bakarra izan zen etxean, ikasketetarako ahalmen handiena erakusten zuena zelako; Zubikarai Bedialauneta sendiak halako harrotasun puntu batekin bizi izan zuen Augustinen erabakia.

Garai honetan, bi zaletasun handi deskubrituko eta biziko zituen: liburuak eta itsasoa. Gerora bihurtuko zen idazlearen iturri agortezinak biak ala biak. Batak ezagutza eskainiko zion eta besteak inspirazioa.

Hamabost urte zituela, ordea, gaixotu egin zen eta Seminarioa utzi eta etxeratu egin behar izan zuen. Urtebete luzez egon zen gaixorik eta, denbora horretan, ikasketak etxetik jarraitzeko ahalegina egin zuen.

Gaixorik eman zuen urtea ez zen urte galdua izan, hala ere: Augustin gutziz irakurzaletu zen. Etxera heltzen ziren liburu guztiak irakurtzen zituen eta baita Seminarioatik bere lagun banaezina zen Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarretak banaka-banaka bidaliko zizkionak ere. Euskal idazleen artean, Azkue, Manterola, Orixe, Mujika, Kirikiño, Lardizabal, Zubimendi eta Txomin Agirre izan ziren bere lehen irakurketak, eta erdarazkoen artean, Cervantes, Gabriel y Galán, Villoslada, Lacordaire, Campion, Delli, Papini, Ardel, Douillet, Pierre Lhande eta Risco, besteak beste.



### Lehen artikulua *Jaungoiko-Zale* aldizkarian

Urtebeteko atsedenaldi hartan, Augustin barrutik janzten hasi eta pentsamenduaren eta ideien munduan murgildu zen. Askotariko irakurketek ideiak jasotzera bai baina bere pentsamendua agertzera ere bultzatu zuten eta, halaxe, hamabost urte baizik ez zituela, idazten hasi zen. Bere lehenengo artikulua *Jaungoiko-Zale* aldizkarian argitaratu zituen.

Gaixoaldian, berriz, apaiz izateko gogoia hoztu egin zitzaion. Mundu berri bat deskubritu izanaren sentsazioa zuen eta mundu hartan areago ikusiko zuen bere burua apaiz bizi-moduan baino. Filosofiarekin egin zuen topo, pentsamendua eraikitzen laguntzeko tresnarekin.

Gaixo hartatik guztiz suspertu gabe, Gasteizera joan zen, bada, bere ikasketekin jarraitzera. Eta halabeharrak aginduta, Gasteizen, berriro makalaldiak harrapatu. Oraingoan ere, ikasketak etxetik jarraitzeko asmoa hartu bai baina Mateo Mujikak, orduko Gotzainak, ez zuen begi onez ikusi ikasketak etxetik jarraitu ahal izatea eta utzi egin behar izan zuen.

Gasteizko urte hartako saiakera hura ere ez zen alferrikoa izan, ordea: hantxe ezagutu baitzuen Augustinek Aita Manuel Lekuona. Eta hurbiletik jarraitu ahal izango zituen, gerora, gerraosteko errepresioak eragindako Aita Manuel Lekuonarekiko bekaizkeria eta azpikeriak; Kardaberaz akademiaren sortzailea eta Euskaltzaindiko buru izango zen Aita Manuel Lekuona eta Gasteizko Seminarioa “separatistatzat” jo zituztenean, Augustinek ondotox jakin zuen Kardaberaz helburua euskara-gaiak sakontzea eta euskara zabaltzea zirela.

1930ean, 16 urte zituela, Augustin Zornotzarantz abiatu zen, Jaungoiko-Zale Bazkunak deituta. Jaungoiko-Zale Bazkunak *Jaungoiko-Zale* aldizkaria argitaratzen zuen eta garai hartan,

euskal gaien inguruan astekari bat plazaratu nahian zebiltzan. Bazutenez Augustinen ezagutza idazten zituen artikuluetatik, astekari berria antolatzeko deitu zioten. Augustinek erronka hura laster egin zuen bere, baina berriro gaixoaldiak harrapatu eta Ondarroara bueltatu behar izan zuen, tamalez.

Astekari honek, 1932an argitaratuko zenean, *Ekin* izena hartuko zuen.

### Augustinen idazle-txokoa

Gaztaroko urte goiztiar hauetan, Augustinek eguna irakurtzen ematen zuen: irakurtzen eta datuak jasotzen. Augustinen amak, arduratuta, behin baino gehiagotan galdetuko zuen ahots goran: “*Baiña noiz urten bear dau mutil onek kalera?*”. Augustin, bere gelan sartu eta bururik jaso gabe irakurri eta irakurri egoten zen. Ordurako, Augustinek bazeukan bere txokoa: Augustinen gunea. Etxekoek prestatu zuten espazioa, Augustinek bere gauzetarako erabiltzeko: idazle gaztearen idatz txokoa.

Garai hartan bakartia zen izaeraz Augustin. Lagunartea falta zitzaiola aitortu zuen. Zorrotzegia zen bere ametsetan. Estuegia, bere hitzetan. Ikasketak aldatu beharrak, hasita zituen abadegintzako ikasketak utzi beharrak estutu egin zuen, beretik atera. Adiskide on bat, zuzendari arduratsu bat falta izan zuen unerik garratzenetan, “*hemendik edo handik jo*” esan, lagundu eta barne bakea eta lasaitasuna eskainiko ziona.

Bakarrik hartu behar izan zituen erabakiak. Buruaren eta bihozkadaren artean gauzatzen direnak. Eta erabaki gogorak izan ziren, bere bizitzaren norabidea aldatzea suposatu zutelako.

Urteak alferrik galdu izanaren sentsazioak harrapatu zuen Augustin.

### Luistarren Bazkunako zuzendari

Zornotzatik bueltatu bezain pronto, Ondarroako Luistarren bazkunako zuzendari izendatu zuten Augustin. Luistarren bazkuna, bizitza erlijiosora batutako parrokiako gizonetzko taldea zen. Fede giroko talde honek “Gau gurtza” azpitaldea sortu eta hilean gau bat hartzen zuten “Santisimoa” gurtzeko. Augustinek ere gurtza gau hauetan parte hartzen zuen. Gauean zehar, txandak egiten zituzten eta, Augustini txanda egokitzen zitzaionean, idazteko probesten zuen.

Talde honek txangoak edo irteerak ere antolatzen zituen eta Augustinek bete-betean parte hartzen zuen guztietan. Baita herriko festa eta ekimenetan ere. Bidaietarako zaletasuna gurasoengandik jaso zuen, Augustinek ondotxo gogoratzen baitzuen bere gurasoek Lourdesera eta antzeko lekuetara txangoak egiten



Augustinen gurasoak eta osaba-izebak Lourdesen bidaietan.

zituztela, inguruetakako herriak eta hango ohiturak ezagutzeko asmoz:

*“Lanzia eta Saurer kamioi zarrei jarrilekuak ipinita, Ipar aldeko erri txikitxoak eta inguruak ikusi eta ezagutzen. Ba euken gure erri zarra begiz, biotzez eta gogoz ikusi, ezagutu eta maitatzeko garra”.*

(Deia, 1982-XI-24)

### Batzokiko antzerki taldean

Luistarren Bazkunan fedearen alde lan egiteko gogoia eta ahalmena erakutsi zituen Augustinek, eta baita abertzale fina izateko seinale argiak ere. Hori dela eta, Augustinen aitak, Salbadorrek, semea batzokira hurbildu zuen, bere helburua, euskara bultzatzea izango zela sinistuta. Hiru talde egin ziren orduan batzokian: emakumeena, dantza-taldea eta antzerkia. Eta Augustini, antzerki taldean laguntzea eskatu zioten.

1930. urtea, urte oso oparoa izan zen Augustinentzat eta baita kultur gintza ikuspegitik ere: ekainaren 1ean, Errenterian, Euskaltzaleak elkarteak “Lehen Olerti eguna” ospatu zuen eta, bertan, idazlerik ospetsuenek parte hartu zuten: Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Jakakortajarena, Loidi, Tapia... Augustinek ere gertutik jarraitu zuen txapelketa hartan Lauaxeta atera zen irabazle eta Orixe bigarren.

Olerti egun hura ospatzeko beren-beregi aukeratu zen Errenteria. Han sortua baitzen Luis Jauregi “Jautarkol” eta 1929an *Biozkadak* argitaratu emana baitzuen: euskal olerkigintza piztu zuen liburua. Poesia zen, Aitzolentzat, garai berrien iratzarle. Aitzolentzat, Euskal Herriak bazuen bere arima propioa eta poesiari zegokion hori modu estetiko batean agertzea. Literatura izan zitekeen iraultzailea.



Lan berri asko eman ziren argitara garai hartan eta euskararen inguruko ospakizunak ere nabarmen ugaritu ziren. Apurka bada ere, gizarte osoa lozorrotik esnatzen hasia zen.

Prentsan ere ematen hasiak ziren lehen urratsak: Euskal Oleriti egunera hurbildu ziren askok, egun horretan kaleratu zen egunkari berria zeramaten jakako poltsikoan: Jose Ariztimuño “Aitzol”ek *El Día* egunkari elebiduna ateratzea lortu zuen, EAJren organo ofiziosoa.

Lan handia zegoen egiteko, bai, Augustinek bezala, lanari oratzeko gogoia zuenarentzako.

## **KAZETARI GAZTEAREN LEHEN URRATSAK (1931-1933)**

### *EL DÍA* EGUNKARIKO KOLABORATZAILE

Espainiako II. Errepublikaren jaiotzarekin batera, autonomiaren aldeko mugimendua berpiztu zen Hego Euskal Herrian. “Lizarrako estatutua” deitu agiria onartu zen batetik, eta bestetik, irakaskuntzan euskara sartzeko lehen urratsak eman ziren.

Garaiko politika eta kulturako gertakizunen berri batzokian jasoko zuen Augustinek. Han biltzen ziren Ondarroako idazleak: “Artibai”, “Txori Erreka”, “Basa-txoritxu”, etab. Eta, haien artean, argi ikusi zuen bere bidea zein zen: bere herriaren eta euskararen alde lan egitea. Eta euskara bultzatzeko eta maite zuen herriari buruzko ideiak agerrarazteko modurik egokiena, jendearengan eragina izan zezaketen bitartekoak erabiltzea zen, hau da, egunkarietan idaztea.

Batzokiko “Underwood” idazmakinarengan inguruan biltzen ziren, bada, Ondarroako idazleak, eta euren txokotxoan idazten zituzten herrietako kronikak. Ondoren, idatzitakoa, gutun-azal batean sartu eta posta bidez erredakziora bidaltzeko.



Halaxe, 1931ko uztailaren 8an, Augustin *El Día* egunkarian idazten hasi zen, egunkaria sortu eta urtebetera. 16 urte besterik ez zituen. “Ondarru” edo “Ondarrutik” zen bere txokoaren izena eta “Zutarra” ezizenez sinatu zituen lehen urte hartako kronikak. Batzokiko giroak eta herriko idazleek bultzaturik baina bere ekimenez hasi zen *El Día*n idazten. Hala agertzen du, lehenengo artikuluan, Andres Arzelus “Luzear”-i (*El Día* egunkariak astean behin zekarren euskarazko orriaren arduradunari) eskaintzen dion agurrean:

“Agur “Luzear”. Euskal orri onetan toki txikitxo bat utziko didazula uste det. Oindiño gaztetxoa naiz; amasei urte baño ez ditut; bañan nire zañetan euskal odol beroa daramat. Artu egizu idazle gazte onen besarkada sutsu bat”.

(*El Día*, 1931-VII-08)

### Kroniken egitura eta ezaugarriak

Augustinek *El Día* egunkarirako idazten zituen kronikek bospasei atal izaten zituzten:

- Deiak edo agurrak: “Ondarruko idazleai”, “Ondarrutarrak!”, “Basa-txoritxuri”, “Luistarren zuzendariari”...
- Egitarauak edo programak: Lekeitiora, Ezkiora, Gernikara..., joateko deiak.
- Saski-naski: denetarik.
- Aginduak
- Eliz gaiak
- Jaiotzak, heriotzak, kanpokoak...

Augustinek, jada, bere lehen kroniketarik erakutsiko zituen bere kazetari senaren eta idazkeraren ezaugarri propioak:

- Oso probokatzailea zen: kroniken bidez dei egiten zuen; irakurlea xaxatzea eta mugiaraztea zen bere xedea:

“Beti lo gozoan egon bear al zerate? Elduko dira, bai, lo egiteko egunak, bañan aurrena agoliñan dagon gure ama Euskera gaxoaren alde lan egin dezagun”.

(*El Día*, 1931-VII-08)

- Deskribapenetan ere iaioa zen Augustin: jaiak non eta nolakoak izango ziren azalduko zuen, zergatik egiten ziren... eta ospatu ondoren, nolakoak izan ziren, aipagarrikeria gertatu ote zen...
- Herrira uda pasatzera etortzen zirenen berri ere ematen zekien, hau da, herriko kaleetan albiste ziren gaiak lantzen zituen, gai hauek jendeak gogokoak zituela ulertzen baitzuen Augustinek eta amu honekin irakurlekoa erakartzea baitzuen helburu.
- Inolako beldurrik gabe, Augustinek, hasiera-hasieratik kokatzen eta ezagutarazten du bere iritzia: adibidez, “ondarrutarraren irudia” zer den edo zer ez den zehazterakoan, edota abertzaletasunaren eta fedearen indarra bultzatzerakoan:

“Gure artean uda dala ta, gizaseme lotsagabe asko sartu dira. Gure oitura eder eta garbiak zapaltzera datoz onek. ;Ondarrutarrak, gure irakurgai, abesti, jolaz, dantza eta jantziak euskaldun usai gozoa zabaldu dezatela. Erakutzi beti euskaldunak gerala, eta euskaldun lez Jaungoikoa’reñ aurkako gauzarik ez degula nai!”.

(*El Día*, 1931-VII-08)

- Kronika hauek herriko ekintza asko koordinatzeko mezu ere baziren:

“Abertzale askok zabaldu dute euren eskua, gazte zintzo eta leial oni (Ugarritzan alde) laguntzeko. Orain arte 114 laurleko

*batu dire. Inork geiago nai badu ezer eman, abertzale onentzat Arriola'tar Bitor jaunaren dendan artuko diote".*

(El Día, 1931-VII-17)

- Baita herrian ekintza berriak sustatzeko ere. Kronika, nolabait esateko, herriaren bozgorailua zen.

Hala nola, herrira kanpotik sartutako "irakurgai txarrek, liburu zikiñek" gaztediaren gogoak epeldu eta sinismena hoztu egiten zutela-eta, Augustinek berak, Luistarren bazkunari, gazteentzako liburutegi bat jartzea eskatu zion:

*"Uste det asmo au beteaz, gazte eta guraso askon naia beteko dula, eta asmo au aurrera eramateko dirua ere batuko litzakela. Badakit gizon on batek liburu polit eta eder batzuek emango lituzkela gazteen liburutegirako".*

(El Día, 1931-VII-28)

Augustinek, kroniketan eta kroniken bidez abiarazitako egitasmoen bidez, hazteko gogo handia erakusten zuen, ardurak hartu eta bere herriaren eta euskararen alde lanean jardutekoa:

*"Bizarra urten barri giñan 1931 urtean. Eta egia esateko, nik be iñoiz, orduko siñisteei jarraituz, espan gaiñeak oillo kaka-gaz igortzi nitun, bizarra ariñago urteteke ona zala-ta. Españar laterrian (estatuan) errepublika sortu zan urtea zan. 17 urte neukazan. Igarri egiten zan errian zerbait gertatuko zala".*

(Deia, 1982-IV-14)

Eta bidea ibiliaz egingo zuen, hala kazetaritzan nola literaturgintzan. Hau, hasiera baino ez zen.

## LAUAXETA ETA EUZKADI

1931ko urriaz geroztik Lauaxeta kargutuko zen *Euzkadi* egunkarian Kirikiñok sortutako eta zuzendutako euskal atalez.

Lauaxetaren lan nagusietakoa herrietako berriemaileak eta idazleak bilatu, antolatu eta haiei gogo piztarazi eta idaztera bultzatzea izango zen. Mitin eta hitzaldietan ibili ohi zen idazle berrien bila.

Behin idazle berriak idaztera gonbidatu ondoren, euskal atalean zeukaten "Euskal idazliari" izeneko sail modukoaren bidez, Lauaxetak idazleekiko komunikazioa mantentzeko sistema asmatu zuen: zuzendaria idazleekin eta idazleak zuzendariarekin, elkarrekin komunikatzeko mintzatoki bilakatu zen. Zirikatzeke, gogo berotzeko, oharrak egiteko, artikulu bat zergatik ez zuen argitaratu edo zer dela eta berandu argitaratzen zen azaltzeko, edota baita ere, beren eguneroko lanean gidatzeko; azken finean, idazleen lanak ahalik eta egokien argitaratzeko eta idazleen arteko harremana suspertzeko sistema izango zen Lauaxetarena.

Idazleek, garai hartan, *Euzkadi* egunkarian borondatez idazten zuten eta Lea-Artibai inguruko sarea, besteak beste, Lekeitioko Eusebio Erkiaga "Endaitz", Mutrikuko J.M. Burgaña "Andoni", Gurutz-ondo, Arno-Mendi eta Ondarroako J.M. Ituarte "Artibai", Txori-etxea, Txori-erreka, Ibai-ondo eta Edurberok osatzen zuten.

Augustinek ez zuen luze iraungo talde honetako partaide izan gabe.

## EKINEN IDAZTEKO MANDATUA

1932ko otsailaren 6an sortu zen *Ekin*. Ordu arte Zornotzan agertzen zen *Jaungoiko-Zale* hilerokoa isildu eta, honen orde, asteroko berria plazaratu zen.

Garai hartan, Augustinek, Luistarren Bazkunaren bidez, hitzaldiak antolatzen zituen astelehenero; Errepublika sasoi bete-betean, herritarrak garaiko gertakizunen inguruan eta ideologia jakin bati atxikirik prestatzea zen haren helburua.



*Ekin* sortu bezain laster, garaiko kazetaritzaz, askatasunaz eta ikastolen auziaz hitzegiteko, *Ekin* astekariko saltzailea zen Alexander Badiola gonbidatu zuten hizlari Ondarroara. Eta hitzaldia bukatutakoan, Alexander Badiolak mandatu berria egin zion Augustini: Jaungoiko-Zale bazkunaren izenean, *Ekinen* idazten hasteko gonbita, hain zuzen.

Augustinek ez zuen ezetz esan, noski, eta 1932ko otsailaren 20an idazten du, lehenengo aldiz, *Ekinen*. Kronikak izango ziren haren lehenengo ekarpenak, eta artikulua gerokoak. “Gurutz” ezizena erabiliz hasi zen eta Ondarroako kronikak ez ezik, Mendexakoak ere idatziko zituen.

“*Ekinen* sortzea ezagutu neban, esango zuen Augustinek, bertan inardu nebalako lanean, nire lehenengo ogibidean. Giroa aldatu eta kristautasunari Euskalerrian eusteko, beste era baten plazara urten bearra egoala eta origaitik sortu zan *Ekin*”.

(Deia, 1982-II-06)

### ***Ekin*eko kroniken ezaugarriak**

Augustinek, *Ekinen* idatzitako kroniken bidez, herriko buletina osatzen zuen:

- Gizarte mailako kontuak jakinarazten zituen:

“*Durangotik etorri yaku gure artean bizitera, Iriarte Aba, Josulagun zintzoa. Ondarru izan dala bere amesa diñosku eta gure artean lan egiteko asmo sendoakaz datorrela*”.

(*Ekin*, 1932-II-07)

- Ironia eta umorea zituen ezaugarri nagusi:

“*Erriko abadeak ba dake naiku zeregiñ errian ilten dirazan atzotsuen ilgortziak (entierruak) egiten. Oingo egunetako aize otzak erriko atzo guztiakaz amaituko dabela dirudi. Gazte asko be*

*estu ta larri dabiltzaz aize oneikaz. Kontuz gazteak, jakiñ dodanez, “Cirila” neskazarra ei dabil lagun billa-ta*”.

(*Ekin*, 1932-II-07)

- Lehenengo pertsona singularrean jardungo zuen bere iritzia emateko:

“*Olako testamentuak ariñago izenpetuko neukez, dirudunak baño!*”.

(*Ekin*, 1932-IV-10)

- Lehenengo pertsona plurala erabiltzen zuen berak parte hartzen zuen ekintzen berri emateko:

“*Aurten be beste urtetan lez aundikiro ospatu dogu Aste gurena*”. Edo “*Berton gelditu gintzanok Antiguako Miren Nesku-tzaren txadonan eduki gendun E.A.B'tzak agindutako jaupa bat*”.

(*Ekin*, 1932-IV-03)

- Eta “Gu orokorra” erabiliko zuen herriaren izenean hitz egiteko:

“*Urtero lez ospatuko dogu ondarrutarrak Loyola'tar Iñaki Deunaren eguna*”.

(*Ekin*, 1932-VII-30)

- Kritikoa ere bazen eta atzera begiratu gabe salatzen zituen gaizki ikusten zituen kontuak:

“*Erestokiari txapela ipiñi eta dotore-dotore margotu dabe. Gazte geyenak pozik dagoz. Orain ez da egongo euriaren atxakirik eresirik ez joteko. Udalak euren najak bete dituzala esan geinke. Danenak bete ete dauz? Ez dot uzte. Ba dakizu irakurle zergaitik? Erestokiari “estilo japonés” edo olako antzeko txapel bat ipiñi dau-tse. Ondarrun barriz asko dagoz euzkal usainduna ipintea naiago*



*ebenak. Zergaitik ziñegotziak buruauste au artu ez, eurak aber-tzaleak izan da?”*

(Ekin, 1932-IV-16)

- Ondarrutar izaeraren irudia eginda zeukan Augustinek eta irudi hori bere idatzien bidez zabaltzen saiatu zen. Zorrotza eta estua zen eredu horretatik at gelditzen zirenekin; batez ere, erdaldunekin, alferrekin eta handinahi-koekin:

*“Laster ezkontzen da emengo neskatilla bat; etxe onekoa bera; Miren'en alabetakoa; jostuna eta gañera kaleaunditarra; bere senargaia euzkotarra ezta, euzkelduna bez; arrañen lagun da, baña ez da arrantzalea; sagarren laguna be bai da, baña ez da lurgina. Oindiño gehiago; bizilekutzat, Iñaki Deunaren kalean oraintsu egin daben etxe barri bat aukeratu dabe. Ulertu nai dabenak ulertuko dau”.*

(Ekin, 1932-V-07)

- Udal batzarrei buruzko berriak ere ematen zituen. Udaletxeko azken berriak Ixidor Etxeberria bere lagun handiak eramaten zizkion batzokira; Ixidor, garai hartan, zinegotzi baitzegoen udaletxean.

### **Errepublikara garaiko lorpen txikiak**

1932ko martxoan entzun zuen Augustinek, lehen aldiz, irratitik euskaraz hitz egiten: *“Egileor zen hizlaria eta barre asko egiten gendun bere eleakaz”* gogoratzen zuen Zubikaraik.

Deskubrimendua izan zen. Irrati bidezko hitzaren garrantzia eta eragiteko ahalmenaz konturatu eta beranduago kitatuko zuen zor baten antzeko ametsa errotuko zen idazle gaztearengan. Euskara euskal entzulei helarazteko erabiliko zuen tresna garrantzitsuenetakoa bilakatuko baitzen etorkizunean.

Urte bereko martxoaren 27an, lehenbiziko Aberri Eguna ospatu zen Bilbon. Augustinek, artean 18 urte betetzeko zituela, ospakizun arranditsu hartan parte hartu zuen. Alderdi Abertzalearen urre-ezteiak betetzen ziren eta Albia zuhaiztiaren aurreko Sabin-Etxea zabaldu zen.

Garai hauetarako, Augustinek, jada, bete-betea parte hartzen zuen alderdiak antolatutako hitzaldi, jai, irteera eta lanetan.

Urte honetan, baita ere, kronika batean Luistarren bazkunari zuzendutako eskabideari esker, Augustinek bere aspaldiko amets bat betetzen du: Ondarroan herriko liburutegia irekitzea. 658 libururekin zabaldu zen “Sorkunde Garbiaren idaztegia” izeneko herri liburutegia.

Augustinek bere etxeko liburutegiaren zati handi bat eramatu zuen herriko liburutegi berrira, etorkizunean sarriagotan egingo zuen bezala.

Bertan, liburuez gain, honako kazetak irakur zitezkeen: *El Debate*, *Gaceta del Norte*, *Euzkadi*, *El Día* eta *El Pueblo Vasco* egunkariak eta *Ekin* eta *Argia* asterokoak.

### **Ekineko artikulua: pentsaera baten berri**

Kronikak idazten hasi zenetik bost hilabetera, 1932ko uztailaren 16an, hain zuzen, Augustin *Ekine*n iritzi-artikulua idazten hasi zen.

Beste hauspo bat antzemango zitzaion jadanik Augustini. Artikulu hauetan bere pentsaera azaltzen hasten baita, argi eta garbi.

Lehen artikulua “Kristiñau-ikasbideko azterketak” goiburuz bataiatu zuen:

*“Ikusi ta ikasi, auxe egiten da Kristiñau-ikasbidetako azterketetan. (...) Lan ixilla, gizonak oartzen ez daben lana, baña*

*neketsua baizen lan onurakorra. Gizonak ez dabe onelako lanik ederresten. Gizonen txalo ta goradakak irabazteko lanak ez dira. Bai, baña, Jauna'ren onespena ta biotza irabazteko adiñonak. Gauza eder asko egin izan ditu "Jaungoiko Zale bazkuna"k, baña eder artean onena kristiñau-ikasbideari alako bultzakadea eragitea dala uste dogu. (...) Jai onek, iraun ba'dagie, iraun, emendik ogei urtera gaur baño be ospe gehiago izango dabelakoan gagoz. Zegaitik? Gaurko zarrak, zoritxarrez, ikasbidea aztuta daukie. Oraingo gazteak, barriz, batez bere burrukaldi oneitan izan diranak, ez dabe ikasbidea beingoan aztuko. Ta norbaitzuk aztuko ba'lebe be, gaztetxotan burrukaldi oneitan izan zirala gomutazoteak, eta urlia ta berendia txapeldun gelditu zirala gogoratzeak, biztaldiko urterik atsegintsuenak gogora ekarriko dausiez, ta ordukoak ala oraingoak geiago diran ikusi ta jakingureak, jai oneitara pozik erakarriko ditu. Uskurtz edo erlijiño gayetan, jakiñago ta jakingureago izan oi da: jakin ezago, ta jakin nayezero".*

(Ekin, 1932-VII-16)

Lehen artikulua honetan, jada, Augustinengan konstanteak izango ziren lau ideia azpimarratzen dira:

- Lehiaketan aldeko joera: Augustin lehiaketan aldeko agertu zen beti. Bere ustez, lehiaketak gogo pizgarri, xaxagarri baitziren.
- Jakin-mina eta aurrera egin nahia: jakintzak jakin-mina dakarrela zioen Augustinek eta jakin nahi ezak, gero eta jakin nahi ez handiagoa. Jakin-mina zen, hain zuzen ere, berak, Ondarroan sustatu nahi zuena. Horixe bere erronka handienetakoa.
- Lanari buruzko kontzeptua: Augustinen ustez, lana "gure eginbearra da". Ez lan horrek txaloak irabazaraziko zizkigulako, baizik eta Jainkoarengana heltzeko bidea zelako.

- Prestakuntzaren garrantziaz: behin eta berriz azpimarratuko zuen Augustinek gazteak prestatu behar zirela: "Gure etorkizunaren erro ta sustraia ortxe dago". Gazte-gaztetatik egingo zuen gazteen aldeko apustua, argi ikusten baitzuen zaharren maila mugatua zela eta gazte prestatuak zirela herriaren etorkizuna.

### **EUKADI ETA AUGUSTINEN PENTSAERA**

*Ekin* laster gaindituko du Augustinek.

Artikuluak idaztera emandako jauzia kontuan hartuta, eta Augustinen pentsamendua zabaltzera ematea zela xedea konbenzituta, Ondarroako idazleek *Euzkadin* idaztera bultzatzen dute. Halaxe, 1932ko abuztuan, Augustin *Euzkadin* idazten hasten da: "Likona" eta "Arteta" ezizenak erabiliko ditu.

Hasieran, kronikak idatziz hasiko da, *Ekinera* eta *Euzkadira*, bietara batera; baina behin *Euzkadira* artikulua bidaltzen hasten denean, nahiz eta kronikak 1934ko urtarrila arte idatziko dituen, bere ekarpen nagusia artikulua hauen mamian egongo da. Bere pentsamendua eta irakurlearengan eragin nahi duena, artikulua hauen bidez bideratuko baitu.

Lehenengo kronika idatzi bezain laster, ordea, Lauaxetak herri jakintzako gaiak batzea eskatzen dio Augustini:

*"Antziñako estropada-bertsoak bear doguz. Entzuten dan guztia ta dakizun dana bidaldu bear dogu. Arrantzaleak jakiten dabez abesti txukunak. Ea, ba, batuten doguzan".*

(Euzkadi, 1932-VIII-28)

Eta Augustini, bere bizitzako lan-arlo handi bat izango dena zabaltzen zaio. Lauaxetaren eskabide honekin hasten baita ume abestiak, emakume abestiak eta abar jasotzen, *Euzkadiko*



“Erri-Jakintza” atalerako. Hiru lan-esparru lantzen hasten da, bada, Augustin, *Euzkadin* idazten duen lehen kronikarako: kronikak, artikulua eta “erri-jakintza”.

1932ko irailaren 15ean, Lauaxetak, *Euzkadiko* artikulua baten bidez, agiraka egin zien Mendexako neskatilei. Eta idatzi honen harira, Augustinek, Mendexako kronikak berak idazten zituenek, honela idazten dio Lauaxetari:

*“Adizkide maite “Lauaxeta”: ni nor nazan esan barik be baidakixu, edo gitxienez be susmauko dozu erkaldarrak idatziko eztautsubena. Ni zeure adizkide bat naz, ba; eta lenengo idazkia orain didarketzudan au danezkero, berton idoroko dozuzan utsakaitik azketsi-egin bearko daustazu. (...) Lauaxeta’ren agirakeak eztote uste Mendaxa’ko neskatilla batzuk ondo entzun ebazanik. ¿Zer uste ete dabe neskatilla orreik? ¿Zozolistuen izkuntzea erabilliaz senargai obeak eta aberatsagoak billatuko dabezala? ¿Eztauke uste txarra! Senargai aberatsak oztantzian onak ba-dira eztira izaten txarrak, baña euzkerea, Euzkadi’ren maitasunarren erabilten danean, erderarik aberatsena baño ohea izaten da. ¿Senargaia errazago billatzearren erdereak erabilten dabela? Eztaudazube amets txarra erdera barik erdi-utsik ba-zabiltza, erdereagaz oso-utsik ibilli bearko dozube-ta. Benetan abertzaletu ta euzkotartuten etzarien artean beintzat, Mendaxa’ko mutillakin ibilerik eztozube izango. Beraz, neskatillak, zeuek kontuak atara; neskaraz ala ezkonduetea gura dozuben ondo oldoztu. Erdeltzale zariela, bai-dakixube, ba, zetarako bearko zarien. Santuak, doneak jazteko... eta ori dantza nasturik egiten ezpa-dozube”-*

(*Euzkadi*, 1932-09-15)

Kronika honetan, bere hutsengatik kezkatuta, Lauaxetari orrazi estua ez pasatzeko erregutzen dio Augustinek. Bazekien

Lauaxetaren mailako idazle izateko, oraindik, asko ikasi beharra zeukala. Baina ez da kokiltzen.

Erredakziotik erantzuten diote, esanez, Lauaxeta udaldia igarotzera joana dela eta lasai egoteko, erredakzioan zuzenduko dizkiotela akatsak; idazten jarraitzera animatzen dute. Imanol Enbeitaren hitzek lasaitu eta indartu egin zuten Augustin.

Artean ez zuen Augustinek Lauaxetarekin zuzenean harremanetan jartzeko modurik izan, baina parada hura luze gabe sortuko zen.

### *Euzkadin* idatzitako artikuluen gaiak

Augustinen pentsamenduaren oinarriak, *Euzkadin* jakitera emango zituenak eta bere bizitzan zehar konstanteak izango direnak, lau dira: euskara, aberria (Jaun-Goikoa eta Lagi-Zarra), erlijioa eta tradizioa eta betebeharrak.

Euskara: Augustinek ez zuen euskararik gabeko “Euzkadi-rik” irudikatzen. Garai hartako abertzale alderdien ikuspuntu ofiziala zera zen: lehenengo, “euzko” herria (euskaldunak eta erdaldunak) bizkortu, “euzkozaletu” eta abertzaletu behar zirela eta behin abertzaletu eta gero, berez euskaltzaletuko zirela. Abertzaletasuna sustatuz gero, euskaltzaletasuna bermatuko zela, alegia. EAJko abertzaleen kontzientzia politikoa lehenesten zuten. Abertzale eta euskaltzale askoren ikuspuntua, bestelakoa zen, ordea.

Auzi honek bere erroak 30 urte lehenago sustraituak zituen: Azkuek euskara lehenetsi zuenean eta Sabino Aranak, ostera, abertzaletasuna.

Augustinek, bereizketa honetan sartu gabe, euskararen aldeko hautu praktikoa egin zuen, hau da, bakoitzak, bere inguruan, bere neurrian euskara bultzatu behar zuela azpimarratuz:

*“¿Zer da Euzkadi euzkera eta euzkotasun barik? (...) Askok uste dabe Euzkadi lenengoz azkatu egin bear dala, ta azkatasunagaz batera euzkotasuna jaritxi. Ez dago txarto. Euzkadi 'ren azkatasuna nire eskuetan ba'lego, gaur bertan betorke, baña españarreri geure azkatasuna kendu, edo azkatasun ori geuk artu bitartean, ¿zergaitik ez euzkotasuna geure errian irarten, orañ arte baño sutsuago alegindu?”*

(Euzkadi, 1932-XII-17)

Eta, ideia honi jarraiki, Augustinek, bere esku zegoen guztia bultzatzea izango zuen helburu. Euskara bultzatzeko eta bistartzeko detaile guztiak hartuko zituen kontuan:

*“¿Zenbat euzkel-izen ikusten dogu ume, salostetxe, itxasontzietan?”*

*¿Zenbat euzkel-ingi, iragarki ta abar?”*

*Eta izenetatik at, ¿zenbat ume ta zar ikusi daroaguz euzkeraz jolastuten?”*

*Ezta naikoa Alderdiak, erderaz esaten dan lez oficialmente, euzkerea gurea agertu ta ontzaz lan egitea: ¿zer atarako dogu ortik alderdiko geyenak euzkotasunean arduratzen ezpagara?”*

(Euzkadi, 1932-XII-17)

Aberria: Augustin Sabino Aranaren jarraitzaile sutsu agertzen da bere idazkietan. Bai haren ideia eta doktrinaganako, bai haren giza izaerarenganako ere. Eredu bat izan zen Sabino Arana Augustinentzat.

Aberriaren gainean idazten dituen artikuluetan oso zuzena eta gogorra da, eta ez ditu bere sentimenduak gerizpean uzten:

*“Il naiago dot/ ikusi baño/ Aberriaren/ amaia!. (...). Bera lez erailduko gaitube bear bada, baña euzkotarrok, gu ezpa-gara bere, geure semeak azkatasun axeak arnastuko dabez. Aberri maitasuna*

*berezkorra ba-da ta berezkorrenen gañetik agintaririk eta gitxiago aberri-gogo erallerik ezin liteke egon”.*

(Euzkadi, 1932-II-25)

Augustinen ustetan, abertzaleak barruan darama aberriarekiko gogoia, berezkoa da. Eta nork bere eginbeharra bete behar du, “gauza guztien gainetik”. Bakoitzak bere lana, bakoitzak bere zuloa du. Eta Augustinek, badaki berea zein den.

Jaun-Goikoa eta Lagi-Zarra: Augustinentzako Jaungoikoa eta Aberria bat dira; izateko modua edo jokaera eta sentimendua, hari beraren muturrak:

*“Urtzi 'k gizonari emon dautzon emoitzik eder ta goralgarrijena maitasuna da. (...) Sabin 'ek ondo ulertu eban Jainko maitasunagan daukon garrantzia ta berak sorturiko alderdiari maitasun bitu oneik irarri eutsozan Jaun-Goikoa ta Lagi-Zarra ikurritzpean ipiñiaz. Siñismen barik, Jainko maitasun barik, abertzaletasunik ezin ulertu leike. Siñismen barik eztago abertzaletasunik, Jaun-Goikoa ukatuten dabenak sendi ta aberria bere ukatuten dabezalako”.*

(Euzkadi, 1932-XII-25)

Betebeharra: Augustinek, bizitzarekiko, oro har, eta batez ere aberriarekiko, eginbehar edo betebehar jakin bat daukagula sinisten zuen. Ideia hori behin eta berriro azalduko du bere idazkietan. Bere bizitza osoan, hala maila pertsonalean, nola bere herriari eta bere hizkuntzari zor dion konpromisoaren aurrean, ideia horren inguruan edo ideia horri jarraiki lan egingo du. Betebeharrak bultzatuko du lan bat edo bestea egitera. Betebeharrak eramango du, egiteko dagoen eta ikusten dituen hutsune guztiak betetzera. Gaztetandik hasita, bere esku dagoena egingo



du Augustinek: bai aberriaren alde, bai euskararen alde. Eginbeharra edo betekizuna izan da bere bizitzaren motorra:

*“Gizona ez bakarrik gurasoentzako baita bere aberriarentzako sortua izan da, iñoan Demostenes jakintsu ospetxuak. Esan naye, gizon batek bere gurasoekaz dauzan aña egin-bear daukosalala aberriagaz bere. Ipar Ameriketa’ko gudari itzal eta errime baten irakurri dot, notin bat bere gurasoekaz baño egin-bear astun eta sakonagoakaz lotzen dala bere aberriagaz; ba seme bat, darrai, ezta gurasoekaitik bere odola emotera beartzen, baña aberriaren estu orduetan odol ori askeneko tantaraño ixuri bearko dan bera aldeztutearren, aberkidien artean aberri-eralle ta atzipetea lez aurkeztu nai ezpa-dau. (...) Argiro atzaldueban jakintsuak ziño-pean odola igalitsua zala... ta auxe berberau autortzen dausku gaur Irlanda’k bere azkatasuna agertuaz. India alderuntz begirakune bat jaurti ezketiko, aintzalbeneztantzia aurkituko dogu Gandhi’ren izena; abertzale jazankor onek, ondo baño obeto ezagutu dauzalako aberriaganako doguzan eginbearrak, ainbat bidar aberriari bere bizitza opalduaz, arrotzen naiak bete baño len. Euzkadi’n berton, Sukarrieta’ra begiratzen ba’dogu, obitegi bat ikusiko dogu, ta obitegi aretan, gurutzta deunaren gentza, ta magalpean etzanda, Euzkadi’ren azkatzallea, euzkoen aita, aberri-maitasunarren España’k erailldua... (...) Maitasuna jazarpena bai-da”.*

(Euzkadi, 1932-X-15)

Ideiak azaltzeko argitasun eta sendotasun hau irakurketetatik zetorkion Augustini. Asko irakurtzen zuen. Euskal idazleak zein kanpokoak. Egunkariak, literatura, politika zein filosofia. Euskaraz zein erdaraz.

Begiak, oster, kanpoko ideiak jasotzetik eta kanpoko errealitateak ezagutzetik irekitzen zirela konturatuta, 1932an

itzulpenak egiten hasi zen. Augustinentzat, ikasteko iturri izango zen itzulpengintza; ikasteko bai edukiak, bai hizkuntzaren forma.

Itzulpenak, bi bertute zituen: kanpoko berriak eta jakintza norbereganatzea batetik, eta bestetik, itzultzaileak jadesitako jakintza irakurleari eskaintzeko aukera. Ezagutza eta transmisioa.

Augustinek itzuli zuen lehenengotariko olerkaria Nuñez de Arce izan zen. Itzulpengintzan emango zuen lehen urratsa baino ez.

#### LAUAXETA: MAISU IZAN GABEKO AURREKARIA

Lauaxetak 1932ko abuztuan egindako eskabideari erantzun nahian, Augustinek Mendexako basetxe guztien izenak bidali zizkion. Ez ziren argitaratu, ordea, eta Augustin ez zen isilik gelditu.

Augustin zuzena eta zorrotza zen. Lehenengo, bere buruarakin eta, gero, besteekin. Ez zen isiltzekoa, ez eta gaizki eginak ez ikusiarena eginda pasatzen uztekoa ere. Sekula ez zuen errespeturik galduko, baina ezta ere bere egiak defendatu gabe utziko. Horrela bada, honela idatzi zion Lauaxetari:

*“Orain dala illabete idatzi neban baña eztot irakurri (...). Eztakit zer jazo dan, dakidana da eztodala irakurri EUZKADI izparringian. Baña “Lauaxeta”, ez uste izan orregaitik asarratuta nagonik”.*

(Euzkadi, 1932-II-03)

Idatzi honek, Augustini, Lauaxetaren konfiantza eta hurbiltasuna irabazteko aukera eman zion. Eta Lauaxetak, konfiantza honen erakusgarri, Mendexako frontoian pilota-partida jokatzeraz gonbidatu zuen Augustin.

1932ko azaroan, Ondarroako batzokiak Lauaxeta hitzaldi bat ematera gonbidatu zuen eta Augustinek, berriz ere, Lauaxetarekin egoteko aukera izan zuen. Handik aurrera, Lauaxetaren eta Augustinen arteko harremana sakona izan zen; eta, gero eta maizago errepikatuko ziren pilota-partidei esker, gainontzeko idazleen arteko egin zen Augustin.

### Konfiantza itsua

1932-1933ko urteetan Lauaxeta sarritan zuzendu zitzaion Augustini, idazten jarraitzeko eskatuz eta ez etsitzeko erregutuz. Idazleek, garai hartan, beren lanak postaz bidaltzen zituztenez, idatzi guztiak ez ziren erredakziora heltzen. Ailegatzen ez zirenak, bada, ezin argitaratu. Hori dela eta, Lauaxetak Augustini, lanen bat argitaratu ez izanagatik atzera ez egiteko eskatzen zion.

Lauaxetak bazekien, ordurako, Augustinek ez ziola kroniketan huts egingo; artikulugile bezala, *Euzkadiri* interesatzen zitzaion ikuspegia emango zuen luma zeukala Augustinengan; eta sortzaile bezala, bere kimuak emango zituen idazlea.

Pixkana-pixkana, Augustin eta Lauaxeta hainbat bileratan bat egiteko gelditzen hasi ziren: zela egunkariaren eta kazetari-tzaren ingurukoetan, zela euskara eta literaturaren gainekoetan.

Hala ere, Augustinek okerrak zuzentzen jarraitu zuen eta 1933ko abuztuan, honela idazten dio Lauaxetari:

*“Ez asarratu, baña EUZKADI’ko zuzendariaren baimenaz oker bat zuzendu bear dot. Izparringi onetan irakurri neban len-goan “en el término de Mendexa, de Lekeitio, apareció flotando en la costa el cadáver de un hombre”. Baita be geiago iñoan, baña orrek eztausku ardurarik. Bakarrik esan gura dogu “en el término de Mendexa, de Lekeitio” eztagola ondo. Erri txikia izan arren, geure erri onek eztauko zer ikusirik Lekeitio’gaz. Lekeitio’ko auzo*

*bat baño eztala geure erria dirudi. Lekeitio baño apurtxo bat zarragoa dogu Mendexa. Bakotxari berea”.*

*(Euzkadi, 1933-VIII-13).*

Oker zuzentze hau ez zen hutsala izan; ez burugogorke-riak eragindako huskeria baten gaineko gotorkeria. Egunkari-rako idazten ari ziren idazle-kazetariak beren herriei buruz zein ezagutza kaxkarra zeukaten konturatzen da Augustin. Herriari buruzko zein jakintza urria arnasten zen inguruan, oro har. Eta bere barrenean, erabaki irmo bat hartu zuen: bere inguruari eta, batez ere, bere eskualdeari buruzko argibideak emango zituzten lanak prestatuko zituen.

Lauaxetak zoriondu egin zuen oker hau zuzentzeagatik eta zuzenketaren azpian erakutsi zuen gogoagatik.

Ikasle saiatuak pausoak bizkor ematen zituela ikusi ahal izan zuen Lauaxeta irakasleak.

### Lauaxetaren eskola

Lauaxetak, euskal idazleen antolaketa bultzatu nahirik, *Euzkadiren* euskal ataleko idazleekin Kirikiño zenaren omenaldi prestatu zuen. *Euzkadi* eta *El Día*ko idazleek 1933, 1934 eta 1935eko urteetan errepikatuko zuten omenaldi eta topaketa hau: meza entzun, idazleen arteko bilera egin, bazkaldu eta mus txapelketa edo pilota partida batekin bukatuz. Bilera horietan hasi zen Lauaxeta *Euzkadiren* euskal atalaren bidez bultzatu beharreko beste alor batzuk jorratzen. Hala nola, haur eta gazteen idatz zaletasuna indartzeko ikasleen arteko idatz sariketarako antolatzen, epaimahaiak osatzen eta literatur lanen argitalpenak sustatzen.

Garaiko olerkariak ere oso uste ona zuten Lauaxetaz, batez ere, euskara jaso bultzatzen zuelako. Lauaxetak, Kirikiñoaren aldean, bi aldaketa nabarmen ekarri zituen: idazleei arreta handiago eskaintzea, eta sabindar eskolaren idazkera nagusitzea.



Arrazoi horiek bide, Lauaxeta aurrekari eta eskola bikaina izan zen Augustinentzat: bai idazle bezala, bai bultzatzaile gisa. Euskara nola sustatu eta gogoia nola piztarazi irakatsiko zion; gerora, Augustinek, bere herrian, bide bera jarraituko zuelarik. Bere gain hartuko zuen idazle gazte eta berriak bultzatzea, sariketak antolatzea, egunkariak sortzea, argitalpenak sustatzea... Eta honetarako guztirako, Lauaxeta izan zuen, maisu izan gabeko aurrekari.

Idazle bezala ere, Augustinen lehen literatur lanak Lauaxetak bideratuko zituen. 1934ko maiatzean, *Euzkadin* poemak idatziz hasiko zen eta urte bereko abuztuan, antzerkia atalka argitaratzen.

Augustinen lanekin batera, Lauaxetak Eusebio Erkiaga eta Bernardo M<sup>a</sup> Garroren antzezlanak argitaratuko zituen, atalka, haiek ere, *Euzkadin*.

Lauaxetari esker, Augustinek kazetari izaten ikasi zuen; bere sormen literarioari leihoak zabaldu zizkion; herri-jakintza bultzatzeko ideiak eta bideak ezagutu zituen; atsotitzak, esaera zaharrak, kantuak etab. jasotzeko kanpainak nola sustatzen ziren ikusi zuen; eta idazlanak argitaratzeko trikimailu anitzen jabe egin zen.

## GERRA AURREKO ANTZERKIGINTZA ETA ARTIKULUAK (1933-1935)

### ANTZERKIA PRESTATZEN

1933an hasi zen Augustin batzokian antzerkiak prestatzen.

Euskal Herrian bazegoen, ordurako, hainbat antzerki konpainiak sortutako sarea eta, Ondarroan, "Bide Onera" zinema-aretoa eskaintzen ziren antzezlanak: ostiral eta igandez, ia astero.

Augustinen lana, beraz, jada sortuta zegoen sare eta joera hura aprobeztatuz, Ondarroan ere antzerkia prestatu eta emankizunak eskaintzea izan zen, hau da, antzerki emankizunak eskainiko zituen foko propioa sortzea. Eta gune hura batzokia izango zen.

Bere antzezlan propioak idazten hasita bazegoen ere, lehenengo urteetan batzokian prestatuko zituen obrak ez ziren bereak izango, aurretik idatzitakoak baizik: *Ametz gozoak, Maitasun ta Gorroto, Itziartxo, Joxepa eta Inñasi, Patxiko eta Martin-txo, Negarrez igaro zan atsua...*

Augustinek, batzokian, zuzendari-lana egingo zuen: obrak aukeratu, protagonistak nortzuk izango ziren erabaki, paperak banatu, gidoiak ikasten irakatsi, musika aukeratu eta elementu guztiak eszenan jarri.

Antzerkiaren helburua euskara bultzatzea, herritarrak mugiaraztea eta abertzaletasuna zabaltzea zen. Aberria egitea,

alegia. Augustinen esanetan, hitzaldien helburua “*gogoia bero edukitzea eta prestakuntza*” bazen, antzerkiarena, “*gogoia bero edukitzea eta euskara bultzatzea*”.

Antzerkia ulertzeko bi modu zeuden, nagusiki, orduan: batzuek, antzerkiari, ondo pasaraztea eskatzen zioten, herritarrentzako ebasio-gune izatea. Besteek, ordea, asmo lirikoagoa oinarri, modernitatearekin lotu nahi zuten.

Lauaxeta eta Augustin, bigarren pentsaera honetakoak ziren.

Eta antzerkiaren inguruan lan egiten hasita, Augustinek, batzokiaren bidez euskara bultzatzeko beste hainbat ekimen prestatzeko profitatu zuen: idatz lehiaketak, umeentzako olerkiak, elkarrizketak, abeslarien arteko sariketak... eta irizpideak jartzen zituen baita ere:

*“Abeslarien sariketako abestalde bakotxa sei lagunekoa izan bear da, ta mutillak lez neskatillak be taldea egin leikie abestutzeko, eurak nai ba’ dabe beintzat. Abestuko diran abesti guztiak, euzko abestiak izan bear ko dira”.*

(Ekin, 1933-I-07)

30eko hamarkadan antzerkiak indar handia hartu zuen Euskal Herrian: antzezlanak taularatu, *Antzerti* aldizkaria agertu, eta 1934tik aurrera, “Antzerti Eguna” ospatzen hasi, besteak beste.

## AUGUSTIN GUDARI

1933ko otsailean, errepublika garai bete-betean, ordu arteko udala kendu eta “aldiko agintza” jarri zuten Ondarroan. Udal pregoia, lehen aldiz, lehenengo erdaraz eta gero euskaraz eman zuten herrian, eta Augustinek idatziz agertu zuen bere

haserrea: Ondarroan inork ere ez zekiela erdaraz eta erdararen alferrikako erabilera hura salatuz.

Urte bereko apirilean, kartzela jarri zuten Ondarroan. Eta, data gogoangarri hartatik aurrera, Irrintzi Mendigoizale taldeko kide zenbaiten, abertzaletasuna bezalako ideologia urbanoa mundura zabaltzen arituko ziren gazteen, kartzelaratzeko ezagutuko zuten herrian.

Gogortuz zihoan giro hartan, defentsa gisa, Augustinek ere bere ekimena bizkortu eta, batzokiaren bidez, hainbat proposamen eta ekinbide berri jarriko zituen abian: batzokiko bazkideak euren seme-alabei euskal izenak jartzera behartuta zeudela argitara eman zuen, edota batzokian abesbatza sortzeko deia egin, Gabonetan Bilbon antolatuko zen abesbatzen sariketan parte hartu ahal izateko...

Augustinen nahia eta lana, memento hartan, euskal giroko edozer ekimen bultzatzea zen: euskal musika, euskal dantza, euskal izenak...

Garaiko ustea zen, idazleak abertzaletasunaren oinarri zirela: “*Euzkel-idazliai etxake eskerrik emon oindiño, baña gaurko abertzaletasunaren gurasorik onenak eurak dira. Urterortero zenbat azi erein ez ete dabe? (...). Aberrijaren gudari punterenguak doguz*” aipatuko zuen Lauaxetak 1933ko uztailan.

Idea hau funtsezkoa izan zen Augustinengan: idazlea izatea abertzale izatea zela sinistea eta sentitzea. Augustinentzat, lehenengo, euskaltzaletasuna zegoen, eta euskararen alde lan egitea zen abertzalearen egiteko nagusia. Orduan, idazle izatea “gudari” izatea zen eta Augustin, “Ibai-ondo” eta “Kresala” ezizenak erabiltzen zituen garai honetan, gudaria zen.



## KEZKAK ETA IDATZI BERRIEN OINARRIAK

Gai sozialek asko kezkatzen zuten Augustin: langabezia, arrantzaleen lan-baldintzak, pobrezia, etab. Garaia halakoa zen eta inguruan arnasten zituen gai eta beharreganako sentiberatasun handia erakutsi zuen. Augustinek ondo baino hobeto ezagutzen zituen Ondarroako kaleak, ondo baino hobeto neuritzen zituen ondarrutarren sentitzeko eta mugitzeko erak. Inork baino hobeto ulertzen zituen bere herriaren eta herritarren beharrak. Bere egitekoa, beraz, egoeraren berri eman eta herritarrak prestatzeko aldaketak bultzatzea zen. Aldaketa, batez ere, ideologikoak.

1933an, hiru gai berri hasiko da lantzen bere artikuluetan: lehenengoa, “langilea” izango da. Augustinen ustez, langilea zen Euskadiren oinarri sendoenetarikoa eta, beraz, langileak prestatu egin behar ziren. Sozialistak indarra hartzen ari ziren aldi hartan, langileak abertzaletu beharra zegoela adieraziko zuen:

“Euzko-idazle asko jayo dira gure egunetan. “Ezta ilgo euzkerea” esan geinke, idazle bikañon lanak ikusirik. Eurok landu ta apaindutako Euzkerea, geiago ezta izango lotsatua. Geure Aberri ta Euzkerea’ren pizkunde ta garaia alkaturik yatorriguz. Mueta askotarikoak dira benetan idazle orrein idaz-lanak. Guztietzaz idatzi dabe. Elerti, jakintza Gizartiztietzaz. Lan irakurgarriak argitaldu dira. Egizko pizkundea da gure euzkerea’rena. Akats bat idoroten dot, baña. Utzune andi bat dakust. Euzko-eletariak geiago ta ugeriakoak dira euzko-gizartizlariak baño. Geiago idatzi da benetan, ikastolarako ta irakaslientzat, lantegietarako ta langillientzat baño. (...) Ta “Analfabetoak” eztira euzko-langilleak. (...) Jakituna ezta langillea, baña; elerti-gayen zalea be ez. Gozez ibilli da; lan billa dabil; usaba zikotzaren arpegian aurkitzen da; bere gogoa illun dago; zuzentasunaren egarria dauko

biotzan. ¿Zeretzaz idatziko dautsogu tayu onetako gizonari? (..) Euzko-langilleari euzkeraz idaztea bear-bearrekoa dogu, ba. (...) ¿Zer egingo dogu geuk? Euzko-idazle ta izlariak: euzko-bizitza pozgarriagoa da Euzkadi’ren azkatasuna baño; geure gogoaren jabe izatea garrantzitzuagoa da, geure buruaren jabe izatea baño. Langillea, arrantzalea ta lugiña geureak ezpadira, ¿zetarako doguz azkatasun ta jabetasuna? Euzkadi ta euzkerea’ren semerik maitienak dira langilleak. Euren naiak ta miñak: euren bear-izanak ta euren asmoak euzkeraz iragartea baño ¿zer goragarriagorik? Euren arerioak nortzuk diran; zeintzuk bide diran eurenak; non ta zelan jaritxiko daben zoruntasuna... onexek izango dira nire azalpenak. Onexetzaz idazteko asmoa dogu”.

(Euzkadi- 1933-III-22)

1933an, baita ere, ELA sindikatu kristau-abertzalea sortu zen eta Augustinek, langileei, sindikatu horretan izena emateko eskatzen die:

“Euzko-langille zintzo zintzoa: dirutzarren maltzurkeriagandik azke-izan gura ba’dozu, batzartu zadiz, arren. Zeure ta zeure sendiaren eskubide zuzenak jagon gura ba’dozuz, zeure arlokoakin bazkidetu zadiz. Zeure arlokoakin, bakarrik, zeure azkatzaillea, zeu bakarrik zaralako. Indarra da batasuna. Maitasuna da kidiaren alkartasuna. Euzkotarrentzat, baña, alkartasun bakarra baño eztago. (...) Gure Batzarrik gurien Euzko-Alkartasuna da. ¿Apurtu guradozu dirutzalekeria? Euzko-Alkartasunaren bidez jadetziko dozu”.

(Euzkadi, 1933-V-17)

Eta urte honetan hasten da, orobat, gerora, Augustinen bizitzan benetako gudu edo gudu amaigabea suposatuko zuen bigarren gaia defendatzen: “bizkaieraren aldeko hautua”.

Ondarroako emakume talde bat, garai berean, umeei abestiak eta jolasak irakasten hasi zen. Zerabilten hizkuntza euskara zen eta, Augustinek, ekimena txalotu arren, hizkuntzaren erabilaren gaineko iritzia eman eta eskabide argia egin zien: umeei, arren, beren hizkuntzan irakastearena, hau da, bizkaieraz. Eskaera hauxe izango zen bizkaieraren alde egingo zuen lehena; ez horratik, azkena.

*“Esker ta txaluekaz batera baña eskari bat zuzendu bear dautsogu. Irakasten dabezan jolas eta abestien izkiak gipuzkeraz dagoz. Zegaitik ez bizkayeraz? Umieri eurak dagien izkelgean erakutsi bear yake ta ez auzoarenean, aulan ongarri eztan iskelge nastea sortuko litzakigulako urian. Augaitik ba arren deskatsegu irakasle guztiei umiei geure erara, au da: bizkayeraz erakusten asi daitezala. Akatsau zuzenduteko ontxe da erarik onena; gero eziña litzake”.*

(Euzkadi, 1933-III-24)

Eta hirugarrenik, Augustinek, hemen eta geroago ere, hizkuntza motaren erabilera defendatzerakoan, “hartzailea” hartuko zuen kontuan: Augustinek bereizi egiten zuen herri xehearentzat edo jakitunentzat idazten ote zen. *Ekinen* eta *Euzkadiren* irakurleak, harentzat, ez ziren maila berekoak. Azalago idatziko zuen *Ekinen* eta sakonago *Euzkadin*.

Gauza bera izango ez zen bezala, egunkarrietan erabili beharreko hizkuntza edota literatur lanetan agertzekoa. Jokin Zaitetik itzulitako Soflokes-en *Antigone* irakurtzen duenean, lana txalotzeaz gain, itzulpengintzari buruzko bi ideia emango ditu Augustinek: bata, itzulpena ez dela hitzez hitz idaztea baizik eta zentzua dela itzuli beharrekoa; itzulpengintzaren oinarria, benetan, joskera dela. Hain zuzen ere, bere idazkeraren oinarri eta berezitasun nagusia izango dena. Eta bestea, argi eta garbi

bereiztu behar dela herri xehearentzat edo jakitunentzat idazten ote den. *Antigone*, zalantzarik gabe, jakitunentzat idatzitakoen artean kokatuko zuen Augustinek.

## AUGUSTIN ZUBIKARAI, EUSKAL IDAZLEEN ARTEAN BAT GEHIAGO

1934ko maiatzean argitaratu zuen Augustinek “Edurne” bere lehen olerkia *Euzkadin*, “Amesti” ezizenpean. Ordurako emanak eta agertuak zituen bere pentsamendua, euskal garra eta idazkerari buruzko hainbat iritzi, bai egunkarrietako artikuluen bidez, bai idazleen arteko topaketa eta bilerei esker. Bizkaian, garaiko erreferentzietako bat zen jada.

Batek baino gehiagok begia jarria zuen Augustinengan; Augustinen senideak ere politikagintzan arituak ziren: Augustinen osaba Perdiñanda Zubikarai, Bizkaiko Aldundiko Ahaldua izan zen eta, Peli Zubikarai, Bizkaiko Aldundiko idazkaritzan lanean aritua lehenengo eta josulagun gero. Bere zaletasun, indar eta konbikzioengatik batetik, eta familiaz ere Zubikaraitarrek aurrekariak zituztelako, etorkizun handiko gaztetzat zuten herrian eta baita probintzian ere.

Garaiko idazleek Augustin aintzakotzat hartua zuten eta, edozein zalantza edo eztabaidaren aurrean, Augustinen iritzia eskatuko zuten. 1934ko maiatzean, adibidez, karlistek Txomin Agirrerri omenaldia prestatu zioten Ondarroan. Hautsak ikaragarri harrotu ziren: nola onar zitekeen karlistek Txomin Agirre bezalako idazle eta euskaltzale bati omenaldia egitea?

Argi ikusten zuen Augustinek karlisten asmoa zein zen: herrian onartuak izateko euskaltzale itxurak egin behar zituzten, nahiz eta barruan besterik sentitu. Beraz, Augustinen erantzuna zabala izan zen:



“Laga egiozube: eurak izango dira egindako okerra inñok baño lenago nabaituko dabenak. (...) Barrero dirautzut: itxi, laga baketan... Zeure idazlanetan goratu, aupatu, txalotu, aintzaldu ta abestu Agirre; ezagutu eragixu bere lana, euzkeltzale ta euzkotar guztiak ezagutu bear leukena dalako, baina etzaitetz txikikerietan sartu ta zabaldu, Kristo'ren itzak dira: ez inñor berantz jatxi, beti gorantz igo egixu. (...) Laga ba egiten, laga igaroten... Jausiko dira. Azketsi”.

(Euzkadi, 1934-V-08)

Augustin, idazle lagunetik harremanetan hurbilekoa egiten zen. Taldekoa. Idazleen arteko garaiko eztabaida guztietan parte hartzen zuen eta ez zuen bere iritzia eman edo bere hauspoa eskaini gabe utziko. Erreferentzietako bat izateaz gain, Augustinekin kontu zitekeen. Ez zuen hark hutsik egingo.

### **ABERRIJAGAZ BIZI, AUGUSTINEN LEHEN ANTZERKIA**

Istran Szechenyi, Friebe, Marx, Toth Tihamer, Goethe, Demostenes, Raul Plus, Bazin, Montalembert, Gibbona, Du Guesclin, Nuñez de Arce, Benson, Chabot, Ravignan, Martinez Saralegi, Chesterfield Balmes, Lauren Bruton, Leibknecht... eta beste hainbat ziren Augustinen garaiko irakurketak.

Irakurketa hauei esker, beste herrietako errealitateen jabe egingo zen eta berarentzako zer nahi zuen argitzeko iturri paregabea aurkituko zuen. Irakurketa hauetatik jasoko zituen bere pentsamendua indartzeko ideiak eta ideia hauexek izango ziren, hain zuzen ere, bere lehendabiziko idazlanetara bultzatuko zutenak.

1934ko abuztuaren 22an argitaratzen da *Aberrijagaz bizi* bere lehen antzezlanaren lehen atala *Euzkadin*. Hiru ataletan argitaratu emango zen “Arteta” izenordepean. Gaztetxoek zuzendutako antzerkia zen eta obra honen bidez, Augustinek aberria zer zen azaldu nahi izan zuen: “Espainia” eta “Euzkadi” zer ziren.

Augustinen ustez, gazteek aberria zer zen ez bazekiten, gazteek eurek hilko zuten aberria; beraz, aberri hori ezagutzera ematea zen haren helburua. Horrela, bada, *Aberrijagaz bizi* antzezlaneko Ibon protagonistari, aita abertzalea izateagatik hil diotela esaten diote, eta eskolan abertzaleak zergatik jotzen dituzten azaltzen. Ibonek, aberria galtzen ikusi baino nahiago duela hil aitortuko du. Azkentzeko gogoia erakusten du, ohorez hiltzekoa. Lagunek, ostera, ezetz, gazteen lana aberria askatzea dela adieraziko diote, eta ez hori bakarrik, baizik eta aberria Gurutzearen indarrez askatuko dutela.

Augustinek, obra honetan, artikuluetan ezagutzera ematen dituen ideiak txertatzen ditu. *Aberrijagaz bizi* antzezlanaren bere artikuluen eta bere pentsamenduaren luzapena da, hiru ideia nagusi azpimarratzen dituelarik: aberria maitatzea gurasoak maitatzea da; aberria Gurutzearen laguntzaz askatuko da; eta aberria gaztediaren esku dago.

1934ko irailean, *Illobearen indarra* antzezlanaren argitaratuko zuen *Euzkadin*, hiru ataletan baita ere, “Arteta” izenordepean. Eta lan hauexek izango da Ondarroan antzeztuko den Augustinen lehen antzezlanaren.

### **GARBIZALETASUNAREN INGURUKO AUZIA ETA LEHEN KRITIKAK**

1934ko uda partean, euskal idazleen artean, garbizaletasunaren inguruko auzia zabaldu zen. Altubek sabindar eskolari kritika gogorra egin zion: garbizaletasunari kontra eginez, herri hizkeran hartzen zuen haren arnasa. Hiztegiaren auzian, neologismoen sokuntza salatu zuen eta hizkuntzan ondo sustraituriko hitz biziak erabilera defendatu. Sintaxiari dagokionez, joskera legeak formulatu zituen *Erderismos* liburuan eta honako salaketa

egin zuen: zentzuzko arau honi ez ziotela jarraitzen “40 urtez onutzako idazle geyenek, batez be bizkaitarrak”.

Altuberen eraginez edo haren bidetik, erdararen kutsua kritikatu eta Kirikiñoren maisutza aipatu, Eusebio Erkiaga “Endaitz” idazle lekeitiarra joskeraren gaiari lotu zitzaion.

Eusebio Erkiagak, hainbat artikulu idatzi zituen euskal idazleek joskeraren gainean arduraren handiagora jarri behar zutela esanez. Idazle gehienek erdaraz oldoztu eta erdaraz eratzen zituztela euren gogaiak aipatzen zuen; hitzen garbitasunak larregi arduratzen zituela, alegia:

*“Itzen garbitasunean guztia ba’lego lez, itzen garbitasuna ba’litz lez euzkerearen osagai bakarra”.*

(Euzkadi, 1934-IX-14)

Euskal hitzekin erdaraz idazten zutela salatu zuen eta salaketok egundoko polemika sorraraziko zuten. Eusebio Erkiagarekin, ordea, bat etorriko ziren “Larreko” (Pablo Fermin Iri-garai) eta “Arteta” (Augustin Zubikarai).

Augustin iritzikide eta aldeko atera zitzaion Erkiagari. Augustinen ustetan ere, euskaraz gero eta gehiago idazten zen garai hartan, idazki asko ulergaitzak egiten ziren; erdaratik euskaratutakoak zirela igartzen zen: erdal joskeraz eta “erderismoz” puztutako idazkiak ziren asko eta asko.

Augustinen ustez, hizkuntzaren aberastasunik handiena joskeraren zegoen eta polemika honen erdian, bada, Augustinek bere burua garbizale aitortu zuen. Eta ez hori bakarrik: idazleen arteko bilera berezi bat egin beharko litzatekeela proposatu zuen eta bilera horren gaiak “euzkel-joskerea, euzkel-sintaxis” beharko lukeela aurreratu.

Ausardia hau dela eta, kritikarik ez zitzaion falta izan Augustini. Zirika ibiltzeaz salatu zuten, idazleen artean haserrea

hedatzeaz, eta ekarpen hura baizik ez egitekotan, hobe zukeela isilik egotea aurpegiratu zioten.

Augustin, ordea, ez zen uzkurto:

*“Gai au batzarreratutea “zirika ibilteko asmoa” dala, eztoz uste. Eta zirika ibilteko asmoa ba’litz be, zer? Gai garrantzi-tsuagorik bai ete? Edo ikasle batzuon asarretxu batzuekaitik, euzkerearen osasuna bastartuko ete dogu? Idazle batzuek betiko ixildu bearko giñatekezala? Euzkerearen onerako izan ezkeroz, poz-pozik”.*

(Euzkadi, 1934-IX-14)

“Etxekoa” idazleak, gai honekin jarraituz eta joskerari buruzko okerra biguntze aldera, idazleei ordaintzen ez zitzaion aitzakia jarri zuen. Eta Augustinek iruzkin hau ere ez zuen barkatu. Bere ustez, idazleen lana ordaindua ez izatea ez zen zorrotzasun gutxiagoz idazteko estakurua:

*“Ainbat lan eta alegin kostatu yakuzan idazte-lan guztiak duarik egiten doguzala diñozu. Esan gura lez-edo: ordaintzen dauskubenerako, naiku ta lar egiten dogu (...) Etzaitut ezagutzen eta zeure gogoa zein dan ezin nei igarri. Edozein izanda bere ezta most ardurarik; gibel-andi naz; enaiatzu asarratuko. Baña “ba’da ezpa-da” bere jakin egixu: gaurdaño duarik idatzi izan dot. Txarto idazten dodana, ba’dakit eta autortuten dot. Eta neuri zuzendu al’zeinstakixubezan zirikada oro biotz-enez artu ta “zirikadok” egotziten daustena zuzenduten alegintzen naz (...). Ondo diñozu: “idazteagaitik ordaindu ta txarto idazten dabena ezin daikegu ezetara be onetsi”. Eta geituten dot: idazteagaitik ezer ordaintzen eztautsen txarto idazten dabene bere ez. Ba’gara? Euzkel-joskerea, euzkel-sintaxia eraldu ta atzalduta dago. Zeugaz nago. Eginda dagozan arauen barruz jokatu bear dogu. Eztiñot arau orrek aldage ta diskutidu eziñak diranik.*



*Gizonen lanak ezpaian imintea azke da. Arauok egitea gaurko idazle geyenon gain dago. Egiz. Geyenok jakinge gara; autortu dagigun. Baña eginda dagozan arauak betetako era ta biderik egokienak zein diran ezin daikegu diskutidu? Ezin daikegu atzaldu arau orreik zelan bete geinkezan? Zetzaz jardungo gara ba? Bazkaitarako arraña ala aragia egokiago ete dan? Valdepeñas edo Rioja'ko ardaua edango dogun? (...) Gayok ezin erabilli ta atzaldu leiz maitasun ta anaitasunik galdu barik? Zelako gizonak gara ba? Argizagizkoak? Bildurrok bastartuta batzartu gaitez, agintariak agintzen dauskubenean, eta euzkerearen osasunari yagokozan gaiak erabilli ta aztertu daiguzan. Norbere-kiko txikikeri barik”.*

(Euzkadi, 1934-IX-18)

Bi joera nagusi, beraz, idazleen artean, garai honetan: “mordoioltoxa bada ere” euskara herrikoia eta ulergarriaren alde egingo duten erraz-zaleak, batetik, eta garbizaleak edo sabindar eskolakoak, bestetik. “Larreko”, “Endaitz” eta “Arteta” bigarren talde honetan kokatuko ziren. Polemika honen harira posizionatuko zuen, bada, Augustinek bere burua euskal idazleen batzarretan, Eusebio Erkiagarekin taldea osatuz, nahiz eta talde honek, gerora, gorputz sendoagoa hartuko zuen.

Augustinek herriarentzako idatzi behar zela ulertzen zuen, berak, hain zuzen ere, herria prestatzeko antzerkia lantzen baitzuen. Baina euskaraz idazterakoan, modu jasoan idatzi behar zen ustekoa zen, euskal literatura, hain zuzen ere, beste herrialdeetako literaturen mailara igotzeko.

Garai honetan, jada, Augustinek urrutira eta etorkizunera begiratzen zekiela erakutsi zuen. Euskal literaturari zegokionean, ikusmira zabalekoa zen.

Aipatu idazleen arteko bilera, azkenean, Elgoibarren egin zen Gotzon Osoro “Aberri”ri prestatutako omenaldia aprobe-txatuz. Baina landutako gai nagusia, bestelakoa izan zen: bilera hartan, Lauaxeta Euzkel-Idazle-Batza sortzen ahalegindu zen. Eta sortzekoa zen idazleen elkartearen helburuak ezartzerakoan, bi joera nabarmen agertu ziren: batzuek euskaltzaleatasuna lehenetsi nahi zuten; eta, besteek, abertzaleatasuna.

Elgoibarko bilera hartara Bizkaiko idazle askok huts egin zuten; Augustin barne. Eta behin betiko batzorderako hautatuak izan zirenak, Bizkaitik, Lauaxeta, M. Ziarsolo “Abeletxe” eta T. Agirre “Barrenoso” izan ziren.

## DEBEKUA ETA ZENTSURA

1934-35eko negualdian, CEDAk eta muturreko errepublikarrek gobernua hartu zutenean, Bizkaiko gobernadoreak Bizkaiko egunkari eta aldizkarietan euskaraz idaztea debekatu zuen. Ondorioz, Augustinek garai honetan *Euzkadirako* euskaraz idatziko zituen artikuluak banakak izango ziren.

Bi errealtate gailentzen dira: bata, idazleek ezizenak erabiltzea ohiko praktika bazen ere, batez ere, debeku garai honetan hartu zuela zentzua goitzenak erabiltzeak; eta, bestea, Augustinek behin baino gehiagotan aitortuko zuen bezala, zentsurak alferriko lanak egitera eta denbora galtzera baikizik ez zituela bideratzen euskal idazleak. Augustinek ezer gorroto bazuen, alferriko lanetan denbora galtzen ibiltzea zen. Zentsurarekin, euskal idazleen produkzioa ikaragarri jaitsi zen, ezinbestean.

Idazle askok, gerora ere, ohitura gisa, izenordeak erabiltzen jarraituko zuten. Hala aitortzen zuen, adibidez, Eusebio Erkia-

gak: ohiturak gidatuta, ezizenak erabilitzea gerra aurreko idazleentzako praktika ohikoa izan zela.

Augustinek gerra aurretik erabilitako ezizenen artean, ezagunenak, “Arteta”, “Gurutz”, “Likona” eta “Kutuntxu de Artibai” izan ziren eta, ondoren erabilitakoak, “Itxasertz”, “Zutarra”, “Ondarzubí” eta “Ibaiondo”, besteak beste.

### BERTSO GUDUA: TXIRRITA VS. BASARRI

1935ean lehen Bertsolari Txapelketa ospatu zen. Baziren aurrekariak. Baita jarraitzaileak ere. Eta bi mundu ziren, aurrez aurre, elkarren ondoan jarriko zirenak: brusaz jantzita batzuk, gorbataz besteak. Baina ez zituen janzteko erak bakarrik desberdintzen: bertsoan eta kantatzeko eran ere guztiz ezberdinak ziren.

Txirritak Aitzoli burla antzera egin zion maisutzat bera aukeratua zeukala adierazi nahian bezala.

Jose Ariztimuño “Aitzol” kazetari eta idazleak euskalgintza eta herrigintza landu zuen; *Yakintza* aldizkariaren sortzaile eta Euskaltzaleak elkartearen zuzendaria izan zen. Lodi samarra gorpuzkeraz, Txirrita zenez gailentzen zitzaion bakarrenetakoa, hortik Txirritaren Aitzolekiko txantxa.

Aitzolek, ostera, ez zuen Txirrita bertsolari gisa begiko: taberna zulokoa eta upeltzaleegia baitzen bere gusturako. Poesian bezala bertsoan ere, giro berrietara egokitutakoa zuen nahiago Aitzolek, euskal bihotzak suspertuko zituzten mezuak argi asko bertsoan emango zituen: jantzia eta dotorea.

*Euzkadi* eta *El Día*n kolaboratzaile zen Basarri gazteak, ostera, erreferentzia berriak erabiliko zituen bertso munduan. Aitzolek berak prentsan zerabiltzanak, hain zuzen. Gaiei helteko era guztiz bestelakoa zekarren Basarrik.

Egun honetan, bazekiten, biek ala biek, gudu antzeko batera zihoazela. Abertzaletasunak foralismoari gain hartu beharreko gudu izango zena. Eta Aitzol buru zuen epaimahaiak, hiru ordu luzeko borrokaldiaren ondoren, aho batez, Iñaki Eizmendi “Basarri” zarauztarrari jantzi zion txapela.

Augustin, bere lagun Basarriren aldeko agertuko zen; bere bertsolari kuttuna izango zuen aurrerantzean ere.

### GUDA OMEN DATOR...

1935eko apirilean, Augustin mundu mailako gudari buruz idazten hasten da: ba ote datorren, ez datorren, zergatik guda... Ez zeukaten informazio gehiegirik. Iturri nagusiak zentsurapean egotean, zurrumurruek hedaturiko beldurra eta egonezina zituzten bazka.

Augustinen ustez, euskal abertzalearen sinismenak oinarritzat hartuta, “handikeria” eta “norbekeria” ziren gudaren oinarri eta halaxe jakitera emango zuen *Euzkadiren* orrialdeetan:

*“Eta gaitz orren zuzenbide lez, gexo orren oskai lez, itz bat entzuten dogu: gudea. Norbekeria ta andikeria asetutearren, gizonak asarratu ta leoiak letxe burrukara jaurti gura dabez; gizonak giza-odol artean iltzez narrestuten ikusi gura dabez”.*

(*Euzkadi*, 1935-IV-11)

Augustinek, gudari, printzipio eta kontzeptu lez, ezezkoa emango zion. Gizatasuna eta katolikotasuna oinarri, gudak ez zuen bere barruan lekurik:

*“Katolikuok ezin daikegu ezetara be gudarik onetsi. Alkarganako maitasun zindoa luditarren biotzetan irarri eta iraun dagian biñardugu. Bake-zaleak gara. Eta laterri batzuek gudamin agertuten diran aldi onetan, min ori ezetsi bear dogu”.*

(*Euzkadi*, 1935-VIII-29)



Guda kanpaiak entzun arren, garaiko idazle asko, Augustin barne, erresistentzia antzeko bat hedatzen saiatu ziren.

Fedea, alabaina, ez zen aski izango guda hari aurre egiteko.

## LEHEN OMENALDIA


1935eko abenduan Augustini omenaldia egin zioten bere herrian. Ondarroako Euzkeltzale-Bazkunak antolatu zuen omenaldia, hain zuzen ere, Augustin Bazkunako idazkari izanik, lanean gertutik ezagutzen zutelako. Euzkeltzale-Bazkunaren helburua egunkariak, aldizkariak, idatziak, egutegiak, eta euskara ikastaroak bultzatzea zen batik bat. Eta lan hau guztia burutu ahal izateko, batzokiak ziren, kasu gehienetan, bazkuna honen kokaleku, herrian herrikoa. Ondarroakoan, Augustinek aberriagatik egindako lan eskeragatik omendu zuten.

Omenaldia batzokian izan zen eta programa edo egitarau estua prestatu zioten: hainbat ekitaldiren artean, *Aberrijagaz bizi* eta *Illobearen indarra* obrak antzeztu zizkieten, azken hau, ordu-rako jada, hiru aldiz antzeztuta bazegoen ere herrian.

Lagunek bazekiten *Aberrijagaz bizi* antzezlana idazteko Augustinek zer-nolako buruhaustea izan zituen. Garai hartan, abertzale gehientsuenak bezalaxe, Augustin mendigoizalea zen eta mendi irteeretan partekatu ohi zituen bere egitasmoak eta kezkek lagunekin: “*Tontorra-mendi gañean esan zendun orrilla 'ko egun batean: ¡Aurrera eroan bear dot, amaitu bear dot!*” gogoratzen zuen Arbelaitzek.

Egindako lan guztiaren eta garaitutako buruko minen ordain gisa edo opari lez “idazkortz” eder bat eskaini zioten Augustini, idazten bidea irekitzen jarrai zezan.

Euzkeltzale-Bazkunakoek gazte-gaztetandik egin zuten apustu Augustinen alde, argia eta abertzale sutsua zela ikusten



Augustin 1935ean.

baitzuten. Bere 21 urteak bete berri zituela, Augustin Euskal Herriko goren mailako idazleen artean mugitzen zen jada, eta Zubikarai familiako hainbat lagun politikan mugitu izan zirela aztertuta, Augustini bideak irekitzen ahaleginduko ziren.

Ondarroako herriak Txomin Agirre “idazle handia” eza-gutzen zuen lehendik. Augustin, ordea, bestelakoa zen: antzerkigilea eta artikulugilea. Hurbilekoa.

Augustin, bere antzerkiari eta artikuluei esker, herriaz eta herriarentzat idatziko zuen lehen idazle ondarrutarra izan zen.

Batzokian ere, hurbiletik ezagutu zuen jendeak, antzerkiak nola prestatzen zituen eta bere lana zelako seriotasunez hartzen zuen: *“Augustin ez zan kafea artzera etorten; lanera etorten zan. Berbalduna zan izatez, gozoa tratuan, ikusten zan beste edukazio batekoa zala... batzuk karta jokoan edo barran jarten ziranerako, berak paperak atara eta jendea lanean jarten eban. Lanean oso serioa zan”* gogoratuko zuen garai hartan Batzokian laguntzen ibiltzen zen Anuntzi Akarregi ondarrutarrak.

Arrazoi hauek guztiak zirela medio, herrian oso estimatua zen: Ondarroaren berri ematen zuen egunkarietan, kanpoko berri ekartzen zuen, eta antzerkiaren bidetik herria eta herritarren gogo mugitzeko indarra egiten zekien. Jakituna, abertzalea eta gartsua. Herrian, eta inguruetan ere, gutxi bezalakoa.

Jose Mari Ituarte “Artibai” idazleak ere halaxe gogoratuko zituen omenaldiaren ingurukoak:

*“Bere zintzotasuna autortu, bere argitasuna ziñestu, eta batez bere, bere abertzale-gogoa txalotu. Orixe izan zan omenaldiaren elburua”.*

(Euzkadi, 1935-XI-30)

## EGUNA ETA GERRA GARAI LUZEA (1936-1942)

### GERRA AURREKO JARRERA

1936ko otsaileko hauteskunderen ondoren estatu mailan Fronte Popularrak nagusitasuna lortu bazuen ere, Bizkaia eta Gipuzkoan hegemonia jeltzaleek mantentzen zuten; ez ordea, Araba eta Nafarroan, tradizio zaleak garaitu baitziren. Ordurako gizartea oso polarizatua zegoen, eta Ondarroan bertan eskuindarrak jeltzaleei gorriekin bat eginda egotea leporaten zieten, eta jeltzaleek berriz tradiziozaleei “faxista” deitzen hasiak.

Urte sarrerako egoera deseroso honek ez zuen, ordea, Augustin kokildu. Euskal idazleak, apurka-apurka, isilduz joango ziren baina, Augustinek, kontrako jarrera hartuko: 1935eko literatura uztaren berri emanez hasi zuen urtea, bai liburu argitalpenak kontuan hartuz, zein hizkuntzalaritza inguruan egindako aurrerabideak aipatuz. Augustinen ustez, olerkiaren urrezko urtea izan zen eta Gabriel Jauregi karmeldarraren *Pisia eta Kimia* lanaren itzulpena hartzen du aitzakia gisa, euskararen balioa eta indarra goraiatzeko, edota kontrakoa maiseatu zutenei erantzuteko:

*“Euzkerea jakintzarako gai ezatala autortu eroenak, iru edo lau baserri-gai adierazteko baño etzala esan, agertu ta ziñestu eroenak ez tira lirain eta egiti geratu”.*

(Euzkadi, 1936-I-18)



1936ko uztailearen 18an Francisco Franco jenerala Melillan altxa zenean berarekin bat egin zuen Iruñean zegoen Mola jeneralak eta beraren alde zeuden nafar karlista guztiek. Bizkaia errepublikaren alde agertu zen eta Gipuzkoan zalantza uneak izan ziren hasiera batean. Honela, laster Hego Euskal Herria bitan zatitu zen.

Gerra aurre honetan, hiru ildo nagusi landuko zituen Augustinek: batetik, euskara eta euskal literaturaren alde lan egiten jarraituko du; euskal idazleei eta hauen obrari buruz idazten hasten da: literatur kritikak egiten, literatur generoen egoera aztertzen, hizkuntzaren auziaz hausnarketa bultzatzen...

Bigarrenik, Augustin Europara begira bizi zen: erbesteko kasuak aztertu eta parekotasunen bat aurkitzen saiatzen zen, edota, erbestean gertatutako aurrekariak ezagututa, Euskal Herrira etorri behar zuena ulertzen. Baina kezka batek bizi zuen: ordu arte oinarriak izan zirenak aldatuz zihoazela ikusten zuen, bai ideologia, bai sinismen, bai jokaera, bai beharren aldetik: komunismoa, gaztediaren zaletasun berriak, katolikotasunaren oinarrien indargabetzea... Balizko gerrak baino areago, gizartearen norabide berri ezezagunak artegaten zuen.

Eta hirugarrenik, Euskal Autonomia Estatutua lortzear eta Eusko Jaurlaritzaren sortzear zela uste zutenenez, “*ez dogu gure herria galduko*” mezua hedatzeari eutsi zion.

### **IHESA ETA PARISERAKO PROPOSAMENA**

1936ko uztailearen 27an Ondarroako Defentsa Komitea eratu zen gobernadore zibilaren aginduz. Helburua erregimen errepublikarraren aldeko alderdi eta erakunde ezberdinen artean, herri gobernurako erakunde bateratu bat sortzea zen.

Arabaren jazarraldiak lehen unetik bertatik izan zuen arrakasta eta uztailearen 19an gerra-egoera deklaratu zen. Gipuzkoan, matxinatzea uztailearen 21ean gertatu zen. Eta uztailearen azkeneko egunetan, matxinatuek Donostia hartzen saiatu eta lortu ez arren, Nafarroatik etorritako tropa irragularrek eta karlistek hasita zuten Gipuzkoaren aurkako eraso.

Irailaren 4an matxinatuek Irun menderatu zuten eta Frantziako muga itxi zuten eta irailaren 13an Donostia menderatu zuten. Handik aurrera, Gipuzkoako bailarak okupatzen joango zirelarik, Bizkaiko muga zen Ondarroara heldu arte.

1936ko irailaren 20an, gaueko hamarretan, “Artibai” adiskidea etxera hurbildu eta “*komeni da iges egitea*” adierazi zion Augustini. Lagunaren deiak ez zuen asaldatu. Augustinek 21 urte zituen eta ez zuen okerrik pentsatzen. Laguna, ordea, oso urduri zegoen eta gauerdian, jendea lotaratutakoan, osabaren ontzia hartu eta Baionara ihes egitea erabaki zuten biek.

Gauaren isiltasunak eta soineratutako mozorroak lagun-duta, Baionara lehenengo eta Baionatik Ziburura egin zuten gero; eta, han, Bordegaingo etxe batean estalpea hartu. Hainbat izan ziren, eurak bezala, gau hartako ihesean aipatu etxean sartu eta elkarri laguntzeko prest agertu zirenak. Arrantzele bat eskaini zen sukaldari izateko eta Augustin haren laguntzaile. Bigarren egunean, Augustinen ardurapean gelditu zen lapikoko patatak zaintzea. Gasaren neurria eta indarra ezagutu ez, ordea, eta erreta geratu zitzaizkion patata guztiak.

Augustin ez zen sukaldari ona, ezta izango ere.

Ziburun zegoela, Augustinek lan eskaintza dotorea izan zuen: ihesean joandako euskaldunek aldizkari bat sortu nahi zutela Parisen eta aldizkari haren euskarazko sailaz arduratzea eskaini zioten. Baietza ematekotan, bost egunen buruan, Parisen

behar zuen egon. Augustinen erantzuna, ordea, ezezko biribila izan zen:

*“Urteko gudari izanik nire lagunak burrukan ziarduela, ni Parisen nasai nasai lotzea ez zan nire giroko. Beste norbaitentzako zeregiña izan bear zan ori eta ez soldadu batena”.*

(Makillen egunak, 1983)

Augustinek berak aitortu zuen gerora, bere izaera beldur-  
tiak lan hartara bultzatzen bazuen ere, kontzientziako kezka  
gabe gelditzearen aldeko hautua egin zuela. Pariseko egoera  
atsegin eta erraza ez zuen egoki ikusten, nahiz eta, gerraren gor-  
dinean, “erbesteko egonaldi hartan” premiak estututa bizi.

### BAIONATIK BILBORA BIDEAN ERABAKIA

Ondarroa faxisten eskuetan jausi aurreko egunetan herrita-  
rren benetako exodoa burutu zen, gizonik gehienak herritik alde  
egin baituzten, lurrez eta itsasoz. Bien bitartean, errepublikaren  
aldeko indarrek zubi zaharra eta berria suntsitu zituzten, faxis-  
ten aurrera egitea oztopatu nahian. Irailaren 27an Mutriku  
hartu zuten eta urriaren 3an tiro zalaparta zabaldu zen Onda-  
rroan. Gorriek Asterrikatik eta faxistek Santa Kutzetik, Onda-  
rroa kanoikadapean gelditu zen. Urriaren 4an, elizako kanpai  
hotsek faxisten etorrera iragarri zuten, Francoren eskuetan erori  
zen Bizkaiko herri bakarra izango zelarik. Hurrengo zazpi hila-  
beteetan Ondarroa eta Lekeitioen artean egonkortu zen Aste-  
rrika eta Ikatza baserriaren artean.

Gerra Zibila hasita, EAJ, PSOE, Eusko Abertzale Ekintza,  
Ezker Errepublikarra eta Batasun Errepublikarra alderdietako  
ordezkariak osatu zuten gobernu. Espainiako Gorteek Araba,  
Bizkaia eta Gipuzkoarentzako autonomia estatutua onartu zuten

eta Eusko Jaurlaritza eratu zen 1936ko urriaren 7an. Jaurlari-  
tzaren helburuak, erlijio-askatasuna, gobernuaren meneko  
aginte militarra eta euskal polizia sortzea, legeria sozial eta aurre-  
rakoia osatzea, euskararen irakaskuntza bultzatzea, euskaldunen  
berezitasunak babestea eta matxinatutako Espainiako armadaren  
esku zeuden euskal lurraldeak berreskuratzea izan ziren.

Espainiako Gerra Zibilak zeraman bidea ikusirik, Baiona  
utzi, Bilbora bideratu eta gerran parte hartzea erabaki zuen  
Augustinek.

### BILBON GUDARITZA ZEREGINETAN

Bilbon sartu eta, berehala, bere egoera argitu nahi izan  
zuen Augustinek; zegokiokoen zeregina betetzeko prest agertu  
nahi zuen. Carlton hotel ezagunaren behe aldean zen gudarako  
izena emateko lekua eta, han, bere nortasun agiriak erakutsi  
bezain laster, asko maite zuen adiskide on bat etorri zitzaion  
besarkatuz: Lauaxeta.

Gerra sortu aurretik ere Augustin Bilbora eramateko ardu-  
raz ibili zen Lauaxeta eta, orain, Augustin Bilbon aurkitzen  
zelarik, bere ondoan eduki nahi zuela esan zion. Augustinek,  
arduratsu, urteko kintoa zela gogorarazi zion. Baina Augusti-  
nen betebeharrak Lauaxeta ez zuen kezkatu: *“Zure gudaritza  
dagokitzun zeregiñetan beteko dozu”* esan zion.

Halaxe, behar ziren nagusiekin hitz egin ondoren, *Euzkadi*  
egunkarian sortu berri zen “Guda-otsak” sailerako, egunero,  
gudaroste eta taldeetako ohar, jakingarri eta iragarkiak jasot-  
zeko zeregina jarri zion Lauaxetari Augustini. Erdaraz idatzi  
behar zuen “komeni zenean”, euskararik baztertu gabe. Imanol  
Enbeita izango zuen lankide, zeren eta Lauaxeta bera, egunka-



riaren euskara atalaren zuzendaria, Euzko gudarostean zeharo sartuta zebilen, Azkueren bigarrentzat.

Augustinek pozik hartu zuen zeregin berria; “Arteta” ezizenez idatziko zuen *Euzkadin* euskaraz zenean, eta, erdaraz, ostera, “Itxasertz” eta “Kutuntxu de Artibai”.

Bizi, ostera, kuarteltzat hartuta zegoen Eskolapioen ikastetxean biziko zen, eta irabazia ere kuarteletik bertatik jasoko zuen.

Gudari jantzia eta tabardoa eman zioten. Negu eta udaberri jantzi berarekin ibili behar. Pistola bat ere eskuratu zioten, premiarik izanda ere. Baina jaso bezain laster bere idazmahaiaren kaxoian sartu eta ez zuen sekula aldean erabili. Salbuespen gisa, behin aterako zuen, hautsak kentzeko.

Bere zeregina menperatu eta egonkortu zenean, Augustin etxekoen bila hasi zen; bi anaia topatu zituen eta beste bat ere Bilbotik zebilela jakitera heldu zen. Augustin Bilbora heldu zenean, frontea Ondarroako mendietan zegoen eta gerra hark familia osoa sakabanatu eta banatu zuen:

*“Aita eta lau mutil zaarrenok gorrien aldean giñan. Ama eta beste lau txikiagoak, neska bi ta mutil bi, zurien aldean, Ondarroan”.*

(Makillen egunak, 1983)

Augustinek aitortuko zuenez, ez zuen uste bera orduan gorria zenik, ez eta besteak zuriak ere. Baina argi zeukan gerraren gordintasun hura orduantxe hasi zela gorrotatzen.

## EGUNA SORTZEKO DEIA

Gerrak berriemaile eta idazleak mututu egin zituen: idazle gehienek armak hartu behar izan zituzten eta idazle eta kazetari abertzale asko fusilatua izan ziren. Haien artean, Jose Arizti-

muño “Aitzol”, *El Diaren* motorra izan zena eta Eusko Ikaskuntza elkartearen baitan “Euskaltzaleak” taldearen asmo eta arnasa.

Olerti egunetan bat egin ohi zuen Augustinek Aitzolekin eta baita garai hartan antolatzen hasiak ziren euskal antzerki egunetan ere. Eleberri Eguna ere ospatzekoak ziren, baina beste ekimen asko eta asko bezala, hau ere gudak ito zuen.

Kostata abian jarritako ekimen andana bertan behera erortzen eta lagun asko hiltzen ikustea tokatu zitzaion Augustini.

1936ko bukaeran, ostera, Eusko Jaurlaritzak, itxaropena zabalduko zuen erabaki garrantzitsu bat hartu zuen: *Eguna* euskara hutsezko eguneroko berria sortzea. Historikoki lehena Euskal Herrian. *Euzkadiren* azpiegituraz eta haren euskal ataleko idazle taldeaz baliatuko zen, gerra garaiko eta gerrari egokituriko egunkariak arduratzeko.

Abenduaren 27an, Manu Ziarsolo “Abeletxe” joan zitzaion berriarekin Augustini: agintariak euskara hutsean argitaratuko zen eguneroko bat atera nahi zutela eta, lehenengo alea urte berri egunerako artezteko “a-gin-du-a” eman zutela. Augustinek, amets handia iruditu arren, agindua beteko zuela erantzun zion.

Laster eratu zuten, bada, *Egunaren* erredakzio batzordea: zuzendaria Manuel Ziarsolo “Abeletxe”, erredakzio-buru Augustin Zubikarai, eta erredaktoreen artean aipagarri: Eusebio Erkiaga, Manuel Enbeita, Alejandro Mendizabal eta Jose Bilbao Uribarri. Kolaboratzaileak askotarikoak izango ziren: Arrugain, Basarri, Uzturre, Mendilauta, Barrenso, Montxor, Maite, Arritokieta, J.M. Arizmendiarieta, Alex Mendizabal... eta frogaz zuzentzailea, berriz, Antonio Ruiz de Asua.

Lan hura ordaindua izan zuen Augustinek: 450 pezeta jasoko zituen hilean.

*Eguna* prestatu ahal izateko, *Euzkadi* argitaratzen zen lekua eskaini zieten erredaktoreei. Egunkariaren izena ere emanda etorri zitzairen, eta baita egunkariaren kontseilu zuzendaria ere: Ander Arzelus "Luzear". Zuzendaritzak ez zien sekula buruko min apartekorik eman; bai, ostera, diru-zainak:

*"Gizon ona baiña merkatariegi zan. Begiratuegi. Ez gure, bakoitzaren irabaziei buruz. Onetan sekula ez gendun ezer eskatu. Bai, ordea, lanerako bear zan laguntzagaz, batez be egunkaria dotoretu eta zabaldu edo anditu nairik agertu genduzan eskarrietan. Artaziak erabilten ekian arek. Beti moztuten".*

(Makillen egunak, 1983)

### AJURIAGERRAREN BISITA ESANGURATSUA

1937ko urtarrilaren 2an, Ajuriagerraren bisita izan zuen Augustinek. *Eguna* ateratzeagatik zorionak ematera eta mezu bat helaraztera joan zitzaion:

*"Ba dakizu. Ekin aspertu barik. Ia munduan zear erakusten dogun apain apain gure berezitasuna eta nortasun au, gure izkuntzaren ezaupide au".*

Eskua estutu eta joan zen. Baina Augustini Ajuriagerraren hitzak barru-barruan gelditu zitzaizkion: "erakutsi munduan zehar gure berezitasuna eta nortasuna: gure hizkuntza".

*Eguna*, izatez, gudariei adorea emateko tresna zen. Informazioa lortzeko, erredaktoreak *Euzkadira* heltzen ziren tele-tipoez baliatzen ziren; eta herrietatik bidalitako albisteez eta guda parte ofizialez osatzen zuten, nagusiki, egunkaria. 10.000 ale inprimatzen ziren egunero eta frontean eta gudarien artean banatzen zen, doan hauentzat, eta hamabost zentimotan saltzen kalean, gainerakoentzat.

Orixek eta Lauaxetak *Euzkadin* eta Aitzolek *El Dían* egin bezalaxe, *Egunan* ere literaturari bere tartetxoa eskainiko zitzaion: beti agertuko ziren bertsoak, olerkiak eta ipuinak.

Augustinek bere aurrekariengandik lezioa ikasia zuen. Berari zegokion orain kazetaritza, literatura eta euskara bultzatzea, eta horretarako tresna paregabea zuen esku artean.

Lizardiren ametsa, euskara hutsezko egunkaria argitaratzea, konplitu zen, eta ez nolana ere!

### ZORIONEKO IDAZKERA!

*Eguna* sortu eta berehala azaleratu zen alderdiko hase-rra: *Egunan* ez omen zen Arana Goiriren idazkera zehatz-mehatz zaintzen. Gehienez bai, baina ez bete-bete. Eta Bilboko sabindarrentzat, hori, barkaezina zen.

Augustinek, zuzendariari, bere iritzia argi eta garbi ezagutarazi zion: egunkariaren idazkera idazle bakoitzaren esku utzi behar zen ezinbestean; batetik, ezin zutelako idazlan bakoitza orrazten ibili eta, bestetik, irakurle asko eta asko ez zeudelako Arana Goiriren idazkerara ohituta eta prestatuta, besteak beste, hartzaile asko gipuzkoarrak zirelako.

Zuzendaria agintarien beldur zen, ordea, eta ahalegintzeko eskatu zion Augustini, baina honek irmo azalduko zuen bere jarrera: *Egunak*, euskal eguneroko bakarra izanik, zabala izan behar zuen. Denek ulertzeko modukoa eta, han, jatorri askotariko idazleek izan behar zuten leku.

Gainera, edozer gauza ere indarrez sartzen ibiltzeko garai txarrak ziren haiek. Aré gutxiago hizkuntza kontuak. Augustinen ustetan, ulermenari leihoak irekitzeko tenorea zen hura. Halaxe aitortu zuen *Makillen egunak* liburu autobiografikoan:



*“Lau zoro giñan lanean. Orixe, zoroak. Ez gendun izparkari tekninarik ez eskolarik. Borondate ona bai, geiegi”.*

Eskolarik eta tekninarik izan ez arren, Augustinek garai hartan, jada, argi utziko zuen euskara ezberdinen aldeko hautua, nork berea egitearen aldeko apustua. Bestalde, errealitate honek beronek ezin ageriagoan utzi zuen herrietako idazleen alfabetatze premia gorria.

### PISTOLA ESKUAN

Zentsuraren presioa zela-eta *Egunako* arduradunen lan-karga ikaragarriak ziren. Telegrafo nahiz agentzietatik zetozen berriak, erdaraz zetozenez, den-denak euskaratu behar izaten zituzten. Eta horrez gain, *Euzkadiko* zuzendariak behin baino gehiagotan deitu eta emango zizkion Augustini zentsurak uzten ez zituen berri asko *Euzkaditik* moztu eta *Egunan* sartzeko.

Bestalde, *Egunako* zuzendaria ez zen ia agertu ere egiten, alderdiko lanetan murgilduta zebilelako eta, beraz, bi lagun baizik ez zeuden egunero, berriak jaso eta osatu, teletipoak euskaratu, zentsurari gaineratik egin, egunkaria osatu eta kalera-tzeko: Eusebio Erkiaga eta Augustin.

Lanez gainezka eta izerdi likinetan ezinean ari ziren egun batez, helduko ez ote ziren beldurrez eta itotasunak gaindituta, bere adiskide eta lankideak, haserrez, paperak jaurti, jaiki eta... “*ni banoa*” esan zion Augustini:

*“Onetara ezin lei. Ezin lei. Etenda gagoz biok. Bai, biok. Ez besterik agertu. Ez ipokrita izan. Ezin giñei eldu biarko egunerorik ataratera. Ni beintzat etxera nua”.*

(Makillen egunak, 1983)

Augustinek bazekien Eusebiok arrazoia zuela. Baina etsi eta etxera joaten uzten bazion, berea izango zen ardura guztia

eta bakarrik geldituko zen egin beharreko guztiarekin. Hitz garratzak izan zituzten elkarrentzat. Baina guztiaren gaineratik, egunkaria atera behar zutela errepikatzen zion Augustinek.

Eusebiok, berean, ezinezkoa zela eta ezinezkoa zela.

Berotasunean, ordu arte zelan erabiltzen zen ikasteko ere eskuetan hartu ez zuen pistola idazmahaiaren kaxoitik atera eta, “*nahitaez*” amaitu behar zutela mehatxatu zuen Augustinek laguna, Eusebiori pistola paparrean jarrita.

*Eguna* bere orduan atera zen.

Gau hartan, kuartelera berandu bueltatzeagatik, afaririk gabe gelditu ziren bi lagunak.

### AUGUSTIN ERREPORTARI

*Egunak*, hein batean, egunkariaren inguruko lagunak egiteko eta ezaupideak zabaltzeko bidea eskaini zion Augustini eta, batez ere, sekula zapaldu gabeko basoetan barrena sartzeko aukera. *Egunan* ezagutu zuen, besteak beste, Engrazio Arantzadi “Kizkitza”, *Euzkadiren* lehenengo zuzendaria: “*Nik deduzko lotsa bat agertzen neutsan, eta berak aitatasunez ikusten nindun*”.

Agirre lehendakariari ere, behin batean, hitz egiteko tar-tea eskatu eta biharamunean bertan deitu zion Agirrek berak Augustini eta ordu erdi elkarrekin egoteko parada izan zuten *Egunaren* gainean hizketan. Nahi zuenean, han zegoela esanez agurtu zitzaion Agirre.

*Egunak* irauñ zuen hilabeteetako igande guztietan, bere gain hartu zuen Augustinek astelehenetako egunkari bakarraren “guda-saila” edo gerrako kronika egitea.

Lanak etenda, Augustinek ez zuen Bilbotik irteten: “*Onetan, sator agertu giñan*”. Informazioa jasotzeko, oster, gerrako

idazkaritza nagusian lagun-min bat zuen, J.M. Arizmendiarieta: *“A be nire antzera ames asko barik”*; eta igande arratsalde guztietan harengana joaten zen, berarekin kontuak esan eta hainbat gorabeheraren berri eta zertzelada jasotzera. J.M. Arizmendiarieta umetako laguna zuen Augustinek, Saturrarango seminarioan ezagututakoa.

*“Auzoko lagun izan giñan gerra aurretxoan. Lankide zintzota gartsu gerratean. Ixilleko aolkari gerrako ezkutuko egun larrietan. Laguntzar jator eta zabal gerra ostean”.*

(Deia, 1981-XII-01)

J.M. Arizmendiarieta abade ikasle zen gerra urtean. Arratsaldeetan joaten zen *Egunara*, kazetari zereginetan laguntzera, goizean abadetzako ikastaroak Begoñan jarraitu eta gero. Harreman estua, betidanikoa eta betirakoa sortuko zen Augustin eta Arizmendiarieta markinarraren artean: *“Ikako berbete be arengandik ikasi neban”* aitortuko zuen Augustinek.

Hasiera batean, *Egunako* erreportajeak besteen ahotik entzundakoak izaten ziren, ez Augustinek berak lekuan jasoak. Baina apurka-apurka, tokian tokikoak jasotzen saiatuko zen. Andima Orueta, *Euzkadi* egunkariko erreportariarekin hasiko zen batera eta bestera gertaerak jarraitzen.

Behin, Andima Oruetak deitu eta Durangora joateko eskatu zion, hango berri emateko. 1937ko martxoaren 31a zen. Eta hara joanda, hegazkinak agertu:

*“Obi baten arria jaso, sepultura baten arri astuna zabaldu, ta nik eztakit zein santu edo zein deabruren azurren ondoan sartu nitzan, eskutatu, ta barrutik, al zan bestean, gañeko arria bere lekuan ipinten alegindu nitzan, ni barruan estalduz. Nai ta ez eriotzaren lagun egin nitzan illuntasun aretan, anaitasun aretan*



Augustin Eusebio Erkiaga eta J.M.<sup>o</sup> Arizmendiarietarekin.



*eta giro aretan. Ni, bizirik, illobi barruan nengoan. Besteak, ilda, lur gainean, azalean”.*

(Makillen egunak, 1983)

## BIHOTZEAN POZ ETA MIN

Igandeak, izaeraz, jai izaten zirenez, gehienak senideak ikustera irteten ziren edo gaixotegietako lagunak bisitatzera. Augustin, normalean, Bilbon gelditzen zen, gudariak zeuden lekura joan edo lanak aurreratzen.

Irteera oso bakanak egiten zituzten: bataren edo bestearen familiakideren bat bisitatzera edo lagun bategin hitzerdi bat esatera. Hala ere, irteera bakan haietako batean, Augustinek gero bere emazte izango zen Maria Jesus Erkiaga begiz jo zuen. Gerrate guztian ez zuten gehiago elkar ikusiko, baina gutun bidez ezagutuz joango ziren eta kontaktua mantendu zuten.

Augustinen bihotzean poz txiki batek egin zuen leku.

Giroa, bestalde, larriagotuz zihoan.

1937ko apirilaren 26an, Andima Oruetak deitu eta Gernika aldera joan behar zutela esan zion, kotxea zain zeukatela. Baimenaren bila joan eta irteteko prest zeudela, nagusiak deitu zion Andimari, esanez, galarazi egiten ziola Gernikara joatea.

Gernikaren bonbardaketa, beraz, telefonoz jasotakoarekin idatzi zuten, bai *Euzkadin*, bai *Egunan*.

Gudari batek, sarraski hura ikusi eta, haserre bizian, luma baino beste armarik ez ote zuten egin zion arrapostu Augustini. Hobe zutela gobernua lotsarazi, hegazkinik bidaltzen ez zuelako. Edo, bestela, gezurretan zebiltzala guztiak... Gudari haren adierazpenek, *Egunaren* erantzukizunaren tamaina erakutsi zion Augustini. Egun hartan, *Euzkadirako* idaztea eskatu zioten Augustini eta ez zuen bere mina isildu.

*“Sentikorra naz. Laster beteten yataz begiak malkoz. A ikusi nebanean, etenda gelditu nitzan. Egunerokora joan nitzan bixkor. Idazten asi eta negarrez ezin geratu. Busti-busti egindako papera, apurtu. Barrero asi, beste gupil bat emon nairik nire lanari, nire itotasuna eteteko be. Barrero bardin. Negarrez ezin geinkiala erriarren gogoari eutsi ta aria beste alderdi batetik eroaten asi, ta bardin. (...) Gernika, gure ezaugarria, guretzat istori zarra zan eta barri baten asiera”.*

Maiatzaren 6az geroztik, “ez dira pasako” nonahi idatzi arren, gudariak gero eta atzerago eta arerioak gero eta aurrerago zetozen. Bilbo ere arerioen esku geratu zen arte.

## EGUNAREN ITXIERA ETA JURAMENTUZKO ESKAINTZA

*Egunak* urte erdi eskas iraun zuen: 1937ko urtarrilaren 1etik ekainaren 13ra, Bilbo matxinatu militar-faxista eta erreke-teen eskutan erori zen arte.

“Abeletxe” joan zitzaion Augustini Bilbotik atera egin behar zutela esanez. Jaurlaritza ere kanpora zihoala eta Balmaseda aldera jotzeko abisua eman. Bilbo errazegi errenditzen zela iruditurik, azken sua pizten ahalegindu ziren baina, alferrik, ez baitzuten indar nahikorik. Ekainaren 19an, bada, Bilbo galdutzat eman eta Santander eta Asturias aldera egin zuten.

*Eguna* itxi eta atzera begiratzean, Augustinek, egindako lana baizik ez zuen ikusten. Oso politikari gutxi ezagutu zituen, ez zuelako denborarik izan eta beste idazle edo kazetari batzuk areago saiatu zirelako politika harremangintzan. Babesik gabe gelditu zen. Eta gogoratuko zuen “gizon egin barik” sartu zela Bilbon:

*“Oraindik biziten ikasi barik. Fede oneko eta, egia esateko, ikuskizun eta ten batean eutsiegi. Gure laneko lagunetatik kan-*

*pora ez gendun beste lagunik eduki. Edo egunero ikusi bear nituzen gizonetatik beste, ez neukan ezaupiderik edo adiskidetasunik. Artzeko denporarik be ez. Benetan. Ez giñan kale gizon”.*

(Makillen egunak, 1983)

Augustinen lehenengo jomuga, Bilbotik irten ostean, Karrantza izan zen. Nora ezean eta aginduak jasotzeko zain egon beharrean, Augustin ez baitzen besoak gurutzatuta egotekoa, “Aralar” batailoian sartzea erabaki eta batailoiarekin Santoñara egin zuen, Euskal Herria utzita, Kantabrian sartuz. Euskaldunek giro oso txarra arnasten zuten inguru haietan, izan ere, “kobarde”tzat jotzen baitzituzten Bilbo galtzen uzteagatik.

Santoñatik Mieres-era egingo zuen jauzi ondoren eta Mieres-en, uztailaren 31n, Loiolako San Inazioaren omenezko meza ospatu zuten. Augustinek, egun eta jardun hartan, juramentuzko eskaintza sendoa egin zuen: euskal eta eliz jaiak sekula-sekulakotan ospatuko zituela.

Mieres-tik, alabaina, bota egin zituzten Loiolako San Inazioaren omenezko meza antolatzeagatik. Eta irteera Laredora izan zen.

Han, kabotzatik igaro gabe sarjentu izendatu zuen komandanteak, galoiak bere ibileren ordaintzat ematen zizkiola esanez. Galoiekin batera, alabaina, komandanteak marrazki batzuk erakutsi zizkion Augustini arerioaren hegazkinak ezagutu zitzaizkion eta, arerioa aurreko mendian igarri orduko, sukaldeetara bueltatzeko baimena emanez.

Egunero, sukaldeak 10 km atzerago jartzen ziren eta, hura, Augustinen ustetan, ez zen gerra.

Luze gabe, Augustinen batailoia makurrarazi egin zuten, armak kendu eta Castrora bidali zituzten, preso.

## SARNA BATU

Castroko espetxean, ukuiluetan bezalaxe bizi ziren. Arnasa berritzeko baino toki txikiagoetan sartuta eta gorputzaren eginbeharrak ere bertan egin behar, jan eta lo egiteko leku berean. Hango garbitasun faltaren ondorioz, Augustinek, beste preso batzuek bezalaxe, azteria edo sarna batu zuen.

Medikuak egunero itsasoko urarekin garbitzeko agindua eman zien eta, halaxe, medikuari esker baimena lortuta, hondartzara joaten ziren azteriaz zeuden gaixo guztiak, larrugorritan, euren garbitasunak egitera.

Garbiketez gain, Castron ez zuten beste lanik izan. Egunero, espetxearen aurrealdean, zanga handi bat egiten zuten, euren obramentuak hantxe ezkutatzeko.

Eta hainbeste denbora libre izanda, Augustinek hain berea zuen zirikatzaile lanetarako inoiz baino aukera hobea topatu zuen. Bere lagun bati manta kendu zion, lagunaren artean jolas eta txantxa apur bat sortzeko asmoz. Zoratu beharrean jarri zen, ordea, laguna, sekulako iskanbila sortuz. Zalaparta haren erdian, eta laguna manta bila ari zen bitartean, lapurtutakoa bere lekuan utzi eta isildu zen kontua. Zaintzaileak bertaratu zirenean, laguna burutik zegoela pentsatuta, ez zuten zigortu. Lagunak ez zuen sekula jakin Augustin izan zela manta lapurra.

Sarna, berriz, hedatuz zihoakion Augustini gerritik behera. Minez zegoen eta hanka bat ezin erabilita. Hori dela eta, gaixorik zeudenak banandu egin zituzten eta Castratik Dueroko Arandara (Kantabrietik Burgos aldera) bidali zuten.

Fitxa-lekua zen Aranda eta han, epaitegi batera deituta, zer egin zuen eta zer zen galdetu zioten Augustini. Augustinek bi uren artean erantzun zien galderei; Tribunalak ontzat eman



zituen erantzunak, eta galdeketa hartatik *“buena conducta social, moral y religiosa”* zioten agiriak lortu zituen.

### EUSKALDUN SENTITU BEHARRA

Arandatik Ebroko Mirandara eta Mirandatik “trabajadore-tako 64” batailoian Nafarroako Oteizara eraman zuten ondotik, Augustin. Oteizan zegoela 1937ko gabonak heldu ziren eta Gernika inguruko zein ondarrutar batzuk ere batera zirenez, korua osatu eta *Mesias* euskaraz kantatu zuten. Oteizan ez zitzaizkien euskaraz kantatzeagatik haserretu ordea, gorri lez aurkeztu zituztelako herrian.

Garai hartan, zaila zen, jada, gorri ala zuri, nor zer zen jakitea. Batzuk sentimenduz eta besteak gerrak hartara eramanda, txaketak aldatuta bizi ziren. Berebiziko garrantzia zuen kolore bateko zein besteko izateak, baina norbanakoarengana joz gero, sarri askotan, ez zekiten nola edo zergatik ziren kolore bateko edo besteko. Halabeharrak eraginda kasu gehientsuenetan.

Kolore entsalada hartan, nonbaiteko sentitu beharra zuten preso euskaldunek. Denak batuko zituen ezaugarri edo ekin-tzaren bat behar zuten. Eta batasun hura, Augustinen ingurukoei, ahal zuten guztietan euskal ohiturak eta, batez ere, elizari lotutakoak gordetzeak eta zaintzeak eskaini zien. Horrek mantentzen zituen “elkartuta” eta “euskaldun” sentiarazten.

### LAGUNEN ETA FAMILIAKOEN BERRI POZGARRI ETA GORDINA

1938an, Oteiza utzi eta Guadalajarako Mirabueno izan zuen Augustinek hurrengo jomuga. Han pikotx eta palaz lanean jardun behar izan zuen hiru hilabetez. Augustinek gaixorik jarrai-

tzan zuen, ordea; kinina hartzeko agindu eta aparteko lanak ematen saiatu zitzaizkion: Guardia Zibilen kuartelera deitu eta hango telefonoa atenditzeko lana eskaini zioten; deiak jaso eta gaueko parte ofiziala jasotzea zen haren lana. Eta idazteko zeukan erraztasunaz jabetuta, kuarteleko “agintari ustekotxo” guztien maitasun gutunak idazten jarri zuten. Han maisutu zela zioen Augustinek, oraindik maitasun kontuetan kokoloa izan arren, emakumeek gogoko zituzten esaldi goxoak asmatzen eta orrazten.

Mirabuenotik Zaragozako Torre Sabiñanera bidali ondoren eta han poz handi bat hartu zuen; lehen ere, bazekien *Egunan* idazle izandako lankide batzuk epai auzietan estu ibiliak zirela, baina ez zekien non eta nola bukatu zuten. Kezka horrekin bizi zen. Torre Sabiñanetik pasatu zen bilbotarrez osatutako batailoii batean Erkiaga adiskidea ikusi zutela eta Augustini buruz galdetu zuela aditza eman zioten. Batailoiak ez zuen gelditzerik izan eta Augustin, momentu hartan, han gertatu ez. Ez zuten elkar ikusterik izan baina Erkiaga bizirik zegoela eta bere akordua izan zuela jakiteak biziki poztu zuen Augustin: *“Ezagutuko ete gendun alkar, txapelgorriz bera eta txotoarekin ni, Bilbon txapel baltzez alkarrekin bizi giñanok?”* izan zen bururatu zitzaion galdera.

Ez zen Torre Sabiñanen izandako sorpresa bakarra izan, ordea. Bere anaia zaharrena, Jose Mari, Calatayud-en, Zaragozan, zegoela jakin zuen, hango lantegi batean lanean. Birritan pentsatu gabe, kamioi batean laguntzaile lez ihes egiten ausartu eta anaiaren bila joan zen.

Baita aurkitu ere! Eta hura sorpresa garratza: anaiak eza-gutu ez! Urtebete baino gehiago zen elkar ikusten ez zutela, eta sekula kakiz jantzita ikusi ez zuelako, edo *“txotoak gure euskal burua itxurabakotuta”* uzten ziolako, horra, aurrean anaia eta ezagutu ezin: *“Nor nintzan esanda be sinistu nahi ez”*.

1938ko udaberrian, Torre Sabiñanetik Cortes de Tajuñara bidali zuten Augustin eta han adiskide kutun baten gutuna jaso zuen. Polizia, Burgosko gerrako atxilotuen artxiboetan, bere bila zebilela aditzera ematen zion. Gutuna igorlearen izenik gabe zetorren baina Augustinek, haren idazteko era trakets samar, bihurri eta bakana ezagututa, bazekien norena zen: J.M. Arizmendiarrrieta adiskidearena.

Egundoko arrada sumatu zuen Augustinek. Bate-tik, gutun hura bidali ahal izateko, bere adiskideak, mesede bereziak eskatu behar izaten zitzaizkien lagun horietako bat baliatu behar izan zuelako zentsurako zigilua jartzeko. Eta bes-tetik, litekeena zelako, gutuna, Augustinek berak baino lehe-nago, batailoiko besteren batek irakurrita izatea. Beraz, ihes egin behar ote zuen zen bere galdera. Baina ihes nora, zegoen egoeran egonda? Azkenean, “*datorrena datorrela*” esanda, ber-tan gelditzea erabaki zuen.

Guadalajarako Las Inviernas-era eramán zuten ondoren eta hango komandanteak, Augustin Donostiara bidaltzeko agintzen zuen telegrama jaso zuen. Esposekin eskumuturrak lotuta eramán zuten Ondarretako espetxera.

## KANJEA

Ondarretako espetxera kanjea edo gizon trukea egiteko eramán zuten Augustin. Bederatzi behar zuten izan eta zortzi zeuden Ondarretan: Jesus Garriz iruñearra, *Euzkadi* egunkariko guda kazetaria; Angel Aurrekoetxea deustuarra, *Euzkadiko* taki-grafoa; Jose Mari Cazaña, *Gudari* eta beste aldizkari batzuetako idazlea; Agustín Luna, Donostiako *Pueblo Vascokoa*; Julio Sarasua “Jul-Sar” idazle eibartarra; Leon Barrenetxea donostia-rra; Abasolo bilbotarra eta Augustin. Zortzi zeuden, bada, eta



Tarbes-eko gotzaingoarekin.

bederatzigarrena agertu arte ez zen kanjerik bideratuko. Basauri zen falta zena, *Lan Deiako* idazlea.

Basauri agertu zenean jakin zuten Zaragozako kazeta-riak, Bartzelonan preso zeudenak, zirela trukerako ordezkariak. Beraz, 1939ko urtarrilaren 4an, bederatzi lagunak, zeuka-ten apurra hala-hola batu eta aldean hartzeko esanda, autobus batean Irungo zubira gerturatu zituzten. Beste aldera pasatzen lagundu zien zaindariak arretea onez eta gizonki agurtu zituen. Eta momentu berean, Bartzelona aldetik zetozen beste bedera-tziek muga igaro zuten.

Trukearen ondoren, bederatzi lagunak Hendaian bizi izan ziren Bartzelonatik jarritako telegrama bati esker. Tele-gramak zioenez, euskal kazetariak hilabete baimena zuten. Noski, baimen hura Bartzelonan geldi egoteko zen. Baina hamabost egunen buruan Katalunia galdu egin zenez, polizia frantsesak euskal kazetarien ardura beren gain hartu zuen.



Hendaiatik, bada, Ziburura eta handik gero Tarbes-era egin behar izan zuten Augustin eta lagunek. Han, lotsatu egin ziren frantsesak gerran eta eurak ezer egin gabe egoten eta Lannemezan-eko tren geltokian hartu zuten lana, bagoiak elkartu eta lotzen. Jan eta lo bagoietan egiten zuten, halamoduzko bizimodua eginez.

Zeregin hark, gutxienez, diru mordoak poltsikoratzeko aukera eman zien.

### AZKEN TXANPA

1941ean, Tarbesen, oraindik baimenaren zain zeudela, alemanak sartu ziren hirian eta baita di-da batean hiri osoa hartu ere. Nongoak ziren galdetu zieten Augustini eta lagunei; euskaldunak zirela aitortu zutenei lanean jarraitzeko agindua eman zieten eta espainolak zirela erantzun zutenak, kontzentrazio zelaietara bidali zituzten.

Azkenean, etxerako baimena lortu zuen Augustinek. Baina bidean hasi eta... topo. Alemanek utzi ez Irun aldera joaten. Beraz, irtenbide bakarra, Bartzelona aldera jotzea zen. Askea izan arren, Augustinen nahia Espainiarantza hurbiltzea zen; baimenarekin pozik, beraz, handik etxera joango zela amestuz: *"Beti be borondate on eta andiko tonto lapiko ni"*.

Mugan, ostera, kanjeatua izan zela eta askea zela esan arren, Figueras-eko gaztelura, penalera, bidali zuten.

Baina handik Reusera, Reusetik Madrilera, Madriletik Andaluziara, eta, azkenik, Algecirasera egin zuen bide. Algecirasen zegoela, etxeratzeko jada ez zitzaiola asko geratzen uste izanda, maleta Ondarroara fakturatu zuen.

Maletak, berriz, askoz lehenago helduko ziren etxera Augustin bera baino, zeren eta Gibraltarretik Algecirasera bidali bai-

tzuten eta berriro, pikotxa eta pala eskuetan hartuta, "batallón disciplinario" 54 zenbakidunean lanean jardun behar izan baitzuen. Hala ere, Augustin ikasia zelako, sarjentuak berari eskolak ematera gonbidatu zuen, bazkari eta afari on baten truke. Garai hartan Augustin ez zen oso jatuna eta, gainera, lagunengandik aparte ibiltzeak nahigabea sortzen zion; lagunek, ordea, aukera hura ez galtzeko eta, platerean jartzen ziotena lasai asko sabeleratzeko baimena eman zioten; eta berak, ordu onean, kasu egin.

Algecirasen beldurrak harrapatu zituen presoak eta baita Augustin bera ere: presoak, han-hemen, hilda agertzen hasi baitziren, zikinaren zikinez gaixoak harrapatuta. Heriotza sunda hark biziki artegatu zuen Augustin eta garbiketak egitera ibaira joateko baimena lortu zuen. Aldarte hartan bete zituen Algecirasen 4 hilabete eta 21 egun gehiago.

Eta azkenean bai. Azkenean, etxera bueltatzeko baimena eskuratu zuen. Hala ere, eta azken egunean ere zerbait gertatu behar zelako, egun hartan "estretxuko" ekaitza zela-eta ez zuen ateratzerik izan baina bai biharamunean: hurrengo egunean, Gibraltarretik Kantauri itsasoa ikusi arte, Donostiatik Debara eta Debatik Ondarroara, arazorik gabe egin zuen bidaia.

Halaxe bukatu zuen Augustinek 36ko gerratea 1941ean. Bi egunerako etxetik aldentzen zelakoan eta lau urte kanpoan ibilita.

## **BIZITZA BERRIA HASTEN (1942-1955)**

Ezer ez zen berdin. Iraganean ibilitako bideak atzean gelditu ziren. Augustinek gerra aurrean euskal kulturaren hartutako abiada indartsua etenda gelditu zen guztiz. Eta Ondarroako kaleen eta euskal kulturaren espaloiek ere beste kolore bat zuten.

Joanak joan, hala ere, sutako hauspeak lehengo txingarra oraindik gori izaki, tipi-tapa, bizitza berri bati ekin behar izan zion Augustinek.

Lehenengo egitekoa bizimodua antolatzea izan zen. Hasteko, ogibidea aurkitu zuen Mutrikuko Arruti kontserbalantegian bulegari gisa. Orduan berak asko uste izan ez arren, berrogei urte emango zituen lan hartan, Ondarroatik Mutrikura eta Mutrikutik Ondarroarako bidea, ez behin eta ez bitan, oinez eginez.

Aldi berean, Bilboko garaietan begiz jotako Maria Jesus Erkiaga Aldamizetikiko harremana berrartu zuen. Eakoa zen andregai eta ahal zuenero, oinezko bidea eginik eskainiko zion bisita Augustinek.





Augustin eta Maria Jesus beren sei seme-alabekin.

Halaxe, 1942ko urriaren 17an ezkondu eta sei seme-alabako familia ugaria sortu zuten: Jose Augustin (1943), Joan Anton (1945), Alejandro (1947), Beatriz (1950), Maria Jesus (1953) eta Jabier (1956).

Emazteak janari-denda hartu zuen Ondarroan eta Augustinek eramango zituen dendako kontuak. Denda, juxtu, Zubi Berriaren oinean kokatzen zen, Augustin jaiotako etxetik 25 metrora; eta senar-emazte gazteak dendaren gaineko pisuan jarriz ziren bizitzen.

## GERRA OSTEKO GIROA

Gerra ostean, euskal usaineko edozein ekintzearen aurkako jazarpena egundokoa izan zen. Erlijiosoak eta apaizak izan ziren, euren ardurapean zituzten aldizkarien eta parroketako ekintzen bidez, diktadurak jositako sarea apur bat urratzen eta bide berriak egiten lehenak, beren xumean. Aldizkari hauetan euskal gaietarako buruzko lanak eta euskaraz idatzitakoak argitaratzen ziren, eta baita lan literarioak, olerki eta antzerkiak ere. Bide apal hauetan eman zituen gerra osteko lehen urratsak, bada, Augustinek, berriro bere luma trebatzeko: antzerkia idatziz, aldizkari ezberdinetan parte hartuz eta baita literatur lehiaketa edo sariketara lanak bidaliz.

1945ean, Francoren hirugarren gobernua edo “Autarkia-aren gobernua” deiturikoa osatu zen uztailaren 18an. Debeku bat bestearen atzetik ezagutuko zuen euskal kulturak: itsasontziei euskal izenak jartzea, aldizkarietan euskaraz idaztea, ikastetxeetan euskara erabiltzea... guzti-guztia debekatuta gelditzen da.

Gerra osteko lehen literatur lanak erbestean idatzi eta argitaratu ziren, guztiz debekatuta baitzeuden Espainian. Hauen artean aipagarri dira, bai Irazustaren *Joanixio* eta bai Monzonen *Urrundik* ere. Bi idazleok ezaugarri amankomun bat zuten: biak ala biak izan ziren EAJko diputatu Madrileko legebiltzarrean Errepublikara garaian. Politikaren mugez jabetuta, literaturara jo zuten biek eta hurbilketa honi esker, politikariak literaturaren heltzeko indarrak eta eragin ahalmenak ohartu ziren. Jauzi nabarmena izan zen hau.

1946an, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* sortu zen eta 1947-1948 urte bitartean, hemen ere, poliki-poliki, pauso txiki berriak eman ziren: Aranzadi Zien-

tzia Elkartearen sortu, Eusko Jaurlaritzak OPE (Oficina de Prensa de Euskadi) buletin argitaratu, Federiko Krutwig euskaltzain oso izendatu eta honek sarrera-hitzaldia euskaraz egin zuen, eta Eusko Ikaskuntzaren VII. Biltzarra antolatu zen.

### GERRA OSTEKO LEHEN LITERATUR SARIA

Gerra osteko lehen urteetan, Augustinek, batez ere, antzerkia idazteari ekin zion. Bere helburua bikoitza zen: bate-tik, gerra aurreko jarduna berrartzea, herritarrei antzezlanen bidez euskal gogoia pizteko eta galdutako nortasuna berregiteko, eta bestetik, euskara bultzatzea.

Euskal antzerkigintzak, bestalde, aitzindarietariko bat galdu berri zuen: 1941ean Toribio Altzaga hil zen eta 1944an Barriola. Beranduago berrireki zen Donostiako Deklamazio Eskola, M<sup>a</sup> Dolores Agirrerren eskutik.

Genero honen aldeko hautu garbia egin zuen Augustinek; bere ustez, oraindik goi mailako literaturara ohitu gabe zegoen herriarengana heltzeko modurik onena eta zuzenena zen. Augustinentzat, Ondarroa begitaratean, herri txikietak euskaldunen jakintza-maila jasotzea zen helburu nagusietariko. Eta horretarako, korapilo handirik gabeko tramak, pertsonaia lauak eta herri hizkera erabiliko zituen; hauexek izango zirelarik Augustinen gerra osteko lehen aldi honetako antzezlanen ezaugarri nagusiak.

Bestalde, garaiko debeku, zentsura eta argitaratzeko zailtasunei aurre egin ahal izateko, literatur lehiaketetan ikusi zuen Augustinek irtenbidea. Lehiaketetan saritua izateak, obra ezagutaraztea eta argitaratzea zekarren.

1949an, bada, Augustinek, Miarrizteko Lore Jokoak irabazi zituen *Itxasora* antzezlanarekin. Hauxe izango zen gerra osteko

lehen literatur lan saritua, baina ez bakarra, eta are gutxiago azkena.

### LOZORROAN ZEGOEN HERRIAREN SUSPERTZEA

1950. urtea esanguratsua izan zen euskal idazleentzat. Espainiako Gerra Zibilaren ondoko urteetan, euskaltzain askok erbesterratu beharra izan zuten, Euskaltzaindia erabat motel-duta geratu zen; Federiko Krutwig-en ekimenez, alabaina, 50eko hamarkadaren hasieran, euskararen akademia suspertzten hasi zen berriro. Alfontso Irigoienek bidez Akademiak antolatutako bertsolari-jaialdiak eta txapelketak izan ziren ber-pizte honen adibide, zeinetara, Augustin bezala, garaiko idazle gehientsuenak biltzen ziren.

Urte honetan, baita ere, Orixek, nahiz eta gerra aurretik idatzitakoa izan, garai bat itxi eta beste bat irekiko zuen obra zekarren: *Euskaldunak* epopeia. Obra honek proiektio nazionala zuela aldarrikatu zen publikoki. Lizardik obra hau “klasikoa” izango zela aurreratu zuen: “larreko zaina eta klasikotasunean jantzia”. Eta bi osagai hauen arteko uztarketatik sortuko zen Euskal Herriak behar zuen obra handia; herria lozorrotik iratzarriko zuena.

Industrializazioan sartu gabeko mundua zen Orixek zekarrena. Desagertzen ari zen Euskal Herria erakusteko aitzakia; inoiz zoriontsu izan zela sinistu nahi zuen herriarentzat idatzitako maitasun istorioa.

Obra honek, euskal idazleen arteko banaketa iragarri zuen: lozorroan zegoen Euskal Herria suspertzeko, idazleek, bide ezberdinak hartuko zituzten, bai Euskal Herriaren irudia konposatzerakoan (kostunbrista batzuek, modernoak besteek),



bai hizkuntzaren erabilerari dagokionean (euskara jaso batzuek, euskara herrikoia, besteek).

### HERRIKO JAKINGAIK EUSKARAZ

Urte berean, bada, 1950ean, Ondarroan, *Boga-boga* aldizkaria sortu zen elizaren babespean. Augustin argitalpen hone-tako kolaboratzailea izango zen. Doan banatzen zen herriko etxe guztietara eta herriko jakingaiak herritarrei helaraztea zuen helburua. 1950ean sortu arren, hiru urtez agertu gabe egon zen, isilean, alkatearen debekuz.

Augustinek berak jakitera emango zuenez, *Boga-boga* agertu zen urtean, Ondarroan 300 etxebizitza behar zirela jakitera eman edo salatu zuten aldizkarian. Herriaren onagatik lan egitera behartuta zeudenentzako deia izan omen zen: beste gora-behera batzuei baino hutsune horri arduraz gehiagoz erantzuteko eskatzen zitzairen; bizileku askotan hiru familia elkarren gainean bizi zirelako.

Albiste hura zela eta, alkatea haserretu eta betoa jarri zion aldizkariari eta alkatetza aldatu arte, 1953 arte, beraz, ez zen ale bat gehiago argitaratzerik izan. Halaxe joan ziren hiru urte mutu: “*Orrelakoxe eskubidea artzen eban agintaririk txikiak be, eurei azaleko ukitu bat egin ordurako*”, salatuko zuen Augustinek.

Gerora ere, berriro argitaratzen hasi zenean, ez zen zirikadarik falta izan udal gobernuan zeudenen eta aldizkariko kolaboratzaileen artean.

Augustinek, politikaren gehiegizko eragina betidanik eta beti gaitzetsiko zuen. Politikagatik egiten ziren bidegabekeriak beti izango zituen salatzeko, bai agintarien eta bai alderdien aldetikoak. Beretzako, egin beharrekoak ziren oinarri eta hel-

buru: euskara bultzatzea eta herriak eta gazteak alfabetatzea. Eta herria minduko zuten albisteak zabaltzen ibiltzea edota jokabide askori fede ilun itxura ematen ibiltzea, denbora galtzea eta bidea atzerantz egitea zen.

### ONDARROAKO HERRIA: AUGUSTINEN ABIAPUNTUA ETA HELBURUA

Augustinek egingo zuen ibilbidea eta ibilbidearen arrazoia ezin zen ulertu Ondarroa gabe. Onerako zein txarrerako. Augustin bere jaioterriari lotuta zegoen eta, hein batean, Ondarroak egin zuen Augustin. Ondarroa bezalako herri euskaldun batean, Augustinek euskararen alde egiteko indarra batu eta aurkitu zuen, gerora antzerkigintzan ikusiko zen bezala. Bestalde, Ondarroa bezalako herri sutsu batean, Euskal Herriak biziko zuen ten politikoaren neurria bete-betean ezagutuko zuen idazleak.

### ARANTZA ARTEKO LOREAK

1950-1955 garaiko frankismoak ezarritako isiltasunari ihes egiteko euskal idazleek bi agerkari baizik ez zituzten: bata, Euskal Herriaren Adiskideak elkarteak, Donostian, 1948az geroztik argitaratzen zuen *Egan* aldizkaria; eta bestea, itsaso handiaz bestaldean, Jokin Zaitetik 1950ean Guatemalan argitara emango zuen *Euzko Gogo*. Augustinek *Egan*en aurkituko zuen gerra osteko bere lanen argitalpen modua.

*Euzko Gogo*aren inguruan, “Guatemala-ko belaunaldia” deituko zen 70 idazle bildu ziren: Txillardegi, Juan San Martin, Jon Etxaide, Federiko Krutwig, Gabriel Aresti, Txomin Peillen eta Jon Mirande, besteak beste. *Egan*ek, ordea, aurrea hartu zion modernotasunean *Euzko Gogo*ari eta, *Euzko Gogo* utzi eta

*Eganen* idazten hasiko ziren gehientsuenak. Ideologia ezberdinetakoak ziren denak eta, asko, bigarren hizkuntzaren hautua egin izanak, euskaldunberri izateak, alegia, batu zituen.

Bi aldizkarion inguruan mugimendu handia sortu zen, baita gainontzeko argitalpenetan ere. Augustinen lagun mina zen Aita Santi Onaindiak, besteak beste, *Milla Euskal Olerki Eder* argitaratzea erdietsi zuen, ordu arteko poesia antologiarik osatuena. Eta Jose Antonio Loidik *Hamabost egun Urgainen* plazaratu zuen, lehen euskal nobela poliziakoa.

Legedi itogarriaren muga barruan, beraz, zerbait egin zitekeen ustea indartuz zihoan.

Mugimendu handi eta ezberdinak politikagintzan ere. 1955ean, EAJk bultzatuta, EGI eta Ekin elkartu ziren eta bilkura hartatik sortuko zen “Euzko Gaztedi”, luzerako izango ez bazen ere. Alderdi bien arteko tirabira askoren ostean, Euzko Gaztedi utzi eta Euskadi Ta Askatasuna talde politiko berria sortuko zen.

Augustinen inguruan, Zubikarai familiaren adiskide handia izandako Rikardo Bastida arkitektoa hil zen 1953an. 1954an, Augustinen lagun Jose Antonio Arkotxa idazle mutrikuarrak *Antzerki ikasketa berezia* antzezlanaz plazaratu zuen eta, urte berean, Felix Beristarín pintore kostunbrista ondarrutarrak bere lehen erakustaldia egin zuen Eibarren.

Augustinen inguruan ere udaberriko kimu bakanak loratzen, beraz.

## AUGUSTINEN ANTZERKIGINTZAREN LORALDIA (1956-1964)

1956. urtean aro berri bat hasten du Augustinek. Bere etxe txikiena, Jabier, jaiotzen den urtean, *Seaska inguruan* antzezlanaz saritu zioten Donostian eta sari hauze izango zen, herriz herriko antzezpeneak egiten hastearekin batera, Augustinen gerra osteko antzerkigintza-lan eskergari hasiera emango zion abiapuntua, nahiz eta aurretiaz, Biarritzen *Itxasora* antzelana saritua izan.

Antzerkigintzaz gain, Augustin beste lan askori oratzen hasten zaio garai honetan: Pablo Gurrupide Bilboko gotzainak Ondarroako “Escuela de Pesca”-ko zuzendaritza-batzordekide izendatu zuen; *Boga-boga* aldizkariaren bigarren aldian, 1953tik 1965era bitartekoan, hitz lauz zein bertsoz eta olerkiz parte hartzen jarraitu zuen; eta herriko kultura zein erlijio-taldeetan buru-belarri sartu zen.

Lan eta konpromiso handiko urteak izan ziren hauek. Arrakasta ezagutu zuenekoak: bai Augustinek, bai Ondarroako herriak.

### SEASKA INGURUAN: GERRA OSTEKO LEHEN EUSKARAZKO ANTZERKIA ONDARROAN

36ko gerra osteko lehen euskarazko antzerkia 1956ko abenduaren 27an antzeztu zen Ondarroan: Donostian saritutako



Augustinen *Seaska inguruan* obra. Antzezlan hau *Egan* aldizkariak 1957ko 3-4 zenbakian argitaratuko zuen separata gisa.

Jesusen jaiotza oinarritzat harturik, sei irudi prestatu zituen Augustinek. Eta obra osoa antzeztua eta kantatua izango zen: bakarkako abeslari zein abesbatzak lagunduta abesteko eran prestatua.

Urte hauetako Augustinen antzerkigintzaren ezaugarrietako bat haxe izango zen, bada: antzezpenez gain, abestiz lagundutakoak izatea. Horretarako, herritar antzezlarietz gain, herriko hainbat musika taldek parte hartzen zuen: “Antiguako Ama Ume Abeslariak”, parrokiako abesbatzak (gizonezkoek osatua), Kresala abesbatzak (umeez eta gizonezkoek osatua hasiera batean, emakumezkoek ere bai gero), eta Boga-boga errondailak. 80 lagunetik gora, orotara.

Ondarroako kultur mugimendu hark “Grupos Artísticos de Ondarroa” (G.A.O.) izena hartu zuen eta izen horrekin jardungo zuten urte luzeetan, harik eta, 1965ko apirilaren 7an, Kresala Elkartea sortu zen arte.

1956ko abenduaren 27ko antzezlana, bada, Alameda zineman eta bi saiotan eskaini zen: arratsaldeko 18:30ean eta gaueko 22:00etan. Hain arrakasta handia lortu zuen, ezen biharamunean ere beste bi saio eskaini behar izan baitziren. Izan ere, lehen eguneko saio bietarako sarrerak bezperatik salgai jarri zituztenez, berehala agortu ziren eta biharamuneko errepikapena presaka iragarri behar izan zen.

Herria, euskarazko kultur agerpideen gose-egarri zen.

### **Baimenak eskatu behar**

Garai hartan, *Seaska inguruan* bezalako euskarazko ikuskizunak eskaintzeko, bi baimen eskatu behar izaten ziren: lehena,

“Delegación de Informacion y Turismo”-ko Bizkaiko Ordezkaritzak eskaini behar izaten zuen, ikuskizunaren testua eta abestien letrak baimentzeko. Eta, bigarrena, Gobernu Zibilak.

*Seaska inguruan* antzerkiaren testuak eta abestiek inolako eragozpenik gabe gaingitu zuten lehen hesia. Poliziaren baimena lortzeko orduan sortu ziren eragozpenak, alabaina. Izan ere, euskarazko antzerkiarekin batera, erdarazko bertsoia ere eskaintzea behartu zuen Poliziak. Bestela, ez omen zegoen baimenik.

Beste aukerarik ezean, eta euskarazko emanaldiarekin atzera egiteko asmorik ez zegoenez, arrapalada batean, “Gran Villancico Español” prestatu zuten Augustinek eta antzeztaldeak. Antzezlan musikatua zen hura ere, non, bakarlari moduan, “un Pastor castellano”, “un Pastor andaluz”, “un Pastor gallego” eta ijito batek kantatzen zuten. Ikustekoak izango ziren, benetan, ondarrutar euskaldun peto-petoak, andaluziar, gallegoz eta ijitoz mozorroturik, Ondarroako Alameda zinemako agertokian antzezten eta abesten!

Ondarroan emaniko antzerki saio guztietan eskaini behar izan zuten erdarazko gehigarri hau. Emanaldiak iragartzeko egin ziren iragarki xumeetan ere “*Seaska inguruan*” aipatzen zen, baina erdarazko itzulpena alboan zuela, “Junto a la cuna”, badaezpada ere.

### **Izerdiz lortutako emakumeen partaidetza**

*Seaska inguruan* antzezlanean arrakasta ikusita eta antzezlanean abestiak aprobetxatuta, pregoi bat prestatzea erabaki zuen GAOk. Kontzertu hura elizan antolatu ahal izateko, baimena eskatu zitzaion parrokoari. Parrokiako abesbatzako ume abeslari eta gizonezkoek ez ezik, Kresala Abesba-

tzako emakumeek ere parte hartuko zutela aditzera eman ziotenean, ordea, parrokoak, “gizonezkoekin batera” izango zela entzuteaz batera, buruko ileak tente tente jarri, eta Bilboko Gotzaindegia baimena “idatziz” ekartzera behartu zituen.

Garai hartan, Ondarroako parrokiako korua ume abeslariak eta gizonezkoek soilik osatzen zuten. Pregoi hura ez zela elizkizun bat adierazi zitzaion, kontzertu bat baizik. Baina hala ere, parrokoa berean. Bergarako San Pedro parrokiari Bergarako Orfeoak (emakumezko eta gizonezkoek osatua) urtero ematen zuten kontzertu ezaguna ere aipatu zioten, baina alferrik. Parrokoak bereari ten eta ten.

Baimenaren bila, azkenean, Bilboko Gotzaindegira joan behar izan zen. Eta, beste askotan bezala, Augustinek lortu zuen baimena, Gotzainarekin harremana zuelako.

Pregoi hura 1957ko apirilaren 14an eskaini zen, Erramu igandeko ilunabarrean. Jose Luis Ansorena apaizak, Donostiako Seminarioko irakasleak, egin zuen pregoia, euskaraz eta gaztelaniaz. Eta bertan aurreratu ziren, hurrengo urtean, *Jaunaren Bidetan* antzezlanean abestuko ziren abesti gehienak.

### JAUNAREN BIDEAN LAU AHOTSETARA

*Seaska inguruan* lanaren arrakastak bultzatuta, bide beretik abiatzea erabaki zuen Augustinek, hau da, antzezlanak antzerkia eta musika elkartzuta prestatzen jarraitzea.

Garai hartan tabernetan kantatzeko ohitura handia zegoen, eta Ondarroa herri musikazalea zen. Erraz hasten zen jendea, nonahi, kantuan. Augustinek bazekien, musikarekin, antzezlanaren taularatzeak irabazi egiten zuela; eta antzezleei, kantatzea, ia-ia berez aterako zitzaie.

Jesusen Nekaldia eta Heriotza oinarritzat harturik, beraz, antzezlan berria prestatu zuen Augustinek 1958ko Aste Santurako. Gai erlijiosoa honakoan ere. Ondarroako Parrokian, besalde, Aste Santuko elizkizunetan lau ahotsetara hainbat pieza kantatzen ziren eta pieza horiez baliatu ahal izan zuen Augustinek bere antzezlanean sartzeko. Horietaz gain, Kresala Abesbatzarekin prestatutako J.S. Bach-en “San Mateoren Pasioa” eta Haendel-en “Mesias” ere eskaini zuten.

Antzele paperean herriko neska-mutilek parte hartu zuten. Jesukristorena Agustin Bengoetxea gazteak egin zuen, arrain garraioan aritzen zen txoferra bera. Gaur egun, oraindik, herri-tar askok “Jesukristo” bezala ezagutzen du, antzezlan hartan irabazitako “izar” izenez.



Jaunaren Bidetan antzezlanaren “Erramu artean” atala.



*Jaunaren bidetan* 1958ko apirilaren 2an, 4an eta 5ean eskaini zen Ondarroan lehen aldiz: asteazken, ostiral eta larunbat santuan. Gero, urte berean, Gasteizko Principal antzokian, Bilboko Arriagan eta Deban, Markinan, Lekeition, Ermuan, Plazentzian, Elgoibarren, Eibarrren, Urretxun eta Arrasaten errepikatuko zen.

### ZUZENDARITZA ETA IKASTE-SAIOAK

Antzerkiak Augustinek zuzentzen zituen baina bazuen laguntzaile fin bat: Jose Antonio Arkotxa “Atxukale” mutrikuarra. “Atxukale”, zuzendaritza lanetan aritzeaz gain, antzezle fina ere bazen, eta Mutrikutik, behar zenean, beste 16 gizonezkoekin batera hurbiltzen zen proba-saioretara.

Proba-saioak, antzezleek eta abeslariak, herriko eskoletan egiten zituzten; antzezleenak Arrantza Eskola zaharrea, eta abesbatzarenak On Sekundinoren eskolan, eraikinaren lehen solairuan. Proba-saio guztiak gaueko 22:00etan izaten ziren.

Antzezleek eta abesbatzak bakoitzak bere lana ikasten zuenean, ikaste-saio orokor bat bakarria egiten zen Alameda zineman. Ez zen erraza izaten aretoaz baliatzea, egunero, jai eta astegun, bi zinema-saio eskaintzen zirelako. Lehen entsegu orokor hari buruz hitz egiteko, antzezleek eta abeslariak “*gaur lelen goa*” esaten zuten, nahiz eta bakarria izan.

Zinema aretoaren jabea sarrera osoaren % 40arekin gelditzen zen; % 60a zen, beraz, antzezleentzako. Kontuan izanik, % 60 hura ia 100 lagunaren artean banatu behar zela, hutseko batekin gelditzen ziren partaideak.

Ez zen dirua antzezleak mugiarazten zituen arrazoia.

### Agertokia eta arropak

Dekoratuak herriko Arenoza anaiek prestatzen zituzten, paper gogorrean. Eta antzezleentzako jantziak elizatik jasotzen. Horretarako, Augustinek On Pedro Arakama parrokoarekin zuen harreman zuzenez baliatzen ziren.

Ondarroako antzokiak bazeukan bere agertokia, baina filmak emateko egokitua. Atzealdean, pelikulak proiektatzeko pantaila handi bat zeukan. Pantaila hura estali egiten zen antzerkirako dekoratuarekin eta antzezleek pantailaren eta dekoratuaren artean uzten zen tartetik igaro behar izaten zuten; zinema jabea gainean izango zuen, beti, abesbatzak, kezkatu, pantaila zaindu ezinik.

Abesbatza, ostera, agertokiaren aurrean kokatzen zen “foso” antzeko batean sartuta; inoiz agertokian bertan ere bai: batzuk banbalina artean sartzen ziren eta besteak kalerako atean. Apuntadoreak ere, normalean, “kontxa” gabe lan egin behar izaten zuten, bera ere banbalina artean gordeta.

Baldintza kaskar haietan emanaldiak eskaintzen ohitutako antzezle eta abeslariak bestelako gozamina izan zuten Donostiako Victoria Eugenia, Bilboko Arriagan, Gasteizko Principalen, edo Eibarko Amayan antzeztea egokitu zitzaizkion.

### Irteerak

Herrietarako irteerak autobusez egiten zituzten. Afaria ordaintzeko lain ez zuten ateratzen, kide bakoitzari ogitartekoa eta tragoxka bat egiteko adina diru banatzen zion “ekonomiaz” arduratzen zenak. Hori bai, umorea eta alaitasuna ez zen falta izaten, nahiz eta batzuetan ordu txikietan itzuli etxera.

Antzerkirako materiala eta dekoratuak garraiatzeko orduan, “komeriak” izaten zituzten, ordea. Ezaguna zen herrian Gaizka

Urrestiren “arrautzera”, arrautzak garraiatzeko erabiltzen zuen furgoneta. Han eramaten ziren dekoratuak, eta herritarrek eurek egiten zituzten montaketak.

### **KRESALETAN**

1961ean, Augustinek, Txomin Agirreren omenez, *Kresaletan* antzezlan idatzi zuen. Idazleak bere maisuarekiko sentitzen zuen zor eta miresmena erakusteko modurik sortzaile eta zintzoena izan zen hura. Txomin Agirreren *Kresala* eleberria hartu eta antzezteko moldatu zuen Augustinek; sarrera gisa, aldez aurretik prestatuta zeukan “Ondarroako mamuak” antzezlan laburra gehitu zion, nahiz eta *Kresala* liburuarekin loturarik ez izan. Hori dela eta, antzezlan osoa ez zegoelako *Kresala* eleberrian oinarritua, antzezlanari *Kresaletan* izena jarri zion.

Antzezlan honentzat, Gregorio Solabarrietak, Ondarroako seme eta garai hartan Miranda de Ebroko abesbatzaren sortzaile eta zuzendaria zenak, propio prestatu zuen musika.

Esan bezala, 1961eko urtarrilaren 17tik 21era eskaini zen Ondarroan. Saio batean Bilboko Orkestrak lagunduta eta Gregorio Solabarrietak berak zuzenduta.

Luzaroan, ospakizun ezberdinetarako erabilitako antzezlan eta toki askotan eskainitako obra izan zen; besteak beste, Bilboko Arriagan edota Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

### **Egitura**

Zazpi atalez osatuta dago *Kresaletan* obra: Kortxeleko mamuei (Ondarroako eliza nagusiaren goialdean dauden harrizko irudiak; herria zaintzen zuten mamuak direla esan ohi da) eskaini-



*Kresaletan* obran bakarlariak abesten.



tako sarrera-atala eta beste sei: “Ekaitza”, “Gure gazteak”, “Kitolis”, “Alkarren aurrean”, “Alderdi argaletik” eta “Itxasora”.

Marinel herri bateko, Ondarroako, estanpa edo irudi ezberdinak dira bertan agertzen direnak: ohitura eta sinismen alderdiari dagozkionak, batetik, eta marinel bizitzari dagokion garraztasuna eta bizitzaren krudela, bestetik.

Atal bakoitzak gai bati erantzuten diola esan liteke: ekaitz txarraren ondorioz itsasoan galdutako txalupa, emakumeen larritasuna, itsasoan semea galdu duten gurasoen lanturua, elkar maite duten gazteen amodio ezinezkoa, edo Ameriketatik aberastuta etorritako Indianoaren eragina izango dira, besteak beste, estanpa nagusiak.

### **Irudia, soinua eta hitza**

Obra honen bidez, Ondarroa, Ondarroako hizkera, Ondarroako biziera eta Ondarroako sinismen eta ohiturak ezagutzera eman nahi dira. Augustin Ondarroaz maiteminduta dago; Ondarroa ezagutzera eman beharra dauka; Ondarroako herri hizkera aberatsa hedatu nahi du eta Ondarroako ahotsei esker antzezlan jantzi eta profesionalen tankerako taularatzea egitea lortuko du.

Inpresio bat eman nahi du Augustinek, ikus-entzulearengan ezagutza eta sentimendu bat gera dadin. Ondarroaren garaiko argazki bat da idazleak eskaintzen duena: ohiturazko erretratua.

Gregorio Solabarrietaren musikaz lagunduta, itsas herri honen ezaugarriak ezagutaraziko ditu Augustinek: zuzentasuna, herri ohiturekiko mira, maitasuna ondasuna baino garrantzitsuagoa dela, eta bizitza gordinaren aurrean aurrera egitea dela erronka, Ondarroako herriak betidanik egiten jakin duen bezala.



*Kresaletan obran tertzak askatzen.*



*Kresaletan obran korua kantatzen.*

**Hizkera**

Euskara bizia da Augustinek antzezleen ahotan jarriko duena; esaldi laburrak eta indartsuak, esamolde aberatsak eta jatorrizkoak.

Pertsonaiak amaigabeko elkarrizketen bidez emango dira ezagutzera eta kalekoa da erabiliko duten bai hizkera eta bai bizimoldea.

Euskal musikak eta dantzek girotzen dituzte atalen arteko geldiuoneak eta elkarrizketa asko musikatuak dira. Hau da, obrak, opereta bat izango balitz bezala, hitz musikatuaren bidez egiten du aurrera. Errima gozoz baliatzen da Augustin ikus-entzuleek antzezlaren argumentuari dagokion haria hobeto eta lasterrago barneratzeko.

**AUGUSTINEN ANTZERKIGINTZAREN GAIAK**

Augustinek antzezlantetan erabiltzen dituen gaiak zehazten dute haren obraren izaera: garaiko zentsura politikoak (erregimen frankistaren ondorio) eta zentsura moralak (kultura katolikoak ezarria) zedarritzen dutena. Tematika gisa, estampa biblikoak, eguneroko bizitzaren gorabeherak eta bizitza tradizionala erabiliko ditu, hau da, baserri zein arrantzale bizimoldeetan oinarrituak. Augustinen obrari, oro har, garaiko giroari zegokion bezala, halako pesimismo kutsu bat nabari zaio, bizitzari buruzko ikuspegi garratz bezain iluna eskaintzen duena.

Gerra aurreko garaikoak dira bere obran txertatuko dituen gaiak: horixe delako gehien ezagutzen duena, eta egoera politikoak ez duelako bestelako gairik lantzeko aukerarik eskaintzen. Sei izango dira, bada, nagusiki, Augustinek erabiliko dituen gaiak: dirua, gosea, heriotza, sexua, gerra eta askatasuna.

**EUSKALTZAIN URGAZLE**

1961ean, antzerkigintzan egindako lan oparoa kontuan hartuta, Euskaltzaindiak Augustin euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Gogo onez hartu zuen izendapena Augustinek eta lanerako izango zela promes egin zuen.

Hala ere, laster agertuko zituen desadostasunak, bidean zetorren euskara batua zela eta.

**TXILLARDEGI, ARESTI, KRUTWIG ETA OTEIZAREN AHOTSAK**

1963an, Augustinen *Iru alaba* antzezlana Toribio Alzaga saria jaso zuen eta Erreterian taularatu zen.

Augustinek, gerra ostean ezarritako ildoari leialtasunez jarraitzen zion, lan eta lan. Baina egoera soziopolitikoak aldatuz zihoan eta euskal gizartearen beharrak ere bai: ideologikoak, kulturalak eta estetikoak.

60ko hamarkadaren hasieran, euskal literatura bide berriak urratzen hasia zen: Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua* idatzia zuen (1957). Nobela goibela iruditu zitzaion askori baina egileak eta orobat kritikak “garaikotzat” bataiatu zuten. Leturiaren lehen pertsonako jardunak eta giro urbanoa aukeratu izanak mugari berri bat jarri zioten euskal nobelagintzari. Galdutako urteak presaka berreskuratu nahi zituen euskal modernitatearen aitzindari bilakatuko zen Txillardegi; gogoeta unibertsekin egin zuen topo eta ordu arte zapaldu gabeko bideak deskubierazi zizkion euskal literaturari: berrikuntza, tonuan baino areago, Txillardegik agertzen zuen iruditerian zegoen.

1959an, Gabriel Arestik *Maldan Behera* argitaratu zuen. Eta 1960an, Augustin *Karmel* aldizkarian idazten hasi zenean, Basarrik, gerra osteko lehen Bertsolari Txapelketa irabazi zuen.



1959-1963 urte tartekak mugimendu handikoak izan ziren bai politikagintzan, bai literaturan. Gabriel Arestiren lanez gain, Federiko Krutwig-ek *Vasconia* (1963) eta Oteizak *Quosque Tandem* (1963) liburuak argitaratu zituzten. Oteizaren liburuak argitaratu eta berehala agortu zen lehen edizioa eta eztabaida gogorrak sortu zituen hizpidera ateratako toki orotan.

Oteizarentzat Zuloaga eibartarra ez zen “euskal” margolaria, Velazquez, ostera, bai; Unamuno ez zen “euskal” idazlea, eta Baroja bai; Loiolako Inazio ez zen “euskal” santua...

Euskaldun oro bekaiztu zitzaion Oteizari. Berak “euskal” zioenean, mundua interpretatzeko era estetikoaz ari baitzen, ez hizkuntzaz. Estetikaz ari zelarik, euskara jakin gabe euskaraz hitz egitea posible zela argudiatu zuen.

Eta 1964an Gabriel Arestik *Harri eta Herri* idazten du, lehenbiziko aldiz poesia poesiari buruz hausnarretan jartzen duelarik. Euskal Herriaren dimentsio urbanoa hartu zuen, garbi-mor-doilo antinomia gainditu zuen hizkera herrikoi eta aldi berean jaso bat proposatuz eta aurreiritzi klerikaletatik libro ageri zen.

Gabriel Arestik, Federiko Krutwig-ek eta Oteizak, euskal arimaren interpretazio saio berri bat egin zuten eta belaunaldi gaztearen erreferentzia garrantzitsuenetarikoak bilakatuko ziren.

Augustin ez zen errealitate honi bizkar emanda bizi; baina argi zegoen gerra aurreko eta gerra osteko idazleen Euskal Herria egiteko moduak bereiziz zihoazela, ezinbestean.

## LORE JOKOAK ONDARROAN

1964an, Txomin Agirrerren jaiotzaren mendeurrenaren harira, Augustinek Lore Jokoak antolatu zituen Ondarroan. Programa oparoa prestatu eta kultura arloko arduradunak zein idazle eta Euskaltzaindiako kide asko erakartzea lortu zuen.

Lore joko hauetan Augustinen *Mariñelak* antzezlanak eskaini zen lehenengo aldiz eta *Kresaletan* obra errepikatu Celestino Arriola ikastetxearen jolastokian.

*Mariñelak* antzezlanak Lore Jokoen aurretik zuen prestatua Augustinek eta Lore Jokoak profitatu zituen, Euskal Herriko musika egileei obra honentzako musika idaztea eskaintzeko. Tamalez, musika egile batek bakarrik aurkeztu zuen bere lana: Jose Maria Altuna azpeitiarrak. Lore Jokoetako epaimahaiak ez zuen saritu, saria eman gabe geratu zen, baina Altunaren lanak fruiturik emango zuen.

## Kresala elkartearen sorrera

GAO taldeak, 1964an, “*Kresala*” izena hartu zuen: “Sociedad Recreativa Cultural *Kresala*”, legearen arabera onartutako elkarte berria. Eta elkarte berriaren baitan, berehala, aldaketa nahia nabaritzen hasi zen: antzerkia egiteko modu berri baten beharra sumatzen zen batetik, eta antzerkiaren gain, kultur eskaintza zabalagoa lantzeko gogoia, bestetik.

Politikagintzan eta literaturan nabari zen norabide berri-rako txinparta berberak bultzatu zuen G.A.O. ere bide berriak irekitzera.

Kresala elkarteak, bada, oharturik Jose Mari Altunak egin zuen lan eskergaz, Augustinen *Mariñelak* antzezlanak Altunaren musikarekin uztartu eta taularatzea erabaki zuen. Eta horrela egin ere, gerora, 1968ko urtarrilean, bost egunetako emanaldietan, Ondarroan bertan, Alameda aretoan. Eta, ondotik, Euskal Herriko antzoki nagusienetan.

## Txomin Agirrerren gutun argitaragabea

Txomin Agirrerren omenezko Lore Jokoak antolatzeke, Augustinek hainbat eta hainbat kultur ekitaldi antolatu zituen.

Eta horien artean, aipagarrienetako, *Boga-boga* aldizkariaren ale berezia prestatzea izan zen. Ale horretan bi gai nagusi eman zituen argitara Augustinek: batetik, Txomin Agirrek 1907an Azkueri idatzitako gutun argitarabea eta, bestetik, aldizkarian parte hartzera gonbidatutako idazleek Txomin Agirrereren figurari buruz idatziko zutena.

Aipatu gutunean, Txomin Agirrek Azkueri *Kresala* liburuan erabilitako hainbat hitzen berri ematen zion. Azkuek, aurretiaz, Txomin Agirrerri agerrarazi baitzion liburu hartako hainbat hitz ez zituela gogoko eta honek, erantzun gisa, aipatu hitzen gaineko argitasunak eman zizkion.

Augustinentzat idatzi honek balio paregabea zuen, berak Txomin Agirre miresten zuelako eta obra erreferente bat izateaz gain, *Kresalan* Agirrek zerabilen hiztegia oso aberatsa zelako. Eta ez horregatik bakarrik: baita ere, Azkueri idatzitako gutun horretan Txomin Agirrek argiro erakusten zuelako berea zena, inolako damurik gabe defendatzen zekiela.

Augustinek, autorea, obra eta adorea mirestuko zituen Txomin Agirrerengan. Berak ere bide beretik jarraitzeko.

### ***Boga-bogaren ale berezia***

Txomin Agirrek Azkueri idatzitako gutuna argitaratzeaz gain, Augustinek hainbat eta hainbat idazleri idatzi zien, Lore Jokoetan parte hartzera gonbidatuz eta *Boga-boga* aldizkarirako Txomin Agirrereren inguruan lerro batzuk idazteko eskatuz. Gonbidatuak, besteak beste, honakoak izan ziren: Gabriel Aresti, On Antonio Arrue, Angel Irigaray, Juan Gorostiaga, On Manuel Lekuona, Jose M. Lojendio, Antonio M. Labaien, Koldo Mitxelena, Aita Santi Onaindia, Justo M. Mokoroa, G. Manterola, Benantzio Larrarte, Iratzeder, Antonio Zavala, Juan San Martin,

Anai Berriotxoak, Balendin Enbeita, Xabier Gereño, Eusebio Erkiaga, Markos Amundarain, J.M. Satrustegi...

Erantzun zaparrada jasoko zuen Augustinek, bai Lore Jokoetarako eta bai haratago ere: Gabriel Arestirekin, adibidez, marmitakoa jateko gelditu zen, euren arteko lanei buruz hitz egiten jarraitzeko; Antonio Maria Labaienekin, elkari antzezlanak pasatzen zizkieten eta, beraz, horien gaineko iritzia trukatzeko profitatu zuen; Koldo Mitxelena, hizkuntzalari-tzako gaiak zirela-eta, behin baino gehiagotan gonbidatuko zuen Augustinek etxera bazkaltzera, eta honakoan ere, ez zuten eskuartean zituzten lanen gainean hitz egiteko parada baztertu; Aita Santi Onaindiak, Augustinek *Boga-bogarako* lana eskatzen dionean, lan bat bidaltzen dio Augustini, honen iritzia jasotzeko, *Gure bertsolariak* liburua prestatzen dabilela aurreratzen diolarik. Bide batez, Bizkaiko bertsolarien berri emateko eskatzen dio eta Larreako bilerarako beharko lukeela erregutzen; Anai Berriotxoak, aldiz, Ondarroan egingo zen Lore Jokoen inguruko festan Euskaltzaindikoaren argazki bat atera beharko luketela proposatu zion...

Idazleek, ohi bezala, festa edo topaketa hauek euren arteko lanak trukatzeko eta nork bere argitalpenetarako "zorrak" kitatzeko erabiltzen zituzten, edota nork bere lanetarako laguntza eskatzeko. Xabier Gereñok, ostera, berrikuntza bat zekarkion Augustini: "ezer berririk" zeukanean, idatzi eta Radio Popularera bidaltzeko eskaintza-eskabidea egin zion; Augustinentzat, eskabide hura, argigarria izango zen guztiz. Euskal gaiak irrti bidez hedarazteko aukera ikusi zuen, leiho paregabea euskal entzuleengana heltzeko.

Urte batzuk beranduago praktikan jarriko zuena.



**Antonio M. Labaienen zorion-agurra**

Harremanetan jarritako idazle guztiengandik jaso zuen zorion-agurra Augustinek Lore Joko haiek antolatzeagatik. Garaiko egunkarietan ere biziki eta aho batez goratu zuten. Eta euskal antzerkigintzaren maisu gorenetakoa zen Antonio Maria Labaienek, *Agur* aldizkarian, Augustin euskal antzerkiaren autoririk ospetsuena zela aitortu zuen.

Aitortza honen eta Lore Jokoen harira, garai hartan esku artean zituzten Brecht eta Shakespeareren gaineko obren iritziak trukatzeko profitatu zuten Labaienek eta Augustinek.

Labaienek Euskaltzaindiaren hurrengo bileran elkar ikusteko gogoia agertu eta J.M. Arkotxarentzat ere eskumuinak helarazi zizkion Augustini, bere *Brokel Jauna* antzezlanaren irakurtzen ari zela esateko agindua emanaz.

Garaiko antzerkigintza mamitik ezagutzen zuen Augustinek, bai Euskal Herrian egiten zena, baita nazioartekoa ere. Eta Antonio M. Labaienekin garaiko antzerkigintzaren gaineko iritzia partekatzen zuen, bai joerak aztertuz, bai ikus-entzuleen beharrei erantzun zien antzerkiaren ezaugarriak landuz.

**KANPAI BERRIEN HOTSA  
(1965-1969)****ALDAKETA SAIOA**

60ko hamarkadaz geroztik, esan bezala, Gabriel Aresti eta garaiko idazleen eragina nabaria da. Idazle hauen ikuspegia eta estilo berria nagusituz doaz.

Antzerkigintzari dagokionez, 1965ean, Salvador Garmendiaren *Historia triste bat* obrak antzerkigintzaren historiaren lehenaren eta orainaren arteko bereizketa suposatu zuen, eduki zein forma aldetik. Oso kritikatu eta kuestionatu izan zen, batez ere, edukia polemikotzat jo zelako. Gizarte-egoeraren aurrean kritika eta konpromisoa bultzatu nahi zuen eta elizak antzezlanaren debekatu egin zuen. Labaienek eta Augustinek ere kritika zorrotzak egin zituzten obra honetaz, baina polemika piztuta zegoen bezalaxe, aldaketa ere egina zen jada.

Giro aldaketa argia nozitzen zen Augustinen inguruan ere: batetik, Augustinen antzerki taldea eta abesbatza eliztarren ziren, eta garai honetan eliztarren artean tira-birak sortu ziren: elizaren eginbeharrak zeintzuk ote ziren eztabaidatzen hasten dira... Eztabaida honetatik sortu zen, bada, Kresala elkarteak.

Bestetik, euskal literatura modernoa eta euskararen alde egiteko modu berriak sortuz zihoazen heinean, Augustinenak, beste batzuenak bezalaxe, zahartzat jotzen hasi ziren.

Bestalde, borborraldiak bizirik zirauen eta euskal kulturgingintzak, han eta hemen, lore berriak nola plazaratzen ziren ikusi zuen. Urte hauetan, herri bakoitzean dantza-talde bat sortu zen. Herrietan dantza agerkizunak antolatzen ziren eta herri osoa joaten zen ikustera eta parte hartzera. Rikardo Arregik, oster, bere kezka agertu zuen: “*Oraindikan euskaldun masa ugariak gera. Baiñan ez dezatela uste folklore egun batean parte artzen dugulako museokoak izateko prest gaudenik*”. Folklorea izaera baten azala baino ez zela abisatzen ari zen Rikardo, ikusgarria bezain hutsa, gabezia askoren estalgarri izan zitekeena...

### ***Ez dok amairuxen eragina***

1966an “Ez dok amairu” talde abangoardista sortu zen, besteak beste, euskal gazteriarri atsegini zitzazkion gaiak eskaintzeko asmoz. Nemesio Etxaniz, euskarari lur berriak eskaini nahi zizkion idazle apaiztua, omendu zuten Bilbon, euskal letrak Manterolaren, Azkueren eta Aita Donostiaren kantutegietatik haratago, munduko doinuekin lotzen ahalegintzeagatik.

Eta erritmo berriko kantak kantatzen hasten dira euskaraz Lurdes Iriondo, Mikel Laboa eta Julen Lekuona, besteak beste.

Arestiren *Beste mundukoak eta zoro bat* eskaini zen Donostian. Eta lan honekin, euskal teatro berria hasten zela aditzera eman zuen Xabier Lete aktore eta kritikari gazteak.

1966az geroztik, ez zegoen, jada, atzera-tragarik.

### **Berrikuntzak Augustinen antzerkigintzan**

1966an, Kirikiño euskal idazleari eginiko omenaldia estakurutzat hartuta, beronen *Atxuriko Milagrua* eta *Anton Berakatz* antzezlanak prestatu zituzten ondarrutarrek eta Mañarian antzeztu.



Musika gabeko antzerkigintzaren hastapenak.

Eta urte berean, musika gabeko antzezlanak prestatzen hasi ziren. Ordu artekoak denak musikadunak izan baziren ere, 36ko gerra ostean antzeztutako musika gabeko lehen antzezlan, Ondarroako Alameda aretoan eskainitako Augustinen *Zurrukutun* izango zen. Hiru antzerki-lan txikiz osatuta zegoen: *Atunetan*, *Santa Clara egunian* eta *Bost iruko*.

Musika gabeko antzerkigintza egiten hasteak, elizarekiko lotura hautsi nahi izan zuen batetik, eta bestetik, gai sozialagoak eta modernoagoak ukitu. Herriak, jada, barneratua zuen antzerkia ikusteko ohitura. Ikus-entzulea aktiboagoa zen.

Augustinen lehen eta bigarren aldiko antzerkigintzak bete zuen bere papera.

### **Sariak eta genero ezberdinen aldeko hautua**

1966an, bere lehen eleberria argitaratzen du Augustinek: *Piñuetako madalenak* eta Donostiako “Centro de Atracción y



Turismo”k eraturako sariketan *Gantzeruak izan dira* ipuina saritzen diote.

Urte berean, *Koroiko pitxiak* eta *Urbasatik kantuz* olerkiak sarituko dizkiote eta *Olerti* aldizkarian argitaratzen hasiko da, bi urte oparo emango dituelarik olerkigintzan.

1967an, *Gizon on eta andre erre* eta *Bizi garratza* antzeulanak saritzen dizkiote eta *Lurrunpean* antzezlana antzezten Tolosan.

Augustinek, jada, gai modernoak jorratuko ditu. Garai berriek eskatu bezala, antzeulanak berriztatu beharra zeukala ikusi zuen eta une hartako herriko problematika, politika, etab. izango zituen hizpide aurrerantzean. Gai pizgarriak hautatuko zituen, orduan modernotzat jotzen zirenak; esaterako, emakume ezkongabe baten haurdunaldia.

1968an, ostera, *Naparroako bideetan* olerkiak saritu zizkioten eta baita *Lurrunpean* antzezlana ere. Bitartean, *Aingira kumak* antzezlana prestatzen du. Eta, 1969an, *Errekonduan* eta *Mendu zarrak* antzeulanak saritzen dizkiote.

Aurreko garaiaren azken kartutxoak dira, hala ere, sariok. Antzerkigintza ulertzeko bi munduak bereiztu dira dagoeneko eta Augustinek ere, nahiz eta sari artean, generoz aldatzeko erabakia hartua du jada.

## ARANTZAZUKO BILERA

1968ko urrian, Arantzazun, Euskaltzaindiaren 50. urteurrenarekin batera, ehundik gora hizkuntzalari bildu ziren idazkera batuaren oinarrizko arauak eztabaidatzeko; Augustin Zubikarai tarteko.

“*H-arekin ez dezagun indioarena egin*” abisatu zuen Aita Plazido Mujikak. Baina eztabaida belaunaldien arteko gerra bihurtu zen.

Gazteentzat, Euskal Herria bere iraganaren berrikusketatik eraiki beharreko proiektua zela ulertzen zutenentzat, H-agure tradizio aberatsenetik berriro eskuratu beharreko letra zen: euskara modernoaren eta gizarte berri baten ikurra.

Zaharrentzat, ostera, lehenaz gain gauzak gehiago nahasteko baino balio ez zuen alferrikako letra zaharra: bortxaz piztu nahi zen hildako hizkia.

Hala, Euskaltzaindiko buruek, H-aren inguruan agertutako iritziak entzun ondoren, erdi-bide bat aukeratu zuten: alegia, begi onez ikusiko zutela letra hori bi bokal berdin nahiz desberdinen artean erabiltzen hastea.

H-aren auzia, ordea, ez zen hizkuntzalarien auzia bakarrik izan. Kanean ere, H-z idazten zirenean hitzak, ETAKoa zinela salatzea bezala zen, edo komunista, gutxienik. Euskal Herri berri eta modernoaren aldekoek, H-a, horren guztiaren ikur bezala hartu zuten.

ETAk, garai honetan, bortizki operatzen zuen.

## EUSKERAZAINTZAREN SORRERA XUMEA

Arantzazuko bileraren ondoren, Euskaltzaindiak euskara batuaren aldeko hautu garbia egin zuen. Gehientzat aurre-rapausoa izan zena, Augustinen ustez, hainbat euskalkirentzat mugarri baino ez: euskara batuak ez zien euskalkiei behar beste garatzen utziko.

Arrazoi hau dela medio, Euskaltzaindiaren baitan iritzi banaketa gertatuko zen. Euskal Idazleen Elkartearen sortzearen ideia garai honetan indartu zen eta egitura berriak sortzeko beharra eta kemena batu ziren une honetan, Augustinek, Lino Ake-solo, Eusebio Erkiaga, Bizente Latiegi eta Santi Onaindiaren laguntzarekin, Euskerazaintza sortu zuen 1968an.

Elkartearen legezatztea eta herri arduraren aldarrikapena beranduago lortuko bazuten ere, elkarte berria “euskeraren erri akademia edo erri euskeraren akademia” izendatu zuten:

“Gu ez gara urandiko arraiñak. Ez gara galoi askodun patroiak nai ta euskeraren itxasoan, gure itxasertz onetako mariñel zarrak ausartzen ziran lez Lur Barrietaraino joaten ausartu” aipatuko zuen Augustinek Euskerazaintzaren sorreraren inguruan.

Augustinentzat euskararen iparrizarra herria zen. Herriak ezagutzen zituen bere idazle, bertsolari eta kontalariak. Eta herriaren hizkera zen herriaren berri emateko eta herritarren-gana heltzeko erabili beharreko tresna.

Euskerazaintzaren lana, bada, euskararen alde zebiltzan beste erakundeen kaltetan ezer egin gabe, herri hizkera erabiltzeko iturri garbiak detektatu eta hauen inguruan sor litezkeen uholde eta hondar multzoak baztertzen ahalegintzea zen, iturri garden horiek, beren zeregina, inguruko kimika eta kutsadurarik eta oztoporik gabe bete zezaten.

## HAIZE BERRIAK

### Belaunaldien arteko haustura bortitza

Rikardo Arregi, Gabriel Aresti, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Xabier Kintana eta beste hainbatek osaturiko taldeak Lur argitalatzea sortu zuen 1969an. Eta, urte berean, *Euskal Elerti 69* euskal literaturaren belaunaldi berriaren erdua izango zen liburua kaleratu zen.

Belaunaldien arteko haustura nabarmena egin zen, bada. Augustin bera, galtzear zegoen belaunaldiko idazleei buruzko argibideak ematen hasiko zen bere idatzietan:

“Euskaldunon artean ba dago gure idazleen ezagupidea emon bearra, nai ta askori gauzak gai arol eta utsak iruditu”.

(Deia, 1982-VII-05)

1965-1985eko urte tartean, Augustinek eta bere garaiko hainbat idazlek matraileko sendoak hartu zituzten; euskal literatura modernoa eta euskararen alde egiteko modu berriak sortu ziren eta gerra aurreko belaunaldia zahartzat jo eta baztertu. Gerra aurrekoak eta ostekoak, elkarren artean, etsaiak zirela zirudien.

Gogorregia izan zen haustura, nolnahi ere. Sarri askotan, kritikak, ezjakintasunean oinarritu ziren: gerra aurrean eta ostean egindako lana ondo ezagutu gabe, edota abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna kontzeptuak bereizten jakin gabe. Politikoki tabutzat jo nahi zen “gerra” ahaztu nahirik, egindako lana eta lanean aritutako gudariak baztertzea izan zen hartu zitekeen biderik errazena.

### Augustinen eleberrigintzaren hasiera

Burgosko Epaiketarekin hasiko zen 70ko hamarkadaren hastapenetan, argi zegoen euskal literaturak eta ikus-entzulegoak antzerkigintza “sozialagoa” eskatzen zuela; eta, horregatik, Augustinek bere burua apartatu egin zuen. Ez zuen antzerki gehiago idatziko 80ko hamarkada arte.

Nekeak men eginarazi zion Augustini: arazo ekonomikoei, zentsura politikoari eta zentsura moralari aurre egin behar izan zion urte luzeetan. Baina ez zen lan honek sorrarazitako nekea bakarrik; argi ikusten baitzuen ordu arte euskara bultzatzeko egindako ahaleginak bere fruituak eman zituela eta, beraz, orain, beste bide batzuei oratzeko garaia zela.

Halaxe, bi genero berri lantzen hasiko zen: batetik, eleberririk eta bestetik, liburu monografikoak.



Eleberrigintzari dagokionez, hamaika eleberri idatziko zituen guztira. Hauetatik erdiak, gutxi gorabehera, berak argitaratuak izango ziren edota erakunderen baten laguntzarekin plazaratutakoak. Garai honetan, ohikoa, literatur lanak norberak argitaratzea zen, ez baitzegoen ia argialetxerik. Idazleen kexua, hain zuzen ere, horixe bera zen: idaztea zaila zela, baina are zailagoa argitaratzea.

Liburu monografikoei dagokienez, 1969an *Motrico* idatzi zuen, gaztelaniaz. Liburu honek, ondotik etorriko zen bilduma oso baten hasiera suposatuko zuen. Bere helburu behinena, herri jakintza bultzatzea.

Urte hauetan Augustinek egingo duen ekarpen nagusia hiru ildotan zabaltzen da: literatur sorkuntza, herri jakintzaren zabalkundea eta herri euskara bultzatzea.

## KATEA EZ DA HAUTSI (1970-1979)

### GIROA

70. hamarkada, oso hamarkada aberatsa izan zen kultura ikuspegitik: hainbat argialetxe sortu ziren (Elkar, Erein, Txertoa, Lur argialetxea banandu eta Kriseilu sortu); Joxean Artzek eta Mikel Laboak *Ikimilikiliklik* ikuskizuna prestatu zuten; Koldo Izagirrek eta Bernardo Atxagak *Panpina ustela* aldizkaria sortu zuten; Ramon Saizarbitoriak *Ehun metro* idatzi zuen; Bernardo Atxagak *Zitutateaz* eta Koldo Izagirrek *Itsaso ahantzia*; eta Jimu Iturralde, Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Manu Erzilla eta Joseba Sarrionandiak *Pott* literatur aldizkaria sortu zuten Bilbon.

Politikari dagokionez, hamarkada mugitua izen zen: 1973an ETAk Carrero Blanco almirantea hil zuen, Espainiako Gobernuko presidentea; eta hurrengo urtean ETA bitan banatu zen: ETA militarra eta ETA politiko-militarra.

1975ean Franco hil zelarik, mugimendu errebindikatiboak areagotu egin ziren Euskal Herrian; 1977an ikurrina legeztatu zen Hego Euskal Herria eta Espainiako Gobernuak Amnistia dekretatu zuen preso politikoentzat. Fran Aldanondo "Ondarru" izan zen kaleratutako azken preso.

Eta euskarari dagokionean, 1974an, metalezko bi txarteltxo jarri ziren salgai dendetan eta tabernetan erabiltzeko: “Euskaraz egiten da” eta “Zabalik/hertsirik”.

1976 urtea bidegurutzearen urtea izan zen euskal aldizkari-erantzak. Forman eta edukian eraberritu ziren. *Anaitasuna* esaterako, ohiko formatu handitik txikiago batera pasa zen 1975 bukaeran; gauza berbera egin zuen *Zeruko Argiak* hilabete batzuk beranduago. Lehenengo ale berrituekin aldarrikapen bat ekarri zuen euskal kazetaritzak “1976: Euskal kazetaritzaren urtea” izenarekin bataiatuz. Urte bereko martxoaren 27an, Donostia, Loiola, Iruñea eta Bilboko Herri Irratiek egundoko apustua egin zuten: baietz irratian 24 orduz jarraian euskaraz jardun. Euskaltzaindiaren batzar berezi bat eskaintzea erabaki zen; horrela, Aldundietako ordezkariak azal zitezten, eta beraiek sortua zen erakunde honi, behingoz, zor zioten babes ofiziala aitor ziezaioten.

1977an, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak “Geu gara euskal prentsa!” izeneko iragarkia kaleratu zuten beren orrietan. Eta urte berean sortu ziren baita ere, *Deia* eta *Egin* egunkariak eta *Ipurbeltz* komikia.

Augustinek berehala hartuko zuen beregan lan berri bat: *Deia* egunkarian idaztea. Bere helburua, euskal irakurleari euskaraz idatzitako albisteak edo iritzi artikuluak helaraztea.

Poliki-poliki, helburu honi jarraiki, beste egunkari eta irratietan ere kolaboratzen hasiko da eta urte luzeak egingo, egunero edo astero, albisteak eta artikuluak, idatziz zein uhin bidez, nonahi barreiatuz.

## KATEA EZ DA HAUTSI

Bide berriak hartu arren, Augustinek zaharrak ez zituen guztiz alboratu. Garai honetan Augustinek, jada antzerkirik ida-

tziko ez duen arren, euskal antzerkigintzaren jarraipena hurbil-hurbiletik egingo du eta 1974an, Santi Onaindia bere lagun minari kexuz betetako gutun bat idatziko zion, esanez euskal antzerkigintzak ez zeukala kritika serio eta egiazko bat, konplizitate ideologiko edo sentimentalik gabea, hau da, lagunen edo alderdikoien begiez haratago egindakoa. Eta kritika serio baten faltan, euskal antzerkiak ezingo zuela aurrera egin.

Augustinek ez zuen egindako bidea ahaztu, ez eta bide berrietan barrena egin beharreko lanetik aldendu ere. Baina ezagutzen zituen euskal literaturaren ajeak; baita egoera politikoa eta soziolinguistikoa berriak euskara, euskal kultura eta literatura nora zeramatzatzen.

Bera, gerra aurreko eta osteko bidegilea zen. Bidegile berriekin elkarbizitza egiten ikasi beharra zuten. Hau argi zuen. Belaunaldi zaharrek oraindik esateko asko zutela sinisten zuen bezain argi. Eta ez hori bakarrik. Berarekin batera bidegile izandakoen lana ezagutzera ematea ere beharrezkotzat jotzen zuen, historia eta jakintza berreskuratzeko edo, behinik behin, ez galtzeko.

Idea hau benetan bultzatzeko garaia heldu zela erabaki zuenean, gerra aurreko belaunaldiko hainbat lagun hiltzen hasi zitzaizkion Augustini. 1971ean Jose Artetxe hil zen eta 1976an J. M. Arizmendiari. Eta gerra aurreko belaunaldiko idazleen berri ematen hasita, orduko literaturaren gaineko zenbait auziren gainean zuen iritzia azaleratzeko, Augustinek bere ikuspegia honela jakitera eman zuen:

*“Esan egiten da, eta nik be ala dala sinistuten dot, euskal literatura zuriegi dala. Txomin Agirrek esango eban lez, arpegikonarrua lodiegi daukala, barruko arrari urten eta biziten laga barik.*



*Gure antzerki lanetan be, erri askotan Luistarrak eta Mariaren alabak, nai eta aingeruzko lanak egin bear eta gurasoen aurrean agertu beharrekoak izan, neska mutillak alkarregaz lan egiteko eukiten zituen oztopoak kontuan eukita, sasoi bateko antzerki asko, mutil bakarrentzat edo ta neska utsentzat egiten ziran, beti be zuri-zuri, moskorrak pekatutzat lagata, edo ta bizitzako pekatuen eredu-tzat gurasoak jasotako ume galduen bat irudituz. Nik ez diñot lizunera jo bear dogunik, edo ta bizitzako zitalkeri asko alaitasunez zabaldu eta erakustera, baiña bai egoera ori autortu. Eta erri baten literaturak, pentsabideak pentsabide, danetik erakutsi bear dau, bizi doguzan gauzetan beintzat. Eta gure artean gai asko ez dira idatzi, edo norbaitek ukitu ba zitun be, geienak ezkutuan geratu dira: piper gorritz ikututako bertso batzuk kendu eta geiago zer gogoratzen dogu?*


*Bilintx, ostera, egia auek zabaltzekoa zan. Zoritxar arek menderatu ez ba leu, beste molde bateko literatura egille izango zan”.*

(Deia, 1982-VII-31)

## EUSKARAZAINTZAREN LEGEZTATZEA

Euskerazaintza, elkarte bezala, 1978an izan zen onartua. Elkartea Hego Euskal Herriko lau herrialdeetara hedatuko zen, bere lehen presidentea Lino Akesolo eta zuzendaria Augustin Zubikarai izango zirelarik.

*“10 urtetara lortu gendun legeztatzea eta Erri zuduzkotatzenaren Aldarrikapena ezagutzea”* argituko zuen Augustinek Karmelen, 1992an; *“beraz ez gabiltz batzuk uste daben lez mozolo arrapakari antzera lanean, edo gantzeru lapur antzera, egun argiz eta brankaz baiño nai ta Europar Komunitadetan gertatzen dan lez, eta ori Ondarroan ondo dakigu, baimenak eta lizentziak eta eskubideak batzuk artu eta besteak, ondarrutar txalopa askok lez, eteteko alegiñak egin bear itxasoari berea atarateko, au da, gure kontuan euskerari eskamak kendu al izateko”.*



Augustin bere txokoan.

## KRITIKA ZAPARRADA

1970ko hamarkadaren bukaeran bi kritika astun jaso zituen Augustinek: bata, idatz sariketetara aurkezteko ohitura izateagatik eta, bestea, bere nobelagintzaren ezaugarriengatik.

### Sariketen inguruko auzia

Auzia, hala ere, plazan zegoen jada. Batzuek, sariketetan parte hartzea oso gaizki ikusten zuten, beren aburuz, sariketek hasi berrien lanak sustatzeko izan beharko luketelako eta ez euskal letretan izena eginda zutenentzat. Beste batzuek, aldiz, bazuten, bestelako argumenturik.

Augustinek berak ere, kultur etxearen bidez edo Bizkaiko Idazleen Alkartearen bidez lehiaketak antolatu zituenean, asmo horrekin prestatuko zituen eta bat zetorren, guztiz, ideiarekin. Hau da, sariketak idazle berrien gogoia pizteko zirela.

Baina Augustinek beste errealitate bat ere ezagutzen eta jartzen zuen mahai gainean; lehenengo eta nagusia: sarike-tetara bidalitako lanak irakurri eta epaitu behar zituzten epaimahaikideek bizkaieraz ere idatzitako lanak esku artean izatea zen helburua; eta, gainera, epaimahaikideen artean bizkaieraren aldekorik egonez gero, bizkaieraz idatzitako obraren bat irabazle ateratzeko aukerak sendotzea.

Bigarrena: Augustin Zubikaraik ez zuen bere garaian argitaletxerik ezagutu; beraz, idazlanak argitaratzeko modurik zuzenena, egunkari edo aldizkarietan agertzea edota sariketetara bidali eta irabaztea zen. Horrek lan erdi eskatzen baitzion idazleari argitaratze bidean.

Eta hirugarrena: errekonozimendu beharra. Augustinek bazekien, 1965-1970. urteez geroztik, bai antzerkigintzan, bai eleberrigintzan, haize berriak arnasten hasia zela euskal literatura. Bazekien bezalaxe, bere literaturak bazituela oraindik irakurleak eta bizkaiera bultzatzeko bere eginbeharra ez zela bukatu.

Errekonozimendua eta aurrera egiteko kemena, beraz, literaturarekin, zein bizkaierarekin, sariak emango zioten.

### Augustinen nobelagintzaren ezaugarrien inguruan

70ko hamarkadaren bukaeran *Bale denporak* (1978) eta *Anton Guzurretxe* (1979) eleberriak idatzi zituen Augustinek eta azken liburu honen inguruan kritika zorrotz bat baino gehiago jaso zuen.

Kritikaren arabera, nobelagintza era tradizionalaren formen jarraipena zen Augustinen nobelagintzaren ezaugarri nagusia: Txomin Agirreren eragina nabari zitzaion, bai formaz bai edukiz, eta nobela errealistaren jarraipena eskaintzen zuen.

Toki kontzepzioari zegokionean, sistematikoa zen Augustin. Ondarroa eta, batez ere, arrantzaleen eta marinelen itsasoa zen Augustinen espazioa. Eta lokalismo hori era bitan tratatzen

zen Augustinen nobelagintzan: Ondarroaren gorapen historikoa eginik, eta lokalismoari haize mitologiko eta epikoa emanik.

Denborari zegokionean, iragana zuen kontakizunen aldi Augustinek. Eta haxe zen, kritikaren ustez, Zubikarainen nobelagintzaren balioetako bat: historia, bere herriko historia, inspirazio gai erabiltzea. Baina historia hori lokalista eta historizista zen: idazleak, batez ere, gertaerak kontatzen ditu, gertaeren maila sinboliko posiblea zaindu gabe. Eta, horrela, gertaerak anekdota huts, huskeria batean gelditzen.

Zubikarainen planteamendu narratiboa ere, kritikaren ustez, tradizionala zen; ekintzak egitura eta kontakizun lineala zuen eta kontalaria orojakilea zen. Pertsonaiak lauak eta izaera dialektikorik aurkezten ez zutenak.

Kritikaren ikuspegitik, Augustinen eleberriei ez zitzaion funtzio estilistikorik ikusten. Zubikarainen planteamendu nobelistikoa zaharrituta zegoen, jada.

Hizkerari edo hizkuntzaren erabilerari zegokionean, ordea, euskararen jatortasuna goraiatzen zen, Augustinen euskara zoragarria azpimarratzen: euskara jatorraren erabilera batetik, eta elkarrizketen bizitasuna, bestetik. Elkarrizketa ariak, elipsiaren bidez josiak eta prosa errimatuaren bidez estiliatuak.

Hala ere, kritikak ez zuen Augustinen hizkuntza erabilera ere maiseatu gabe utzi: Txomin Agirre bizkaiera osatu batean idazten saiatzen bazen, Augustinen kasua bestelakoa omen: *“Zubikarairengan beste joera bat nabaritzen da. Baturantz goazen une honetan, Zubikarai kostaldeko herri euskaraz baliatzen da”*.

Augustinen jarrera hau, Txomin Agirreren jarraipen ahaleginetik urrun, atzera pausotzat hartu eta salatu zuen kritikak.



## **ERRETIROAREN ARNESA GOZOAN (1980-1981)**

### **KULTURGINTZAN BURU-BELARRI**

1980an hartu zuen Augustinek “zorioneko erretiroa”. 80tik 98ra bitartekoa izango da haren produkzioerik oparoena eta onena. Ereiteko nahiz ereindako uzta biltzeko urte preziatuenak.

Zorioneko erretiroari esker, aurreko urteetan ikasitako eta denbora faltagatik alboan utzitako proiektu asko jarri ahal izango ditu abian Augustinek.

Kulturari buru eta bihotz eskainita biziko da aurrerantzean.

Augustinekin batera euskal politikagintzak ere aldaketa nabarmenak nozituko zituen garai honetan.

1978ko otsailean Euskal Kontseilu Nagusia eratu zen, autonomia aurreko erakundea, zeinetan Ramon Rubial sozialista eta Carlos Garaikoetxea nazionalista izan ziren buru.

1979an Autonomia Politikorako Estatutu berria Gernikako Estatutua onartu zen; eta ondoren, 1980an Eusko Alderdi Jeltzaleak irabazi zituenean hauteskundeak, Eusko Legebiltzarrak Carlos Garaikoetxea izendatu zuen lehendakari.

### **Bizitzaz ere beste era batera gozatzen**

Erretiroak eguneroko lanaren ardura edo zama kendu zion Augustini eta, aurrerantzean, hogeita lau orduak bere familiari,

idazlanei eta kultur ekimen ezberdin eta ugariei eskaintzeko izango zituen.

Denbora osoko ordutegia hartu zuen: goizeko zazpi eta erdietarako egunkaria irakurrita izaten zuen eta, ondotik, irratia aldamenean, musika eta albisteak lagun, esku artean zeukan idazlanarekin hasiko zen, batzuetan eguna bukartu arte; besteetan, hitzaldi, aurkezpen-ekitaldi edo kultur ekimenen batean parte hartuz.

Udan ez zuen hondartzara joatea maite, baina bai udaberrian. Aste bitik behin, igande goizean haitzetan ibiltzeko zaletasuna zuen, lapak, mutxiloiak eta magurioak batzen. Hori bai, itsasbehera gertatzen zen igandetan. Eta gainontzeko asteburuetan, anaiarekin mendira perretxikotara joatea zuen gogoko, bere aita zenaren zaletasunari jarraiki.

Garai honetan areagotu zituen, baita ere, bidaiak. Betidanik bidaiaria izan bazen ere, erretiroa hartu ostean, inolako loturatik gabe ibiliko zen hara eta hona: Galiziatik Bartzelonara, Bartzelonatik Sevillara.... nekegabe. Joaten zen leku orotan euskaldunen urratsak bilatzen aritzen zen: lekuko toponimiaz kontu hartzen, herrietako artxibategiak bisitatzen, edota kale izen eta ezagunen abizenak aztertzen... eta bidaiatzen zuen leku bakoitzetik, hango liburu, disko, sendabelar, janari edo edari bereziren bat ekartzen zekien, bai familiarentzat, bai bisitan joaten zitzaizkion lagunentzat.

Ez zuen pasatzen utziko urtea, ezta ere, Gernikara, Tolosara, Iparraldera eta Nafarroara joan gabe, hango piperrak, indabak, gaztak, txorizoak eta abar, sasoian sasoiko fruitu gozoenak etxeratzeko.

Augustin jan onekoa zen, barazkiak eta arraina zituen jakirik gustukoenak. Eta, beraz, asko disfrutatzen zuen garaiko produktuak han-hemendik lortzen.

### Ondarroako kultur etxearen zuzendari

1981ean amets bat konplitua ikusiko zuen Augustinek: Ondarroako udalak herriko kultur etxearen zuzendari izendatu zuen eta hamarkada luze batez zuzenduko. Harik eta udalak kultura teknikari bat jarri zuen arte, Augustin izango zen bai herriko liburutegiaren eta bai liburutegitik antolatzen ziren kultura-ekintzen arduraduna.

Betidanik maitatu izan zuen liburutegiaz arduratuko zen, azkenean. Behin baino gehiagotan eman izan zituen liburuak dohaintzan eta, orain, ostera, berak erabaki ahal izango zuen, udalak esleitutako aurrekontuaren arabera, zertzuk liburu erosi eta liburutegiari zer-nolako erabilera eman.

Liburutegiari haize berria eskaintzen saiatu zen Augustin: batetik, euskarazko liburuentzako gune berezi bat sortu zuen, bai Txomin Agirrek eta bai bizkaierazko produkzioak espazio propioa izan zezaten. Bestetik, umeei, ikasteko edo etxeko-lanak egiteko, txoko berezi bat egokituko zien.

Umek zarata gehiegizkoa ateratzen zutenean, haserretu egiten zen eta zaintzaileari isiltasuna eskatzerako orduan zorrotzagoa izateko agintzen zion. Baina irakurtzeko gogoan agertzen zuten gaztetxoei begi onez begiratzen zion eta gogoan hartzen zituen: hauentzako liburuak aparte utzi eta liburutegitik agertzen zirenean, *“irakurri auxe, gustuko izango dozu-ta”* aholkua ematen zion.

Idatz sariketa eta argitalpen ugari bideratu zituen kultur etxearen zuzendari izan zen urteetan. Garai honetan antolatutakoak dira, besteak beste, 1982ko Lore Jokoak edo 1985eko Kontakizun laburren lehiaketa, edota lehiaketa horiei esker argitaratutako *Lore KONTU, KONTU Lore* (1986), antzerki-lan errazen sariketarik atondutako *Banaka... biñaka...* argitalpena



(1985); edo herriko kontakizun barregarrien bilduma: *Barre ta irri* (1988), *Barre algaraka* (1989) eta Barre-zirika (1991).

### Artikuluak komunikabideetan, hitzaldiak eta olerkiak

80ko hamarkadaren lehen aldian, *Oleri* aldizkarian poesia argitaratzen hasten da berriro eta 1981-1984 bitartean idatziko ditu bere “Bigarren Oleri saila” osatzen duen olerki sorta.

Lan oparoa egingo du idatzizko komunikabideetan ere: *Deia* eta *El Diario Vasco* egunkarietan artikuluak idatziz. Euskaraz idazten zuen bakarretakoa zen Augustin eta arrazoi horrexegatik kolaboratzen zuen; egunkarietan euskarazko testuak ere egon zitezten.

Gaiei dagokionez, denetik ukitzen zuen: hizkuntzaren ingurukoak, euskal ohitura eta jaiak, historia txatalak, arrantza, Eusko Jaurlearitza, Aldundi eta udaletxeko kontuak, euskal literatura, euskal idazle eta liburuak, besteak beste.

Oraina aztertzen zuen, iragana gogoratzen eta, batez ere, iraganeko eta bere garaiko idazleen gomuta erakusten. Berariaz erreskatatzen zituen, irakurleak ezagut zitzan.

Garai honetan, Augustinentzat garrantzitsua zen egingoaren berri eskaintzea, ereindakoaren uzta batzen ahalegindu eta fruituak ezagutzera ematea; egindako lanaren zergatia azaltzea.

Jasotako kritikei aurre egin behar zien, gerra aurreko idazleen eta idazle modernoaren artean sortutako bereizketa azaldu behar zuen; herri hizkeraren garrantziaz mintzatzeko premia zeukan; euskal literaturaren eta itzulpengintzaren gainean hausnartzekoa, herri hizkeraren oinarrien eta herri izaera baten ezaugarriak aditzera ematekoa... Horren guztiaren zaindaria zen Augustin. Berak halaxe sentitzen zuen, bederen, eta gutxi ziren lan hori egin zezaketenak.

Lan eskerga zuen egiteko, oraindik.



Augustin, makinaz zuzenean idazten eta komunikabideei atentitzen.

Bere aurrekariengandik ikasi bezala, hitzaldiak eskaintzen hasi zen: Bizkaiko idazleak ezagutzera emateko, herri hizkeraren ekarriaz kontuarazteko, eta gerra aurreko idazleen ekarpenaz ohartarazteko...

Eta behinola lagun batek egin zion gonbitaz gogoratu eta irratiak difusiorako duen indarrak jabetuta, irratiaren kolaboratzen hasi zen baita ere: lehenengo Herri Irratian (1974an hasita), gero Arrate Irratian eta Bilbo Herri Irratian (1980an hasita) eta, ondoren, Bizkaia Irratian, 1990etik aurrera.

### Euskaraz, mesedez!

1981 urte berezi samarra izan zen: oldarkorra eta errebindikazioz betea. Otsailean Joseba Arregi komisaldegian hil zuten; 23an estatu kolpea ezagutu zen Espainian eta, Gabonetan, “Irrati-telebista euskaraz” kanpaina antolatu zen.

Ondarroan, 1981eko urte mugitu hartan, EAJ alderdiak udal gobernuari udaletxean eta udal agirietan bizkaieraz egitea eskatu zion. HB eta LKI euskara batuaren alde agertu ziren baina EAJk irabazi zuenez, udal batzarretan bizkaieraz egin eta agiriak bizkaieraz jasotzeko erabakia hartu zen. Augustinek, bada, 1981ean hasita, urte luzeetan, udal aktak euskaratzeko lana bereganatu zuen. Baita bizkaiera garbian euskaratu ere!

Erretiroa hartu ondoko urteetan, lehenagotik ere gabezia ikusi bai baina denbora faltagatik hainbeste egiten ez zuen beste zaintza lan bati ere oratu zion Augustinek: leku, agerkari eta erakunde askotan, mesedez, euskaraz egiteko edota euskara zuzena erabiltzeko eskabideak helarazteari.

Ehunka gutun bidaliko zituen, hara eta hona, arren, halako edo bestelako argitalpenak euskaraz ere eskaintzeko eskatuz, edota halako edo bestelako itzulpen akatsak zuzentzeko, edo euskarazko esaera jatorragoak erabiltzeko erregutuz. Eskabideak, gainera, harreman zabalekoa zenez, erabakiak hartzen zituzte-nenganaino luzatzen zituen, inolako arrangurarik gabe. Halaxe, 1981ean, adibidez, P. M. Etxenikerengana zuzenduta, Bilboko Magisteritza Irakaskuntzako azterketak euskaraz egiten has zitezen lortu zuen.

## KRITIKAK BERRIRO

1981ean berriro kritikak jasotzen ditu Augustinek: bai bizkaiera sustatu nahi izateagatik, bai *Anton Guzzurretxe* eleberriarekin Nobela Saria irabazteagatik.

*“Liburu hau gaurko euskal literaturarik hobenetarikoa baldin bada, bapo”*, esango zuen Karlos Santistebanek irailaren 13ko *Argian*.

## *Anton Guzzurretxeren inguruan*

Augustini bere nobelak lapurreta antzekoak zirela aurpegiratu zioten. Orririk gehienak edukiz huts eta elkarrizketa laburren aitzakia. *“Gaurko olerkari askoren bidetik”* zebilela, lau berbaz orriak betez.

Hautsak harrotu zituenak zera zioen: liburu aipamen batean irakurterraza zela irakurri zuela baina morala behar zela amaitzeko: geldoa eta astuna egin zitzaiola eta, gainera, Euskal Herrian, *“gaurko problematikan sustraitutako liburua”* behar zirela.

Horretaz gain, Txomin Agirre ere aipatu zuen kritikariak eta horren harira, Augustinek honela erantzun zion:

*“Nork ukatzen dau ori, eta zergatik ez dira egiten? Gure bideak zabaldua dagoz, danok poztuko giñake. Eskolak ikusiko litzakez. Zarrenak eta gazteenak, erri bizitza baketsu baten maitale eta burrukalarienak. Ori nai genduke. Baiña or dago Santisteban-en miña. Ezin gara ulertu aita eta semeak. Ariñegi bizi gara. Elkar ezagutu eziñez. Len aldaketa bat ez zan igarriko, nekez baiña, ia gizaldi baten. Gaur, 10 urtetan, zearo aldatzen gara, loturak eten, ta jantzi zarrak apurtu zirt-zart apurtu beintzat, nai ta barririk ipiñi ez. Eta ori be lengo zarrak ordaintzea nai dabe. Leikena baiña gaitz.*

*Bere giroak eroaten dau Santisteban gure Txomin Agirreri bere... Igarri barik ez. Agirreren Euskal Herrian geratu nai-zela nobela onetan diño nigaitik. Eta aren kasua barkagarri zitekeena, ezin barka daiteke gaur egun. Ikusten danez, Santistebanek “barkagarri” ikusten dau aren lana”.*

(Deia, 1981-X-01)

## *Bizkaiera sustatzearen inguruan*

Bizkaiera sustatzeagatik sariketetan parte hartu izanaren gainean jasotako kritikei aurre egiteko, honela dihardu Augustinek:



*“Karidadeko fraile edo monjen antzeko gara euskal idazleak. Nekez billatuko da bizitzako denporarik geienean gure antzera txoritxiki baten asmo barik millaka ordu lanean sartu dituenik. Egia esan bear da, dan lez.*

*Giroa aldatu da (...). Oraintsuko leiaketa baten, olertian aiatu barik geratu zan batek, konfiantzaz esan eustan: “adis-kide, gure giroa igaro zan. Nire erabagia artu dot. Ez noa geiago leiaketa batera”. Andik laster, goraberak aztertzean “barruko” batek esaten eban: “ondo egin eta ondo neurtu eta landutako olerki eder bat ba egoan da bizkaieraz zan...*

*-Eta?*

*-Ez kutuan geratu zan.*

*Aipamena eduki daben eleberri egille bateri itaundu neutsan:*

*-Zelan idatzi zendun?*

*-Egia esango dautsut: gipuzkeraz egiña neukan. Baiña epai maikoak nortzuk ziran jakitean, batura aldatu neban.*

*Konturatzen? Ez dot epaikiririk salatuten. Giroa bai. Sari bat lortu edo ez lortu, gerra egiña dago.*

*(Deia, 1981-XII-20)*

### **Bizkaieraz diharduten idazleen inguruan**

Augustinek bi dei egin zituen: bat, irakurleari. Bizkaierak aurrera egingo bazuen, irakurleei esker izango zela gogoraraziz. Idazleek bizkaiera bultzatuko bazuten, irakurlegoaren hauspoari esker izango zela jakinaraziz.

Eta, bi, bizkaieraz idazten zuten idazleei: atzera pausorik ez egiteko erregutuz.

*“Azkatasuna maite izan dogun euskaldunok, indarkeri ustel baten menpean makurtuta edo makurtzeko zorian gagozan giroa igarten da. (...) Eta ez gara gu bakarrik buru gogorrak. Amaika-*

*txu bagagoz zein gogorrago jokatzeke gertu! (...) Irakurleak, gure euskera atsegin dozuen irakurleak, zuen arnasarik ez eiguzue ukatu! Bestela idazle askok pot egingo dogu eta gure zeregiñari laga”.*

*(Deia, 1981-XII-20)*

## **NEKE GABEKO LAN ARDURATSUA (1981-1983)**

### **BIZKAIERAREN ALDEKO AGIRIA**

1981eko abenduaren 21ean, bizkaieraren egoeraz larrituta, 11 lagunek, Augustin tarteko, "bizkaieraren aldeko agiria" idatzi zuten. Euskararen alde ahalegin handiak egiten ari zirela ikusten zuten baina ez, espreski, bizkaieraren alde. Bizkaiera, gainera, euskaradunen %40k erabiltzen zuela ohartarazten zuten eta erakunde ofizialetan, bizkaieraz ari zirenei, ez zitzaieela begi onez begiratzen salatzen. Horregatik, zera eskatzen zuten:

- Ahozko hizkera indartzeko bide egokiak bilatzea.
- Ume zein nagusiak bizkaieraz alfabetatzea.
- Bizkaiko ikastetxe guztietan bizkaiera ematea.
- Behin bizkaiera ikasi ondoren, begi onez ikusten zela beste euskalki bat edo gehiago irakastea.
- Aldizkari, Irrati eta Telebistak ere eskakizun hau aintzat hartzea.

Agiriaren sinatzaileak honakoak izan ziren: Joseba Atxa (Bilboko Elizbarrutiaren Ikastolen Arduraduna), Jesus Eguzkitza (Bilbo Herri Irratiko Euskal sailekoa), Jose Antonio Retolaza (*Kili-kili* aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria), Karmelo Etxe-



nagusia (irakaslea), Ander Manterola (Derioko Udako Euskal Ikastaroen zuzendaria), Fermin Iraolagoitia (Ikastola katolikoek elkartearen lehendakaria), Jabier Uriarte (Hizkuntza Eskola Ofizialeko Euskal Sailaren arduraduna), Martin Olazar (*Zer* aldizkariaren zuzendaria), Lino Akesolo (Euskerazaintzako zuzendaria), Iñaki Zubiri (Euskerazaleak-eko lehendakaria) eta Augustin Zubikarai (idazlea).

Agiria Augustinek eraman zuen, pertsonalki, Gasteizera eta eskuan P.M. Etxenike jaunari, Hezkuntza Sailburuari, eman:

*“Origaitik aukeratu ninduen Bizkaiko euskaltzale batzuk, gure arteko batzarrak egin ondoren, gure euskerari buruz artutako erabagiak eskuz esku, jaurlaritzako gizonei Gasteizera eroateko. (...) Gu Jainkoaren grazi utsagaz bizi eta ibiltzen garean lez, bazkari orde z amaiketakoa egin, eta lagun baten kotxe eskintzari esker, Bilbora joan, kartak artu eta andik Gasteizera eldu ordu bita erditarako. (...) Ala, jan-tokitik etorri zan Etxenike jauna, beti lez alai eta “hiztun” (ez dau esango h-rik ez dodala erabili) bereztako neroian karta artzera.*

*(...) Eta gure karta, Bizkaiko euskaldunen deia, kuenkatar ertzaiñak eroan eban barrura ta berak, nire eskariz, sarrerako sei-llua ekarri.*

*Olakoetan gizonak gizon izan, eta ezin ukatu gure barrumiña ezagutzen danik. Eta Agirregaz nai gendunetan oztopo barik ikusten giñala gogoratzean, nire artean gogoeta au erabili neban, ez dakit errukiz ala miñez: lendakari zarrak gaurko lehendakariak baiño beldur gitxiagogaz bizi ziran beiñik-bein?”*

*(Deia, 1982-I-20)*

Idatzia Carlos Garaikoetxeari zuzenduta zegoenez, honen erantzuna laster jasoko zuen Augustinek: ahaleginak egingo zituztela idatzia kontuan hartzeko. Baina gutuna bidaltzeko

Augustinen helbidea jartzerakoan, kalearen izena, “Erribera” izan arren, gutunazalean “Herribehera” jarri zioten. Eta Augustinek, ez motz eta ez luze, beste gutun bat idatzi zion Carlos Garaikoetxeari zera eskatuz: kaleen izenak ondo idatzi behar zirela eta, horretarako, *Eusker*a aldizkariaren “Bergarako biltzar ondoko erabakiak (67 eta 78 orrialdeak)” ondo begiratzeko.

Gutunaren gogortasuna leundu nahian, hala ere, bukaeran, eztabaida hauetan argia egin nahian ibili arren, bere aberkide, lan-kide eta adiskide zela jarri zion Augustinek Carlos Garaikoetxeari.

Eta 1982ko otsailaren 1ean, Sabin Intxaurrek, lehendakariaren idazkaritzako arduradun lez, zera argitu zion: *Dei*ara deitu zutela bere helbidea eskatzeko eta han, beharbada adarra jotzearen, helbidea era horretara eman zietela. Gertaera hau azalduta, zorionak eman zizkion, *Dei*an argitaratzen zituen artikuluengatik, euskaraz idazten zuen bakarra zelako, eta baita ematen zituen hitzaldi eta idatzitako liburu guztiengatik. Alegia, euskararen alde egiten ari zen lanagatik.

### **Polemika komunikabideetan**

“Bizkaieraren aldeko agiria”, bestalde, garaiko komunikabide gehientsuenetan agertu zen: *Deia*, *Egin*, *El Correo* eta *Gaceta del Norte*n. Eztabaida sutsua sortu zen. Zarata faltan ez zen geratu agiria eta sekulako polemika sortu zen. Bizkaitarrek bizkaiera indartzea nahi eta gainontzekoek, batzuk batuaren alde eta besteak, bizkaitarrak euskararen aurka zeudela salatuz; batzuek, batua eta bizkaiera batera bultzatu behar zirela ulertzen zuten eta besteak, lehenengo batua bultzatu behar zela.

Hiru ziren, nagusiki, eztabaidaren puntuak:

- Bizkaiera euskararen arerioa ote zen.
- Euskara batuaren onerako bizkaiera hil egin behar ote zen.

- Bizkaiaren nortasuna zaintzeko ea Bizkaiaren independentzia behar ote zen.

### **Euskara Aholku Batzordetik kanpo**

Agiriaren ondotik eta eztabaida pil-pilean zegoela, 1982ko maiatzaren 20an, EITB erakunde publikoa legeztatu zen eta euskarazko irrati nahiz telebistaren lehen saioak emititzen hasi ziren garai berean, Euskara Aholku Batzordea eratu zen.

Honakoan ere, Augustinek bi gutun idatzi zituen: bata, Eusko Legebiltzarrerara eta Euskaltzaindira, Euskerazaintzaren izenean komunikabide berrietan ere bizkaieraren alde egitea eskatzen zuelarik; eta bestea P.M. Etxenike Hezkuntza Sailburuari, esanez, Euskara Aholku Batzordearen partaideen artean Euskerazaintza ez zela kontuan hartu.

P.M. Etxenike jaunaren erantzuna lehorra izan zen: Euskara Aholku Batzordean bizkaitarren ordezkari-tza bazegoela.

### **1982KO LORE JOKOAK**

Azken urteetako gertakarien harira, bai politikagintzan, bai kulturgintzan, euskararen alde egiteko, euskara sustatzeko eta euskara bultzatzeko inoiz baino premia handiagoa ikusten zuen Augustinek eta, horretarako, premiazkotzat jotzen zuen literatura idatzia indartzea. Idazle eta irakurleen artean tarte handia zegoela sumatzen zuen, handiegia aukeran. Idazleen ametsak etenda geratzen zirela iruditzen zitzaion, irakurleen ardura eza zela-eta.

Euskarak iraungo bazuen, Augustinek bazekien euskara horrek literatura berritzaile bat behar zuela. Irrati eta telebista bidez euskara etxekotzea lor zitekeen baina, erakusteko eta ikas-teko, literatura idatzia zen oinarria.

Hori dela eta, Lore Jokoen izaera kontuan hartuta, hau da, betiere gogoa pizteko antolatu izan zirela, Augustinek Lore Jokoa antolatu zituen berriro Ondarroan. Idatz lehiaketak, hitzaldiak, erakusketak, mahai-inguruak, sari banaketak eta Bizkaiko Orkestraren entzunaldia izan ziren programaren oinarri.

Honakoan, ordea, berrikuntza handi batekin: Augustin betidanik izan zen teknologiari edo berrikuntzari adi zegoen pertsona. Gauza berriak agertu ahala eskuratu, probatu eta hauen erabilera sustatzekoa. Hala, urte hauetan agertu zen bideoa ezagutu zuenean, berehala ikusi zion abantaila. Euskara irakasteko eta ume eta gazteentzako ikus-entzunezko materialak prestatzeko tresna ezin bikainagoa zela ulertu zuen. Aurrelaria zen Augustin kontu hauetan.

Hori dela eta, 1982ko Lore Jokotan, jada, bideo emanaldiak eskaini eta bideo-lanak saritzeko oinarriak zehaztu zituen.

### **BIZKAIERAREN ETSIAK**

Bizkaieraren aldeko agiriak hautsak harrotu zituen eta Euskerazaintzakoei, onerako eta txarrerako, lagunak eta etsaiak agertu zitzaizkien. Etsaigoa lehenagokoa bazen ere, agiriaren ondotik, azpimarratuago geldituko ziren bai bakoitzaren pentsamoldea eta posizioa, bai alde bakoitzaren besteekiko harremanaren ozpina.

#### **Kintanaren hitzak**

1982ko apirilaren 26an, Augustin Eusko Jaurlaritzara joan zen, Euskerazaintzaren izenean, Labaien jaunarekin hitz egitera; hainbat konturen artean, Bizkaiko euskara irrati, zinema, itzul-tzaile, bikoiztaile eta abarren ahotan nola erabil zitekeen azal-



tzera. Augustinen ustez, irrati bidez lan handia egin baitzitekeen herri hizkera bultzatzeko.

Bilera hartan, Labaien jaunak bizkaierari buruz zuen iritziaren berri eman zion eta iritzi honek, Augustinen ustetan, Xabier Kintanak *Anaitasuna* aldizkarian agertutako artikulu batetik jasotakoa behar zuen izan. Aipatu artikuluaren arabera, herri hizkeran hitz egiten zuen irratia “*baserri irratia*” zen, “*euskerazko programa nolakotasun exkax eta baldresa*” eskaintzen zuena, eta “*euskera hiperbizkaitarra*”, “*joera antibatua*”, edo “*izlari batzuen mintzatzeko desegokitasun eta tonu barregarria*” jasotzen zituen.

Kintanaren ustez, bizkaiera “*baserritarregi*” zen, unibertsitate baterako duin ez, eta hor, akatsa, Augustinentzat.

#### Herri euskararen auzia

1982ko uztailean, Mutrikuko batzokiaren zabalkunde egunean, Arzalluz jaunak buruhaustetzat jo zuen euskararen auzia: “*Baiña euskera bako Euzkadi, ez da Euzkadi jatorra*” goraiatu zuen eta Augustin indartuta atera zen mitin hartatik.

Bizkaitarrek zerabiltzaten kezkak indarra hartzen hasiak zirela sumatu zuen edota, behinik behin, zabaltzen ari zirela.

Bizkaierari “herri euskararen auzia” deitzen hasi zitzaion.

#### Aita Villasanterekin muturka

1982an, aurreko urteetan bezala, Bilboko Udalaren Liburutegiak “El Sitio”n antolatzen zituen hitzaldietara joan zen Augustin. Jende asko hurbiltzen zen topaketa hauetara eta Augustinek gustura parte hartzen zuen. Ikasle asko joaten zela esateko ohitura zuen eta gazteen artean euskararen gaia erabiltzea egokia zela: gazteek nola arnasten zuten jakiteko eta,

finean, gazteak izango zirelako euskarari jarraipena emango ziotenak.

Ia urtero bezala, Aita Villasante zen hizlarietako bat. Eta 1982ko honetan, adierazpen zuhur bat egin zuen, “*etorri leiken oar edo agiriren baten aizea lakoa sartu*” zela aditzera eman: esan nahiz bezala, ez ote zen, bada, heldu, lehen jokabide baten aurkako irizpideak eman ziren bezala, orain beste honen aurkakoa ematea.

Adierazpen honek, Aita Villasanteren ahotan, asko eta askoren barruak mugiarazi zituen. Bizkaieraren aldekoek zera zioten: behin konturatuz gero egindako akatsa, ea zertan utzi behar ote zitzaion gaixoari gehiago indartzen:

“*Euskaltzaindian giro ori sortu bada, kezka ori igarten bada, zertan ixillik egon iztegi eta liburuak bete arte? Onetaz konturatu badira, zertan liburu eta iztegi geiago “batueraz” egiten jarraitu?*”.

(Deia, 1982-X-10)

“H”aren auziaz geroztik Euskaltzaindiaren eta Augustinen artean itsaso bat zabaldu bazen, “El Sitio”ko hitzaldiaren ondotik, Augustinek ez zuen iritzi gozori izango Aita Villasanteri buruz: arrazoia ez ematea, egindako akatsaz konturatuta ere bes-tela lan egiteko biderik ez zabaltzea eta herri hizkeraren aldeko hautua seriozki hartu ez izana leporatuko zizkion.

#### ...eta lagunak ere bai

1982ko urte bukaera aldera, Kardaberaz Bazkunaren II. Biltzar Nagusian parte hartzeko deia egin zioten Augustini:

“*Ez zaitugu oitura bat betetzeagatik deitzen; bizitza oitura baiño geiago da eta Kardaberaz Bazkunak bizi egin nai du eta bizitza zabaldu*”.

(Deia, 1982-XII-29)

Kardaberaz Bazkunaren helburua, 1924an Juan Mari Lekuonak Gasteizen sortu zuenetik, *“euskera luze eta erosoan erabiliko diran lurraldetara zabaltzea da”* Augustinen hitzetan; eta sorrera urteetan *“sotanadunen ikas-erakunde bat izan bazan be, gaur bazkun zabala da eta eleiz-gizonak aiña batuko dira bertan beste giza-semeak”*.

1982ko urteko batzarra Tolosan izan zen gabonzar bezperan. Eta han, Augustinek, sekula ez bezala, babes aurreratu zuen:

*“Aurtengo kardaberaztarren urteko batzarrari izen bat emotekotan, semeak saldu daben aita baten egoera negartiarena emongo neutsake nik. Eta bizkaitarrekin anaitasunekoa”*.

(Deia, 1983-I-09)

Augustini zera jakitera eman zioten: konturatzen zirela bizkaierari eman zitzaion hankarteko ostikadaz eta ostiko hori euskararen askatasunari eta biziari tiro egitea zela. Kardaberaz Bazkuna, egoera haren aurrean ez zela isilduko. Batzorde berriak aukeratu zituztela jakinarazi zioten baita, jakinarazi behar zitzaionari esan beharrekoa sits eta bits aditzera emateko.

*“Diñodan lez, aurrera duaz urtetan batzuk eta ez dabe gerorako kontzientziako ardurarik laga nai. Ardura ori, kezka ori da eurentzat agintariei eta erriari, aurrez-aurre, eskutu barik, euskera kontuan zer egin leiken eta zer ez adieraztea. Kontzientziako arazo da, gaur euskera kontuko arauak emoten dituen batzuk, batzar askotako erabagiak zelan zapaldu zituen agertzea. Agindu batzuei non eta noiz bai esan leiken, eta non eta noiz ukatu bear diran agertzea”*.

(Deia, 1983-I-09)

## LIBURU MONOGRAFIKOAK

1982an *Gure inguruak* izeneko liburu monografikoa argitaratu eman zuen Augustinek: gure herrietako jakingarri, ikusgarri, ohitura eta abar agertzen zituelarik. Augustinek, bere ezagupide, ikuspide eta irakurritakoen ondorioz prestatuko eta idatziko zuen liburu hau. Bere helburua, Lea-Artibai inguruko herriak ahalik eta hobekien deskribatzea zen, irakurleak ondo ezagutu ahal zitzaizkien. *Agur* aldizkariaren jarraipen antzekoa izatea nahi zuen. Han jasoko zituelarik idazleak, bereak zituen jakingarri batzuk eta, gainontzekoak, egunkari eta irratietan aipatutakoak.

1984an, ostera, *“Itxaso”* izenburupeko argazki lehiaketan saridun gertatutako Juan Fernandez argazkilari ondarrutarraren ezaupidea izan zuen Augustinek. Eta, berehala, bere liburuei oinarri dokumentala eskainiko zien begia eta lanerako gogoia ikusi zituen Juanengan. Honek ere, ama baserritarra izanik, baserri inguruak hobeto ezagutzera emateko premia adierazi zion Augustini eta bien artean, zortzi urtetan burutuko zuten lan eskerari hasiera emango zioten: herriz herri, auzoz auzo, Lea-Artibaiko baserri, baseliza, ohitura eta abarren berri emango zuten 12 liburuz osatutako bilduma argitaratzera helduko ziren: *Ondarroa baserri giroan, Berriatua, Ipazter, Amoroto eta Gizaburuaga, Etxebarria, Aulesti*, eta abar.

Liburu hauek idazteko, lana bitan banatzen zuten: Juanek baserrietara bisita egin, argazkiak atera eta datuak eguneratu; eta Augustinek, inguruko historia atondu eta datu berriekin liburua osatu.

*“Kendu eziñeko garra daukat nire ingurua dala-ta. Bertako edozek erabili eta erakarten nau (...) toki polit eta ikusgarri asko daukaz Euskalerririk”*.





Augustin Jon Azpillaga bertsoariarekin *Aulesti* aurkezten.

Liburu monografikoen aurkezpenak tentuz atontzen zituen Augustinek. Aurkezpen-orriak prestatu eta zabaltzera eman, eta herri bakoitzeko alkatea eta apaiza gonbidatuta, meza santua entzun lehenengo, eta ondotik, herri hartako udaletxean, bertsolari eta guzti, liburuaren gaineko jakingarriak eskaini. Herri bakoitzean zegokion liburuaren aurkezpena.

Juan Fernandezek esanetan, jende asko joaten zen aurkezpenetara: batetik, liburuak herritarrei hurbilekoak egiten zitzaizkien argibideak ematen zituztelako. Eta, bestetik, Augustinen berri irradi bidez jasotzen zutenek, ohiko entzuleak zirenek, eurentzat miresgarri zen idazle handia zuzenean ezagutu eta agurtzeko.

#### **HERRI EDERRAGO BATENGANAKO MAITASUNA SUSTATZEKO ALDIZKARIA: *ONDARROA***

1982. urte bukaeran, aldizkari formatuko *Ondarroa* urtekaria argitaratzen hasi zen Augustin. Aurrekari gisa, 1950an sortutako *Boga-Boga* aldizkaria zuen buruan: herriko berri emateko sortua (bertako zein erbestekoentzat) eta etxez etxe doan banatzen zena.

*Ondarroa* aldizkariaren bidez, herriari bere lehengo bizitzaren ezaguera eman nahi zion, herriko edergarrien gainean arreta izaten erakutsi, eta geroari begira herri ederrago baten maitasuna sentitzen eta bizitzen lagundu.

Hiru ezaugarri hauexek baitziren, hain zuzen, Augustinek, betidanik, Ondarroako herriari faltan ikusi zizkionak: herri langile, euskaldun eta indartsua izanagatik, ohiturak gordetzeko, norbere herriaz harro sentitzeko eta etorkizunera begirako ekimenak aurreikusteko irudimen falta.

Horra, bada, *Ondarroa*, herria ezagutarazteko tresna bikaina.

*Boga-boga ez bezala, Ondarroa aldizkaria salgai jarri zen eta, herritarren kexuen aurrean, Augustinek honela agertu zuen bere haserrea:*

*“Jantzi zoroetan, tio-vivoetan edo ta diru erantzaille makinetan millaka pezeta emon eta miñik ez dogunok, onelako lan bat “iñoren patrikaratik ordaindua” izan bear danaren asmo eta gurari dogu.*

*Baiña gure kultureari, erri-kulturea gogokoen dala, gure ardureagaz artu eta laguntzen ez ba dautsagu, ziur egon gure auzokoak ez dauskuela beteko gure utsunerik, zoritxarrez eurak be euren beteteko egoera bardiñean gertatuko diralako”.*

*(Deia, 1982-VIII-21)*

Augustinek ez zien sekula jantziei eta jan-edanei aparteko garrantzirik eman. Bai, oster, kultura bultzatzekoak ziren liburu eta aurrerapideei. Eta oso kritikoa zen kulturaren alde dirua eskatzen zuenean kexu zirenekin; batez ere, beretzat alferrikakoak ziren gauzetarako barra-barra erabiltzen zutenekin.

Urtekari hau urtero-urtero argitaratzen jarraituko zuen Augustinek gaixotu zen arte.

## LAN BERRIAK ETA LAGUNAK GOGOAN

1982-84 urteetan, bizkaieraren aldeko lana indartzeko eta bere garaiko idazleen lanak ezagutzera emateko, bi lan berriri lotu zitzaion Augustin: bata, literatur lehiaketetan epaimahai-kide izateari eta, bestea, bere garaiko idazleei buruz idazteari.

### Epaimahai-kide lanetan

Bizkaieraren lekuak zein izan behar zuen jakinarazteko hitzaldiak eskaintzeaz gain, idatz lehiaketetara bidaltzen ziren bizkaierazko idatzien tratamendua egokia izango zela berma-



Augustin Gernikako arbolaren aurrean.



tzeko, Augustin literatur lehiaketa askotariko epaimahaikide lanak burutzen hasi zen.

Epaimahaikide zereginetan, sei aspektu izaten zituen kontuan, 1etik 10era bitartean puntuatuz: haria, asmamena, joskera, idazkera, hiztegia eta aditza. Eredu antzeko bat egina zeukan, eskuz betetzen joaten zena, eta idatzi bakoitzaren gaineko balorazioa eredu horretan txertatzen zuen, azkenean, aspektu guztien bataz bestekoa ateratzeko. Orriaren oinarrian jartzen zituen bere iruzkinak eta iruzkin hauetatik baliatzen, ondoren, epaimahaiaren erabakiaren berri ematerakoan, bere iritzia eta balorazio orokorra eskaintzerakoan edota aktetan epaimahaiaren epai orokorra islatzerakoan.

Sariketetako epaimahaikide izateko deitua izateak, bere ekarpena eta iritzia kontuan hartzen zirela esan nahi zuen eta merezimendu gisa ulertzen zuen Augustinek.

Literatur Sari askoren artean, Euskal Herriko Sari Literarioetako (Jon Mirande Nobela Saria, Lizardi Poesia Saria, Pedro I. Barrutia Antzerki Saria eta Pedro Axular Saiakera Saria) epaimahaikide izan zen, baita "Imajina ezazu Euskadi" sarikoa ere, besteak beste.

### Lagunak gogoan

Aipatu urte tartetan hasita, bai idatziz bai irratiz, bere garaiko idazle eta lagun askoren heriotza aitzakiatzat harturik, hauekin izandako harremanen eta hauek egindako lanaren berri ematen hasten da Augustin.

Bere helburua, herriarentzat ezezagunak ziren idazleak eta hauen lanak ezagutzera ematea. Augustinen ustez, gure herriak ez zituen bertoko idazle eta euskara eragileak behar beste ezagutzen, ezta aintzakotzat hartzen ere. Hori dela eta, bere esku zegoena egiten saiatzen da: halaxe hitz egingo du Iñaki Begiris-

tain antzerkigileaz, Aita Justo Mari Mokoroaz, Aita Berriotxoaz, Nemesio Etxanizi buruz, Zipitria andereñoaz... edota Tomas Agirre "Barrenoro", Kirikiño, Juan Iruretagoiena, Fernando Artola "Bordari", Aita Eustasi, Norbert Tauer, Patxi Etxeberria, Aingeru Irigarai, Manuel Lekuona... eta beste hainbati buruz.

### Emakume idazleekiko harremana

Augustinen obra eta bere bizitzan zehar izandako harremanak aztertuta, lau emakume mota deskribatzen dizkigula esan liteke: ikuspegi erlijioso batetik, bekatariaren figura; ikuspegi politikotik, emakume aktibistarena; ikuspegi antropologiko eta literariotik, etxea zaintzen duenarena; eta ikuspegi sortzailea kontuan hartuz gero, idazle bezala izandako harremani eta irakurketei esker ezagututako emakumezko idazle askotarikoak.

Hauetatik guztietatik, harreman estuena, Tene Mujika debarrarekin izan zuen. Teneren *Idazkiak eta Olerkiak* (1923) liburua erreferentzia esanguratsua izan zen Augustinen gaztetako irakurketen artean; erraza eta bizkorra, mamitsu eta gartsua zela esan ohi zuen eta Teneren idatziek bihotz asko ukitu eta abertzale asko egin zituela gogoratzen. Aldamenean izan zuen Augustin 1935ean ere, Antzerti Egunean *Gogo oñazeak* lanari esker bigarren saria eman ziotenean.

Tenek, itsu geldituta gero ere, Augustini eskuz idatzitako gutunak helaraziko zizkion, beren harreman betierekoaren erakusgarri.

### BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO AHALDUN (1983-1987)

Augustinek bere ingurua aldatzen sumatzen zuen baina, ez zeuzkan ahazteko bere bizitzan zehar faltan botatakoak, ez eta bere kontzientziak gaizki ikusten zituenak ere. Bere ustez, eus-

kalduna zenak, bere herrialdeko gorabeheraz arduratu, kezkatu eta ekiteko kontzientzia hartu behar zuen. Ahal izanez gero, bakoitzaren indarrez; edo bestela, ordezkarien bidez. Euskaldunak gauza guztien gaintetik, herriaren onari begira jarri behar zuela uste zuen: *“Euskaldun lez, Euskalerrinari begira, Euzkadiri begira”*.

Herrien jokabidea, euskaldunen agindu eta gurarien erara zehaztu behar zela sinisten zuen; legezkoa zela horrela egitea. Horretarako, euskaldunak bere eskubideak hartu, zaindu eta erabili behar zituela. Hori dela eta, gai batzuetan ardurarik eza onartu litekeela aipatzen zekien:

*“norbere bizitzari, izateari, soñari eta gogoari ukitu egiten dautsanean, ardurarik eza koldarkeri, ustelkeri eta norbere saltzea izan lei”*.

Arrazoi hau dela medio, EAJko hautagai gisa Batzar Nagusietako Ahalduen izateko deia egin ziotenean, herritarren eskubideak eta, hauen artean, hizkuntzarekin eta kulturarekin zerikusia zutenak, landu eta babesteko, baiezkota eman zuen.

Bizkaiko Batzar Nagusiak urtean hiru aldiz biltzen ziren: apirilean, uztailean eta azaroan. Betebehar nagusia, Aldundiaren kontu orokorrak onartzea eta Batzarretako Mahai Nagusi edo Iraunkorrak denbora tarte horretan edukiko zituen ardurak zehaztea; Augustin, kultura sailean sartu zuten, euskarari begira: *“begiratu bear dalako, gure bearra dalako”*.

*“Makilla bako agintea da gurea. Oraintsu batek esaten eustan: ba zoaze orain be Gernikara bai-bai esatera. Nik, antxiñako antzerkiko kontuak gogoratuta, erantzun neutsan; gizona dan gizonak ezetz esaten be jakin bear izaten dau. (...) Aldun aukeratu ginduezanak ez gara ara joaten an zek urtengo. Aurrez*

*tanboliñari eraginda joaten gara, gaiak al bestean agertu, gertu, aztertu eta eztabaidatuta, ordu luzetako batzarretan”*.

(Deia, 1984-I-14)

Batzar Nagusietara joateko eta urte hauetan eskainiko zituen hitzaldi, burutuko zituen lan eta mantenduko zituen harreman guztietara heldu ahal izateko, Andres Laka taxilariaren laguntza eskerga izan zuen Augustinek.

Andres Lakak Augustinengan gizon handia, jakintsua eta umila ezagutu zuen: Batzarretara eramaten zuen, bileretara, bazkari handietara, Euskal Herri osoan barrena bidaiatuz, beti puntual, beti ordua aurretik hartuta, presarik gabe... Lakak bazekien puntuala ez izateak artegatzen zuela Augustin eta hitza emandakoan ez betetzeak. Sekula ez zioten, beraz, hitzordu bati huts egin. Biharamunerako lan bat egin behar baldin bazen edota hara edo hona joateko geratzen bazen, bada, esandakoa egingo zuten, euri zein txingor.

Bileretatik bueltan, bazkari asko konpartituko zituen Augustinekin, eta baita idi proba edo pilota partidaren bat ikusi ere, elkarrekin, pilota-zale sutua baitzen Augustin eta mahaiairen inguruan mesede-zorrak ordaintzekoa.



## **EGINA ETA IZANA LOTU NAHIAN (1984-1985)**

### **EMAZTEA JOAN ETA BILOBA ETORRI**

1984ko ekainaren 4an Augustini emaztea, Maria Jesus Erkiaga, hil zitzaion. Alargundu egin zen, bada, eta tristura handiak hartu. Sei seme-alabetatik hiru ere, jada, urte horretarako etxetik atereak ziren, batzuk ikastera, besteak ezkondata. Emaztea hil aurretxoan, ezkontetxea utzi eta bere jaiotetxera bueltatu zen berriro Augustin, eta han biziko zen aurrerantzean, harik eta heriotzak harrapatu arte. Bere idazle-gela ere orduan atonduko zioten etxeok, lana lasai egin ahal izateko, bere liburutegia gertu edukitzea eta bisitak jasotzeko.

Ez zen sekula bere familiari buruz hitz egitekoa izan. Bere izkribuetan ez da aipurik agertzen. Etxekoan intimitatea ondo gordetzen eta zaintzen ahalegindu zen.

Ez zitzaion, ezta ere, zer nobelatan edo narraziotan lanean ari zen aipatzea gustatzen. Behin idatzita gero bai, baina ordu arte, isilean egiten zuen lan. Etxekoak eta idatzietako gaiak bereberek zituen. Ez sekretuak, bai intimoak.

Emaztearen heriotzarekin, ordea, Augustinek salbuespen txiki bat egiten duela esan liteke edota saminak eragindako

beharrak, bere hausnarketaren eta sentimenduen gainean lerro batzuk idaztera bultzatu zuela:

*“Barruan ittoten diran gauzak ez dauke indarrik... Origatik, nire emaztea, igarri barik, bigun bigun, begiak itxi eta oritzen asi zanean... nire berbak pentsaera baten moteldu ziran, eztarriko ittotasunean aozkatu eziñez geratu. Eta nire pentsaerak besterik ez ekin bururatzen au baiño: emen guk emon ezin al izan dautsugun bakea, Jainkoak emongo al dautsu betiraun luzean! Gizon izatearen argaltasuna ezagutzea da eta Jainkoaganako sinistea indartzea”.*

(Deia, 1984-VII-03)

Eta senar-emazteen arteko begiruneari buruz honela jardun zuen:

*“Baiña sekula ez da galtzen senar emazteen alkarganako kate-rik. Begirapena deitu, edo ta lotsa. Bildurra edo ta itxurak betetea. Ezkutuko edo argitako, fede eta bertute, maitasun edo menpetasun, or geldituko dira, beti, itxura baten edo bestean. Eta beti dago, barruan beintzat, besterik ezik ixillean, parkamena. Aldendu bearra etortzen danean, ziurtatzen danean, gela bateko gabetako luzeak, bizitzako aria luzatu eta emon al daben bestean, bat, itzik ez eta ezaupiderik ez daukan kutunaren inguruan, min edo arnastuen ardurapean aurkitzen danean... biotzak erantzun bear, eta gogorra izanarren be, ez zotin barik”.*

(Deia, 1984-VII-03)

Lerro gutxitan deskribatzen du Augustinek senar-emazteen arteko urteetako harremana, gai horren aurrean bere kezka eta aitortza. Eta, azkenean, aurrera begiratzen du, Augustinengan ohikoa den bezala, zera esanez: *“Joanak joan, jarraitu daigun gure zeregiña beteten. Bizitzako legea da”.*

Emaztea hil eta gutxira, ostera, bilobatxo berria datorkio Augustini, bere alaba Maria Jesus-en alaba, Maddi. Sei bilobatxo zituen aurretik: Anton, Maria, Elena, Gorka, Igor eta Nerea. Eta Maddiren ondoren, beste bi ezagutuko zituen: Lore eta Beñat. Lehenengoz aitita egin zeneko arrada sentituko du berriro Augustinek, bai bizi berriak suposatzen duen edertasunagatik, bai “aitona” tituluaren aitopenagatik: *“Ba dirudi, bakoitzaren izatea be aldatu egiten dauala”* aitortuko zuen. Benetan hunkitu zen Augustin eta gertaera zoriontsuak bere bizitzari eta betebeharrari beste begi batzuekin begiratzeko kemena eman zion.

Betidanik umeei begi onez begiratzekoa izan bazen ere, hemendik aurrera, beharbada, Augustinengan begirada hori xamurtu eta indartu egiten dela esan liteke: umeen hizkuntzaren gainean, umeentzako idatzi beharreko ipuinei buruz, umeei irakatsi beharreko euskararen inguruan eta umeen hizkuntza erabileraren azterketetan areago murgilduko da.

### **HERRIARENA DENA HERRIARI EMATEKO: ONDARRU, KANTU, OTOI, ORRU...**

1984an idatzi eta argitaratu zuen Augustinek *Ondarru, kantu, otoi, orru...* herri jakintzaren inguruko argitalpena; doinu eta berba, musika eta hitz, eta zaharren abesti jatorrez osatutako liburuxka: abesti horietatik bost estropadetakoak, lau gabon-erregetakoak, bost herri gertaeretakoa, lau jaietakoak, lau kresal usaindunak, lau maite mintsuak eta bost sinismenak eragindakoak ziren.

Lehen argitalpen hau, urtero segida izateko asmoarekin sortu zuen Augustinek. Gurasoengandik jasotako kantuak, otoi-tzak eta herriko gertaerei buruzko kontakizunak harribitxiak



ziren Augustinentzat eta, tamalez, galtzeko arrisku bidean ikusten zituen. Kantu eta kontu horiek guztiek ez zeukatela segidarik iruditzen zitzaion. Horiekin jarraitzeko alferkeria ez baina zabarkeria nabaritzen zuen herritarrengan. Eta berak, fin-fin, denak batu, argitaratu eta non eta nola kantatu edo kontatu behar ziren aipatzen zuen. Bere ustez, ez zen zintzo jokatzera, kantu eta kontu horiek ezaguturik, kalera atera eta zabaltzen ez ahalegintzea.

Horregatik bada, ardura hori bere gain hartuz, honakoan ere, bere eskuan dagoena egiten ahalegintzen da: batetik, liburu hau argitaratu eta, bestetik, Ondarroako kultur etxean sentiberatasun hau zabaltzeko urtero lehiaketak antolatu eta Ondarroako gertakizun, hitz, esamolde, itsas gertakari eta kantu zaharren lehiaketak prestatu zituen, hain zuzen ere, horiek guztiak herriarengandik jaso eta berriro, argitalpen ezberdinen bidez, herriari jakitera emateko: *“erriarena dana erriari emateko”*.

## HIZKUNTZA BIZIAREN ALDE

1984an Euskaltzaindiak, hiru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak itun bat izenpetu zuten Koldo Mitxelenak zuzenduko zuen hiztegia egiteko. Egitasmo erraldoi honen aurrean, Augustin beldur eta garratz agertu zen, hiztegi hartan agertuko ziren hitzak “hitz hilak” ez ote ziren izango, batuerazkoak eta, beraz, gatz gabeak.

Eta sortu berri zen ETBren kontra ere gogor jardungo zuen, bertan erabiltzen zen euskara “artifiziala” zela salatuz. Kotxea hartu eta hainbat herritara hurbildu zen inkesta antzeko bat burutzeko: herritarrei ETBko albisteak eta programak ulertzen ote zituzten galdetuaz osatuko zuen inkesta. Galdeketetatik jasotako emaitzaren arabera, bizkaitarrei ETBko hizkera urrutikoa

egiten zitzaizela salatu zuen. Gaztetxoenei ere galdetuta, umeak euren herriko hizkeraz lotsatu egiten zirela sumatu zuela zioen; eta egoera hura barkaezina ez ezik, bekatutzat jotzen zuela.

Nork bere herriko hizkera indartu behar zuela aldarrikatu zuen berriro, herrietako hizkera zela “hizkuntza bizia”. ETBk zekarren euskara hila zela eta, gainera, ikus-entzuleek halako lotsa edo konplexu antzekoa sentitzen zutela telebistakoa bezalako euskara egiten ez zutelako.

Augustin ez zen nekatu salatzen eta eskatzen hedabideetako hizkeraren oinarrian herri euskarak behar zuela egon. Urteak geroago konturatuko ziren hedabideak premia horretaz.

Augustinek bazekien hedabideen indarrak eta eraginak. Arrazoi hori dela medio, ETBren hizkuntza irizpideen kontra gartsu aritzeaz gain, bere esanak eta eskaerak kontuan hartuak izan zitezten, irratietan ahal zuen guztietan kolaboratuko zuen, herrietako kontu, ohitura, sinismen eta abarrei buruzko jakintza “herriko hizkeran” hedatuz.

## ERKIAGAREN GUTUNA

1985ean, Augustinek Ondarroan antzerki laburren sariketa antolatu zuen. Ohi bezala, antolatutako sariketetan parte hartzera gonbidatu zituen bere lagun edo ezaupidekoak. Gutun bidez harremanetan jarri, sariketaren oinarriak eta helburuak zeintzuk ziren azaldu eta, parte hartuz gero, asko poztuko litzatekeela adieraziz.

Deialdi honi erantzun nahian, Eusebio Erkiaga lagun minaren gutuna jaso zuen Augustinek: aipatu sariketara antzerki-lan batekin aurkeztu zela jakinarazten zion Eusebiok, *“baina, bizkaieraz idatzi dot”*.

Biek ala biek zekiten Eusebioren hitzek zer esan nahi zuten: bizkaierazko lan bakarra izan zitekeela, alegia, eta epaimahaiak, beharbada, obra haren aldeko hautua egin beharko zuela bizkaiera kontuan hartua izatea nahi bazuten...

Biek zekiten, eurek bizkaieraz egiten ez bazuten, beste inork ez zuela egingo; eta biek zekiten, bizkaieraren aldeko ahalegin berezirik egiten ez bazuten, bizkaiera, bere horretan ahuldu eta galduko zela.

Gutunaren lerro artean idazlearen bazter sententzioa islatzen zen: bai idazle bezala, bai hautatu zuten euskara moldearena; hedabide handiek eta literatur korrante berriek batuaren aldeko hautua eginga zuten jada.

Lerro artean irakur zitekeen, baita ere, bazekitela jendeak bihurri eta kaskagogortzat jotzen zituztela eurenarekin jarraitzen zutelako eta bizkaieraz eta bizkaieraren alde egiten zuten ia bakarrak zirelako... baina biek ala biek, sakonean, bazekiten, eurena, herriaren nortasunaren aldeko hautua zela.

### ***Itxastarrak*, Augustinen eleberririk onenetakoa**

1985ean argitaratu zuen Augustinek onenetakoa izango zuen bere *Itxastarrak* eleberria.

Egitura: 44 kapitulu txikik osatutako eleberria da *Itxastarrak* baina sakonean, bi atal nagusi bereizten dira bertan: lehen atalean, Peru marinel gaztearen itsas gertaera garrantza jasotzen da eta honek eta bere ama Idurrek Simon arrantzale nagusiarekin duten harremana; bigarrean, Peru agure bilakatu ondoren, arrantzale zaharren bizimodua nolakoa den jakitera eman nahi du Augustinek.

Gaia: Eleberriaren gaia edo izaera, ohiturazko eta historikoaren artean kokatzen da, non Ondardi (=Ondarroa) deituriko itsas herriko bizitza, herritarren bizimodua eta izaera,

ohiturak eta sinismenak, eta jokamolde zuzenak eta gaiztoak ezagutzera ematen diren.

Narratzailea: Narratzailea, argi eta garbi, pertsonaia nagusiaren alde kokatzen da: lehen atalean, Simonen larruan sartuta eta, bigarrean, Perurenean.

Narratzaileak, bere begiz egindako deskribapenak eskaintzeaz gainera, historia egiteko profitatzen du eleberria: garaiko ogibideak, itsas tresnak, elizkizun motak, izenordeen erabilera, belaunaldien arteko hausturak eta arrantzale zaharren etorkizunaren gaineko kezka azaltzeko edo bere iritzia emateko.

Antzerkiaren isla: Erritmo biziko eleberri honek baditu antzerkigintzatik hartutako ezaugarri hainbat: batetik, narratzaileak, pertsonaiak antzezleak bailiran, eleberriaren harian pertsonaien deskribapenak txertatzen ditu, kapitulu osoak deskribapen horiei eskainiz. Bestetik, eleberriaren kapituluak laburrak eta lekuen deskribapenak zehatzak dira; gertaerak azaldu egiten zaizkio irakurleari, ondotik, elkarrizketen bidez ilustratzeko.

Hizkuntza: Hasiera indartsua duen eta tentsioa mantentzen dakien eleberri honen ezaugarri bikainena, betiere, hizkuntzaren erabilera da. Itsas hitz berezi eta ugariz betetako kontakizuna, sinonimoz josia, itsas esaez bustia eta eleberriaren izaerari eta pertsonaiei berezko jitea eskainiko diena. Liburuaren hondarrean, itsas hiztegia eskaintzen du idazleak, irakurleak hitzen esanahia ezagutu dezan.



## **MEREZIMENDUEN ARTEKO AGURRA (1985-2004)**

### **MEREZITAKO AITORTZAK**

1985ean, Euskalerrriaren Adiskideak elkarteak bazkide izendatu zuen Augustin eta 1986ko apirilaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldia eskaini zion, Jose Maria Makua diputatu nagusiaren eskutik saria eskainiz.



Augustin Bizkaiko Foru Aldundiak egindako omenaldian.

Urte berean, Labayru ikastegiak ere merezimenduak aitortu zizkion Augustini eta Juan Mari Uriarte Bizkaiko Gotzainaren agurra jaso zuen.

Ondarroako udalak ere, lehen omenaldi xumea egin zion.

Merezimendu eta aitorten hauek Augustin ez zuten pataldu, baizik eta bere bidean tinko jarraitzera gonbidatu. 1986an, *Berriatua* liburu monografikoa idatzi zuen eta bi itzulpen prestatu: *Bizkaiko Batzar Nagusiak* (gaztelaniatik) eta *Lugo'ko ipuin errikoiak* (galegotik).

EAJ eta EAren banatze unean, Ardanza lehendakariarekin aurrez aurreko elkarrizketa mamitsu bat izatera deitua izan zen Augustin beste hiru lagunekin batera. Helburua, Euskadiren hainbat buruhausteri buruz hausnartzea. Augustinek EAJ-EAren



Augustin Ardanza lehendakariarekin aurrez aurre.

arteko banaketa ez zuen begi onez ikusten eta deitzeko moduari zegokionean ere, alderdia “erdibitu” edo “banatu” egiten zela esan ordez, berak, “taldetu”, “sailkatu” eta antzekoak erabiliko zituen. Berandu baino lehen, berriro bat egin beharko zutela pentsatzen zuen eta ideia horren aldeko agertu zitzaion lehendakariari ere.

Topaldi hartan, Augustinek, bere azken liburua, *Peru eta Mari gureak* oparitu zion lehendakariari. Betiko ohitura zuen Augustinek, bisita guztietara bere libururen bat besapean eraman eta oparitzea. Eta handik egun batzuetara, Jose Antonio Ardanzaren esker ona eta zoriona jaso zuen, liburua irakurri eta atsegin izan zuela esanez.

1987an Bilboko Uri Zaharreko III. Ipuin lehiaketan lehengo saria irabazi zuen eta 1988an, lehendabiziko aldiz Argia Sariak banatu zirenean, Luzien Etxezaharretak jaso zuen irratia saileko saria, Martin Ugaldek prentsa idatzian, eta Mikel Olazabalek telebista sailean. Aipamen berezia jaso zuten, halaber, Euskalerria Irratia Nafarroako irrati sortu berriak eta *Eguna* euskarazko lehen egunkarian jardundako Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Basarri eta Uzturrek.

Esker ona jasotzen du sariketetatik ere, berak antolatutako lehiaketetan parte hartzen dutenengandik, bere liburua jaso-takoengandik eta egunkarietan idatzitako zutabeen irakurleen-gandik...

Augustinek harreman-sare zabala zuen, urteetan egin eta zaindutakoa. Gabonetan, harreman-sare guztia kontuan hartu eta banan-banan, denei idazten zien eta ez zorion agur lerro laburra, baizik eta bakoitzari bere dedikatoria, urtean zehar idatzitako edo elkarrekin izandako harremana gogora ekarriz,



edota esku artean zuten lanen bat aipatuz. Guztiekin konplizten zuen. Eta halaxe jasotzen, bueltan, merezitako esker ona.

### ARRANONDO ALDIZKARIAREN SORRERA

80ko hamarkadaren bukaera euskal kazetaritza suspertu zeneko garaia izan zen. *Hemen* eta *Eguna* egunkari formatuko astekariak plazaratu ziren *Egin* eta *Deiaren* eskutik; *Gaur Express* egunkari elebiduna argitaratu zen; Euskal Kazetarien Elkartea sortu eta kazetari euskaldunen lehen bilera egin zen UEUn; Rikardo Arregi kazetaritza sariketa antolatu zen estreinakoz; *Vasco Pres* albiste agentzia euskarazko zerbitzuak eskaintzen hasi zen, eta 1990eko abenduaren 6an *Euskaldunon Egunkariaren* lehen aleak argia ikusi zuen.

Honetaz guztiaz gain, 1987an, Arrasaten, AED elkarteak sortu zen herrian euskara bultzatzeko eta helburu horrekin, euskara hutsezko lehen herri aldizkari profesionalizatua, *Arrasate Press*, sortu zuen.

Urte horretan bertan, Ondarroako euskararen udal batzordeak erdara hutsezko agiri ofizialik ez onartzea erabaki zuen; aurretiaz, euskara hutsezko udal aldizkari bat abian jartzeko lehen urratsak ere emanak zituen *Aixe-bolari* eta *Udal berriak* argitalpenekin.

Augustinek, betidanik eskaini zion berebiziko arreta herri prentsari, *Boga-Boga* aldizkarian kolaboratzaile lanak egin zituenetik eta baita, gerora, *Ondarroa* urtekaria argitaratzen hasi zenean ere.

Argi zuen, hala ere, *Ondarroa* urtekariaren ikuspegia historikoa zela eta lotan zeuden kontuak argitaratzea zela haren helburua, herri jakintza astintzea eta gazteei herriko bitxikeriak aztertzeke gogoia piztu eta lehengia ematea.

Herri bat euskalduntzeko, ostera, ikuspegi historikoa zera-bilen urtekaria baino zerbait gehiago behar zen. Hori dela eta, inguruko esperientziak ezagututa eta Argia sariak betidanik izan zuen kazetari sena esnarazita, Ondarroan Arranondo Kultur Elkartea sortu, eta elkarte honen buru eginez, *Arranondo* aldizkariari argi eman zion. Arrasatek AEDrekin eta *Arrasate Press* aldizkariarekin irekitako ildoari jarraituko zion Augustinek, nahiz eta *Arranondo* aldizkariaren formatua *Arrasate Press*-ena baino xumeagoa izan, eta hizkuntzari zegokionean, noski, bizkaieraz izango zen, hein nagusi batean.

### ONDARROAKO HERRIAREN OMENALDIA: AMETSA EGIA BIHURTUA

1990ko hamarkadaren hasierarekin batera, merezimendu aitortza gehiago heldu zitzaizkion Augustini: 1991n Euskadiko IX. Euskal Antzerki Topaketetan antzerkigintzari eginiko ekarpena aitortu zioten eta 1992an, Ondarroako herriak, ongi merezitako omenaldi gozo eta hunkigarria eskaini zion. Urte horretako urrian eta azaroan hainbat kultur ekintza antolatu ziren idazlearen omenez, Augustinen izena daraman plazan gerritik gorako irudia ezarri eta, abaguneaz baliatuz, omenaldi-liburuxka argitaratu zen.

“Herriko seme txit argi” izendatu zuen udalak eta Augustinen liburu, idazlan eta eskuizkribuekin erakusketa gogoangarri bat prestatu zen herrian. Omenaldi ekitaldi arranditsu honi bukaera emateko, *Kresaletan* obra antzeztu zen udal kiroldegian, behinola bezala, herriko ia 100 lagunek parte hartu zutelarik antzezlanean.

Augustinek, erakustaldi honekin, bere amets txiki bat handi egina ikusi zuen: belaunaldi gazteei, hau da, bere biloben adine-



Augustin, Ondarroan, bere izena daraman plazan.

koei, berak irudikatutako eta deskribatutako arrantzale herriaren izaera, ohitura eta sinismen eta hizkeraren berri ematea.

Merezimenduak aitortzen hasita, Euskaltzaindiak ere ez zuen atzean gelditu nahi izan eta, 1993an, ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

### AGURRA PRESTATZEN

1990ko hamarkadaren hasieran, lagun kutun-kutunak hilko zaizkio Augustini. Besteak beste, Lino Akesolo eta Eusebio Erkiaga. Eta bi lagun hauei buruzko iritzia ematerakoan, elkarrekin egindako lanaz, egindako bidez eta etorkizunera begira utzi beharrekoaz konturatzen da.

Hori dela eta, bere agurra prestatze aldera, 1994an, *333 oroipen eta ikuspegi* liburua argitaratzen du eta 1995ean *Sits eta bits, gure gaiak*. Biek ala biek, 70eko hamarkadatik aurrera egunkarietan (*El Diario Vasco* eta *Deian*, batik bat) idatzitako artikuluak jasotzen dituzte.



Augustinen omenez antzeztutako *Kresaletan* obra 1992an.



## GAIXOALDIA ETA HERIOTZA

1998ko urriaren 3an gaixotu zen Augustin. Burmuin isuria izan zuen goizaldean eta oinez ibili ezinda eta hitza totalduta jaiki zen. Harrezkero, ezin izan zuen gehiago idatzi. Hitzik ezin egin arren, entzuten zuena aditzen zuen. Sufri-mendu galanta, idaztera eta bere pentsamendua azaltzera ohituta zegoen idazlearentzat, jasotzeko gaitasuna bai baina ematekoa mugatuta izatea!

Ohean, Bizkaia Irratia entzun, egunkaria irakurri eta telebistan bere gustuko programak (esku-pilota, dokumentalak eta albistegiak) ikusiz pasatu zituen azken urteak. Egunkarien bidez, bere seme-alaben ibilbidea gertutik jarraitzen zuen (kronikak eta sarien berrien gaineko albisteak irakurritz) eta baita inguruko ezagunena ere: eskelak egunero birpasatzen baitzituen.

Hitzik gabe egon arren, keinuen bidez argi eta garbi ematen zuen aditzera zer nahi zuen eta betebeharrak azken azkenegino agindu zituen egiteko: adibidez, ezagunen eskelak irakurritzerako, familiari dolu-hitzak bidaltzea. Betidanik eta betirako konplutuko zuen ingurukoekin.

2004ko uztailaren 2an eman zuen azken arnasa euskal idazleen artean ugarienetakoa eta bizkaieraren barrutian gorengoa izan zen Ondarroako seme txit leialak, Augustin Zubikarai idazleak.

## KRONOLOGIA

- 1914 Azaroaren 3an jaio zen Augustin Zubikarai Bedia-launeta, Ondarroan. Salbador Zubikarai eta Ana Bedia-launetaren hirugarren semea.
- 1914 *I. Mundu-Gerraren hasiera. Einsteinek erlatibitatearen teoria formulatu zuen.*
- 1917 *Iraultza sobietarra.*
- 1918 *I. Mundu-Gerraren amaiera. Euskaltzaindiaren sorrera.*
- 1920 Gurutzetako Alabak lekaimeen eskolan sartu zen.
- 1923 *Primo de Riveraren estatu-kolpea Espainian.*
- 1924 Saturrarango Seminarioan ikasten hasi zen.
- 1929 Gaixotu egin zen eta Saturrarango seminarioa utzi. *Jaungoiko-Zale* aldizkarian idazten hasten da.
- 1929 *New Yorkeko burtsak krak egin zuen.*
- 1930 Gasteizera doa ikastera eta handik Zornotzara: Jaungoiko-Zale Bazkunaren astekari berria antolatzea. Ondarroan, berriz, Luistarren Bazkunako zuzendari izendatzen dute.
- 1931 *El Dían* kronikak idazten hasten da.
- 1931 *II. Errepublikaren aldarrikapena Espainian.*
- 1932 Otsailean, *Ekinen* kronikak eta artikuluak idazten hasten da. Ondarroan "Sorkunde Garbiaren idaztegia" izeneko herri liburutegia irekitzen da. Abuztuan, *Euzkadin* idazteari ekiten dio. Lauaxetarekiko harremanak estutzen ditu.
- 1932 *Lehenengo Aberri Eguna. Lizardiren "Biotz begietan" argitaratu zen.*



- 1933 Batzokian antzerkiak prestatzen hasten da.
- 1934 Lehen olerkiak argitaratzen ditu *Euzkadin* eta *Aberrijagaz bizi*, lehen antzerkia.
- 1935 Lehen omenaldia Ondarroan.
- 1936 *Espainiako Gerra Zibilaren hasiera. J.A. Agirre lehendakari hautatu zuten.*
- 1936 Irailaren 20an Baionara ihes egiten du eta Parisera joateko deia jasotzen du. Bilbon, Lauaxetarekin bat egin eta *Euzkadiren* "Guda-otsak" sailerako idazten hasten da.
- 1937 Urtarrilaren 1ean *Egunaren* lehen alea argitaratzen du lankideekin batera. Ekainaren 13an *Eguna* ixten da. Castron, preso zegoela, sarna batzen du.
- 1937 *Gernikako bonbardaketa. Lauaxetaren fusilamendua. Eusko Jaurlaritza erbestera.*
- 1939 Urtarrilaren 4an, 9 kazetari trukatu zituzten, Augustin tarteko, Irunen.
- 1939 *Espainiako Gerraren amaiera. II. Mundu-Gerraren hasiera.*
- 1940 *Alemanak Ipar Euskal Herrian.*
- 1941 Gerratik etxera bueltatzen da Augustin.
- 1942 Eako Maria Jesus Aldamizekin ezkontzen da.
- 1943-1956 Sei seme-alaba izaten ditu.
- 1945 *II. Mundu Gerraren amaiera.*
- 1949 Gerra osteko lehen saria jasotzen du, Miarritzeko Lore Jokoetan *Itxasora* antzezlanarekin.
- 1949 *Alemanien bereiztea. NATOren sorrera.*
- 1950 *Boga-Boga* aldizkaria sortu eta bertan kolaboratzen hasten da.
- 1954 *Vietnam bitan banatu eta bien arteko gerra hasi zen.*
- 1955 *Vartsoviako itunaren sorrera.*

- 1956 Itsas eskolako Zuzendaritza-Batzordekide izendatzen dute. Gerra osteko lehen antzerkia antzezten da Ondarroan: *Seaska inguruan.*
- 1958 *Jaunaren bidetan* antzezten da, lau ahotsetara.
- 1959 *ETAren sorrera eta Kubako iraultza.*
- 1960 *J.A. Agirre lehendakaria hil zen.*
- 1961 *Kresaletan* eskaini zen, lehen aldiz, Ondarroan. Euskaltzain urgazle izendatzen du Euskaltzaindiak.
- 1961 *The Beatles taldea sortu zen.*
- 1962 *ETAk bere lehen Biltzarra antolatu zuen: euskara Euskal Herriko hizkuntza nazional bakartzat aldarrikatuz. Francoren gobernuak salbuespen egoera ezarri zuen Gipuzkoan eta Bizkaian hiru hilabetez.*
- 1963 *Kennedy lehendakari estatubatuarraren hilketak.*
- 1964 Txomin Agirreren omenezko Lore Jokoak antolatzen ditu Ondarroan. Kresala elkarteak sortzen da.
- 1964 *Vietnameko gerra.*
- 1965 Musika gabeko lehen antzezlanak taularatzen du: *Zurrukutun.*
- 1966 Piñuetako madalenak bere lehen eleberria argitaratzen du.
- 1968 Arantzazuko bileraren kontura, Augustinek Euskera-zaintza sortzen du.
- 1968 *Ikasleen matxinada Parisen. Martin Luther King hiltzen dute. Eta Euskaltzaindiaren Batzarra Arantzazun euskara batuaren oinarriak jartzeko.*
- 1969 *Motrico* idazten du, lehen liburu monografikoa.
- 1970 *Burgosko prozesua.*
- 1973 *Lehen Petrolio krisia.*
- 1975 *Franco diktadorearen heriotza.*

- 1977 *Deian* kolaboratzen hasten da.
- 1978 Euskerazaintza legeztatzen da.
- 1980 Erretiroa hartzen du. Buru eta bihotz kulturari eskainita biziko da aurrerantzean.
- 1980 *Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzza berriko lehendakari.*
- 1981 Ondarroako kultur etxearen zuzendari izendatzen dute. Bizkaieraren aldeko agiria aurkeztu zuen Gasteizen.
- 1982 Lore Jokoak antolatu zituen Ondarroan. *Ondarroa* urtekaria argitaratzen hasten da.
- 1983 Bizkaiko Batzar Nagusietako Ahalduen izendatzen dute.
- 1984 Emaztea hil zitzaion, ekainaren 4an. *Ondarru, kantu, otoi, orru...* idazten du.
- 1985 *Itxastarrak* eleberria idatzi eta Euskalerrriaren Adiskideak elkarteak ohorezko bazkide izendatzen du.
- 1985 *Jose Antonio Andanza hautatu zuten lehendakari. Perestroika martxan Sobiet Batasunean.*
- 1986 Hiru omenaldi jasotzen ditu: Bizkaiko Foru Aldundia-rena, Labayru ikastegiarena eta Ondarroako udalarena.
- 1988 Argia Sarietan aipamen berezia jaso zuten *Egunako* idazleek. *Arranondo* aldizkaria sortzen du.
- 1989 *Berlingo Harresia ireki zen. Aljerreko negoziaketak ETArene eta Espainiako Gobernuaren artean.*
- 1991 *Sobiet Batasuna desegin eta Boris Jeltsin bihurtu zen Errusiako lehendakari. Irak-ek Kuwaiti erasotzen dio.*
- 1992 Ondarroako udalaren omenaldi beroa. "Herriko seme txit argi" izendatzen du udalak.
- 1993 Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen.
- 1994 *Nelson Mandela, Hegoafrikako lehen presidente beltza.*
- 1997 *Krisi ekonomikoa Asiako hego-ekialdean.*
- 1998 Gaixotu egiten da.

- 2001 *Giza enbrioiaren lehen klonazioa. Euroa, Europar Batasuneko 12 estaturen txanpon bakarra.*
- 2003 *Aliatuen inbasioa Iraken.*
- 2004 *Uztailaren 2an ematen du azken hatsa.*
- 2004 *716 milioi pertsonak interneterako sarbidea dute.*



## BIBLIOGRAFIA

### Antzerkia

- 1934 *Aberrijagaz bizi* (*Euzkadi* egunkarian argitaratua)  
1935 *Illoberaren indarra* (*Euzkadi* egunkarian argitaratua)  
1936 *Itxas lapurrak* (*Euzkadi* egunkarian argitaratua)  
1936 *Itxasertzeko Itsu-mutilla* (argitaratu gabea)  
1945 *Itxasora* (Biarritzen saritua 1949an)  
1960 *Seaska inguruan* (1956an Donostiako Agora lehiaketaren 2. saria eta *Eganen* argitaratua)  
1961 *Jaunaren bidetan* (*Eganen* argitaratua, Jose Mari Altunaren musikarekin)  
1964 *Kresaletan* (Gregorio Solabarrietaren musikarekin)  
1963 *Iru alaba* (1963ko Toribio Alzaga Saria irabazia eta Euskeran argitaratua)  
1964 *Ni naz kapitan pilotu* (argitaragabea)  
1965 *Mariñelak* (Jose Mari Altunaren musikarekin)  
1965 *Santa Clararen egunean*  
1965 *Zurrukutun* (argitaragabea)  
1966 *Atxuriko Millagrua* (argitaragabea)  
1966 *Anton Berakatz* (argitaragabea)  
1967 *Bizi garratza* (1967ko Gipuzkoa sarietan ohorezko aipamena)  
1967 *Gizon on eta andre erre* (1967ko Toribio Alzaga saria)  
1968 *Lurrunpean* (1968ko Gipuzkoa saria eta *Eganen* argitaratua)  
1968 *Kirrixkak* (argitaragabea)  
1968 *Loiolako semia* (argitaragabea)  
1969 *Aingira kumak* (*Eganen* argitaratua 1976an)  
1969 *Errekonduan* (1969ko Gipuzkoa saria)

- 1969 *Umetako kezak* (argitaragabea)  
 1970 *Mendu zarrak* (1969ko Toribio Alzaga saria)  
 1973 *Urruzunoren umorea* (argitaragabea)  
 1982 *Zimur zimelak* (argitaragabea)  
 1982 *Martin Itsuki* (argitaragabea)  
 1982 *Etxeari agur* (argitaragabea)  
 1982 *Aritz itzal* (argitaragabea)  
 1983 *Mendi ta itxaso* (Bizkaiko Foru Aldundiaren Saria, Markina Lore Jokoetan)  
 1984 *Don Peru*  
 1984 *Eskola maisua* (Santurtziko Saria)  
 1985 *Ijitoak eta ni*  
 1985 *Ikas-mikas*  
 1985 *Tosta gañean*  
 1986 *Iruugarren adinean*  
 1986 *Gorri ta zuri*  
 1986 *Arrain sunda*  
 1987 *Artea'ko itsua ta beste lau* (Bizkaiko Foru Aldundiaren saria)  
 1990 *Gure ikurra* (argitaragabea)

#### **Olerkia**

- 1966 *Koroiko pitxiak* (1967an Zangotzako Lore Jokoetan lehen saria)  
 1967 *Urbasatik kantuz* (1967an Zangotzako Lore Jokoetan bigarren saria)  
 1968 *Naparroako bideetan* (1968an Zangotzako Lore Jokoetan lehen saria)

#### **Eleberriak**

- 1966 *Piñuetako madalenak* (1965eko Gipuzkoa saria)  
 1978 *Bale denporak* (Murtziako Unibertsitatearen "Premio Nacional de la Crítica")  
 1979 *Anton Guzurretxe* (1979an Txomin Agirre saria)  
 1980 *Laiñoak Mundakan* (1979an J.M. Etxeita saria)  
 1981 *Ira usaiña* (1980an J.M. Etxeita saria)  
 1981 *Mon-daka* (1980an Etxeita bigarren saria)  
 1981 *Ira usaina* (1980an Etxeita sari aipamena)  
 1981 *Bizitzako urratsak*  
 1985 *Itxastarrak*  
 1986 *Garratz eta gordin* (1963an Agora saria Donostian)  
 1991 *Zaldupeko txikiena*

#### **Autobiografia**

- 1983 *Makillen egunak*

#### **Biografia**

- 1988 *Balentin Berriotxoa deuna*

#### **Itzulpenak**

- 1980 *Mixiolari gogoragarriak, Victor San Miguelena*  
 1980 *Gaztelugatxe, Delmasen "San Juan de Gaztelugache"*  
 1981-1985 *Ondarroako udaleko aktak*  
 1986 *Bizkaiko Batzar Nagusiak* (gaztelaniatik)  
 1986 *Lugo'ko ipuin errikoiak* (galegotik)  
 1987 *Euskalerriko istoriaren sarrera, M.A. Larrea eta R. Miezarena*  
 1987 *Gernikako Batzar Etxea, K. Etxegarairena*



### **Kontakizunak eta ipuinak**

- 1964 *Gorri eta txingar*  
1964 *Amonatxo zarrak eta ur txakurrak* (1964ko Ondarroako Lore Jokoetan saritua)  
1964 *Itxas txakurrak*  
1964 *Gogorra gertatu zan errian* (Donostian saria jasoa)  
1966 *Gantzeruak izan dira* (Donostiako Centro de Atracción y Turismo saria)  
1971 *Euri ta txingar*  
1974 *Gure ibillerak* (1974ko Karmel saria)  
1979 *Esan eta esango* (1978ko Azkue saria)  
1985 *Peru eta Mari gureak*

### **Monografiak eta historia**

- 1969 *Motrico* (gaztelaniaz)  
1982 *Gerrateko kontuak*  
1985 *Ondarroa baserri giroan*  
1986 *Berriatua*  
1987 *Ipazter*  
1988 *Amoroto eta Gizaburuaga*  
1988 *Mendeja*  
1989 *Etxebarria*  
1989 *Ea. Natxitua-Bedarona*  
1990 *Aulesti*  
1990 *Ondarroa ikusgarri – Admirable Ondarroa*  
1991 *Markina-Xemein I*  
1991 *Markina-Xemein II*  
1992 *Munitibar. Arbatzegi-Gerrikaitz*  
1993 *Ondarroa, kondaira 1990 arte*

### **Herri jakintza eta saiakera**

- 1976 *Kardala* (euskaraz eta gaztelaniaz)  
1976 *Egutegia 1976. Ondarroa*  
1977 *Boga ta zixe* (euskaraz eta gaztelaniaz)  
1982 *Gure inguruak*  
1984 *Ondarru, kantu, otoi, orru...*  
1984 *Bizkaiko bidetan*  
1987 *Treineru estropadak*

### **Hiztegiak**

- 1989 *Itxas-aize* (itsas-hitz eta esaldi hiztegia)

### **Idazlanen bildumak**

- 1994 *333 oroipen eta ikuspegi* (egunkarietako artikulua)  
1995 *Sits eta Bits, gure gaiak* (egunkarietako artikulua)

## OMENALDIAK

- 1935 Ondarroako Euskaltzale-Bazkunak antolatuta.
- 1986 Bizkaiko Foru Aldundiaren omenaldia
- 1986 Labayru ikastegiaren omenaldia, XVII. Udako Euskal Ikastaroen barruan.
- 1988 Ondarroan, Eusebio Erkiagarekin batera
- 1998 Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak ohorezko bazkide izendu zuen
- 1991 Azpeitian, Euskadiko IX. Euskal Antzerki Topaketetan omendu zuten
- 1992 Ondarroako herriaren omenaldia
- 1993 Akerlanda Informazio Zientzien Fakultateko euskara taldeak omendu zuen.
- 1994 Sabino Arana Saria eman zioten
- 1999 Bizkaiko Foru Aldundiak Andres de Mañarikua eta Nuere 1988 saria eman zion
- 2000 Ondarroako Arranondo Kultur Alkarteak eta *Euskaldunon Egunkariak* omendu zuten.



## AURKIBIDEA

Bokazio handi baten sorrera (1914-1930).....	9
Kazetari gaztearen lehen urratsak (1931-1933) .....	25
Gerra aurreko antzerkigintza eta artikuluak (1933-1935) ....	45
<i>Eguna</i> eta gerra garai luzea (1936-1942) .....	63
Bizitza berria hasten (1942-1955).....	87
Augustinen antzerkigintzaren loraldia (1956-1964) .....	95
Kanpai berrien hotsa (1965-1969).....	113
Katea ez da hautsi (1970-1979) .....	121
Erretiroaren arnasa gozoan (1980-1981) .....	129
Neke gabeko lan arduratsua (1981-1983).....	139
Egina eta izana lotu nahian (1984-1985).....	157
Merezimenduen arteko agurra (1985-2004) .....	165
Kronologia .....	175
Bibliografia.....	181
Omenaldiak .....	187

**LABAYRU IKASTEGIA**  
Euskal Biblioteka – Derio

Sarrerako erregistroa

**elkar** | BIOGRAFIAK

1. **Jose Antonio AGIRRE**
2. **Mahatma GANDI**
3. **Katalina ERAUSO**
4. **Charles CHAPLIN**
5. **Ernesto "CHE" GUEVARA**
6. **Dolores Ibarruri "PASIONARIA"**
7. **Isadora DUNCAN**
8. **Frida KAHLO**
9. **GERONIMO**
10. **Tomas ZUMALAKARREGI**
11. **Joxemigel BARANDIARAN**
12. **Winston CHURCHILL**
13. **Rosa LUXEMBURG**
14. **John F. KENNEDY**
15. **Jose Mari IPARRAGIRRE**
16. **Josif STALIN**
17. **Leonardo DA VINCI**
18. **Robert CAPA**
19. **Miguel UNAMUNO**
20. **Giuseppe VERDI**
21. **Sabino ARANA GOIRI**
22. **Woody ALLEN**
23. **Simone DE BEAUVOIR**
24. **Jorge OTEIZA**
25. **Manuel IRADIER**
26. **Fidel CASTRO**
27. **Augustin ZUBIKARAI**





## Augustin ZUBIKARAI

Idazle izatea abertzale izatea zela sinistu eta sentitu zuen. Euskaltzalea zen oroz gain eta euskararen alde lan egitea zen abertzalearen egiteko nagusia. Behin, goi-kargu politiko batek esan zion: “Zuk erakutsi zein dan gure berezitasuna”. Eta Augustinen bizitzaren eta lan oparoaren itsasargia euskara eta euskal ohiturak bildu eta ezagutzera ematea izan zen.

“Gu ez gara urandiko arraiñak.  
Ez gara galoï askodun patrioiak  
nai ta euskeraren itxasoan,  
gure itxasertz onetako mariñel  
zarrak ausartzen ziran lez Lur  
Barrietaraino joaten ausartu”



ISBN 978-84-9783-816-0



9 788497 838160